

SARRERA.

1. Sightings.

Bidaia-liburuek literatura jenero zabala osatzen dute, eduki eta forma anitz hartzen ahal duen jeneroa hain zuzen ere; memoriak, gertakizun historikoen kontraera edo esperientzia pertsonalen narrazioa, ohar etnografikoak, gogoeta estetikoak edo hausnarketa politikoak, ikusitako gauzekiko mespretxu gordina eta ezaguturiko jendearenganako mugarik gabeko mirespena: ikuspuntu horiek guziak (zenbait baizik ez aipatzearren) sar daitezke bidaia-liburu batean. Halaber, hainbertze forma har ditzaketen testu horien egilea, bidaiaria alegia, janzkera ugarietan agertzen zaigu: militarrek, kazetariak, historialariak, antropologoak, eleberrigileak, unibertsitate irakasleak, medikuak, abenturazaleak, turistak; mozorro horiek guziak (batzuk baino ez aipatzeko) eskura ditu bidaiariak.

Bakoitzak, testu mota bakoitzak eta bidaiari forma bakoitzak alegia, ikuspegi berezi bat ekartzen du berarekin. Puntu horretara geroxeago itzuliko naiz. Orain gauza xinpleago eta oinarritzkoago bat azpimarratu nahi nuke. Bidaia-testu bat ez da soilik bidaiari bat eta toki bat elkartzetik sortzen. Erran nahi baita, bidaiariak ikusten edo ikusi duena baino anitzez gehiago kontaktzen du: ikustea espero zuenaren berri ere ematen ohi du, eta aurkitzerik espero ez zuena nabarmentzen du, harriturik; ikusteko erran dioten hartan arreta berezia paratuko du eta toki hura bisitatzera eraman duten arrazoiak ere agertuko dira bere narrazioan. Baina agian nik baino hobeki bidaiari batek azalduko du. 19. mendearen bukaeran, honako hau zioen James Condamin Lyoneko Unibertsitateko irakasleak, bidaia-liburu baten aitzin-solasean:

“Begi-bistako egia bat adieraztea da erratea, bidaiatzean, bakoitzak berarekin bere ideiak, bere aldartea eta bere gustuak daramatzala; bakoitzak, muga pasatuta, bere ikuspegi pertsonalaren arabera epaitzen du atzerria: modu honetan, ikuspegi hori zein irekia den eta bakoitzaren kultura zein zabala den, askotan bai jendeari bai gauzei buruzko balorazio erabat ezberdinak sortzen dira” (Condamin 1894: VI).

[“Car c’est énoncer une vérité banale de dire que chacun porte avec soi, en voyage, ses idées, son tempérament et ses goûts; chacun, la frontière une fois franchie, juge l’étranger avec

son ouverture d'intelligence personnelle: en sorte que, de la largeur de cette ouverture d'esprit et du degré de la culture propre de chacun, ressortent souvent, sur les hommes comme sur les choses, des appréciations totalement diverses” (Condamine 1894: VI)].

Begi-bistako egia batez ari gara, beraz. Dena den, noizean behin komenigarria izaten da oinarrizko gauzak ere errepikatzea, haietara hain ohituta izateagatik ahatz ez ditzagun: bidaiari guztiak ateratzen dira etxetik hainbat itxaropen eta aurreiritzi maletan daramatzatelarik. Baina, aldi berean, agian modu batean baino gehiagotan irakurtzen ahal dugu hain nabaria bide den egia hori. Horretarako, goian aipaturiko lerroak haien testuingurura eraman beharko ditugu.

Lerro horiek Blanc Saint-Hilaire adiskidearen liburu baten aitzin-solasean jarri zituen Condaminek, Blanc Saint-Hilaire hil ostean agerturiko liburu batean, hain zuzen ere. Eta Saint-Hilaire-ri omenaldia den hitzurre horretan, Condaminek ez zuen bidaia-testuen subjektibotasuna edo konplexutasuna azpimarratu nahi, adiskidearen kultura zabal eta sakona goraiatu baizik. “Benetan bidaiatzen jakiteko baldintza batzuk bete behar dira”, dio Condaminek (1894: VI). Egia da atzerrira joandakoari diruak museo eta hoteletako atea irekiko dizkiola eta bidaia erosoago egingen, baina bidaia bat egiatan emankorra izatera, hau da, ikusiriko monumentu, toki eta lurraldeetatik atera beharreko fruitua atera nahi izanez gero, bertze aberastasun mota bat beharko du bidaiariak: “Honako hauek dira benetako turistak behar dituen sosak: literatura, historia, geografia, artea, arkeologia, etnografia etab.” (Condamine 1894: VII). Bidaiari batzuek, beraz, atzerriko eskualdeak ikusten dituzte, beti ere zer ari diren ikusten sobera ongi jakin gabe; bertze zenbaitek, berriz, solas egiten dute, nolabait errateko, bidean kausitzen dituzten gauzekin. Badira, hitz batean, gainazaleko begiradak eta begirada sakonak, eta horien arabera, bidaia-liburu “entretengarriak” edo “politak” (horren adibide, Condaminek Théophile Gautier idazlearen *Voyage en Espagne* aipatzen du) eta bidaia-liburu “onak eta ederrak”¹, Blanc Saint-Hilaire-rena bezala, jakina. Izan ere egile horrek “jakintsu bilakatzeko lana hartua zuen” eta “‘pazientzia luze’ bati esker [...] jakintsu izatera iritsia zen” (Condamine 1894: VII). Idazle zorrotzak eta idazle arinak, liburu serioak eta liburu atseginak, banaketa horretan laburbiltzen da Condaminen argudioa. Irakasle horren ustez, hortaz, badago bidaia-liburuak eskala objektibo baten arabera sailkatzerik, egileen jakinduriaren arabera hain zuzen: ondorioz, gehiago dakitenak atzerriko kulturak sakonago ulertu eta hobeki balioesteko gai izanen dira eta, hortik,

¹ Condaminek erabiltzen dituen hitzak honako hauek dira: alde batetik, “un ‘joli’ livre”, nik bi hitzen bitartez, “entretengarria” eta “polita”, itzuli dudana, eta bertze aldetik, “un ‘bon’ et ‘beau’ livre”.

liburu onak, onuragarriak, eginen dituzte; kultura eskaseko bidaiariek, berriz, liburu atseginak, denbora pasatzeko modukoak baino ez dituzte osatuko. Condaminen aitzin-solasean jakinduria da bidaia-liburuaren balioa epaitzeko neurri objektiboa. Horra, bere testuingurura eramana, begi-bistako egia horren esanahia.

Begi-bistakoa izanik, ez dago ukatzerik: liburu batzuetan gehiago ikasten da bertze batzuetan baino. Baina, hori aitortuta, has gaitzen orain berritik eta saia gaitzen Condaminen ageriko egia hori bertze modu batera irakurtzen, ikerketa honetara interesagarriago gerta daitekeen modu batera. Horretarako, pixka bat desbideratu eta Txinaraino joango gara.

The Chan's Great Continent izenburuko liburu bikainean Jonathan Spencer sinologoak Txinaren irudiak Mendebaldean ikertu zituen, Marco Poloren liburutik Kafka edo Borges testuetaraino, tartean 17. mendeko jesuitak edo Fu-Mantxu eleberririk ahanzi gabe. Sarreran, liburuaren helburuak aditzera emanez, Spencerrek dio Txinaren hainbat *sighting* egin dituela, eta hitz polisemiko horren esanahiak azaltzera pasatzen da (Spencer 1999: xi-xii). Esanahi horietatik bi dira orain interesatzen zaizkigunak.

Nabigazio historian, ontzi batetik lurra ikusten den lehen mementoan egiten da *sighting* delako hori. *Sighting* bat egitea, beraz, lurra ikuskatzea edo begizatzea da; kontuan hartu behar da, hala ere, *sighting* edo begizatze memento hori iragankorra dela arras, eta ikuskatu dena zer den ere ez dagoela beti guztiz argi. Spencerrek berak ematen duen adibidea erabiltzearen, Cristobal Colonek Ameriketako lurra begizatua, Txinara, Khanaren kontinente handira alegia, ailegatua zela pentsatu zuen: egunsentiko argitan ez ezik, bere itxaropenen argitan ere ikusi zuen Colonek Ameriketako kostaldea lehen aldi horretan. Hain muturrekoa izanagatik, Colonen kasua sinbolotzat jo genezake: bidaiari hark ez zuen begien aitzinean zuena ikusten; etxetik ekarritako esperantzen arabera, aldezturik egindako aukeren arabera, bidaiari ekin baino lehen ezagututakoaren arabera osatua zuen bere objektua, Txinara ez, kontinente berri batera iritsia zela ez onartzeraino. Erran bezala, muturreko kasua da Colonen. Eskuarki, bidaiariak daramatzan irudiak eta atzerrian aurkitzen duen errealitatea nahastu egiten dira, elkarri eragiten diote, irudi horiek aldatzera behartuz edo indartzera gonbidatuz; beti ere, ez da ahaztu behar errealitate hori ez dela errealitate “objektiboa”, baizik eta bidaiariak, hein handi batean, bere aurreiritzi eta aldezturiko irudien bitartez interpretatu eta osaturiko errealitatea dela: bidaia-testuan gorpuzten da harreman zail hori, aurreiritzien eta errealitatearen artekoa, gogoan zegoenaren eta begien aurrean

dagoenaren artekoa. Bi alderdi horiek topo (edo talka) egiten dutenean, bidaiaren narrazioa sortzen da.

Condaminen begi-bistako egiara bueltatuz, beraz, oso garrantzitsuak dira bidaiariak sorterritik dakartzan gustuak eta ideiak, eta oso garrantzitsuak, orobat, haren kultura zabala edo estua, haren jarrera baikorra edo ezkorra, haren jakin-min bizia edo eskasa. Osagai horiek guztiak garrantzitsuak dira, baina ez soilik bidaia-liburuak sailkatzeko, haien orrialdeetan ematen den informazioaren kantitate eta kalitatearen arabera (Condaminek proposatzen zuen moduan); garrantzitsuak dira ohar gaitzezen bidaia-liburuak testu korapilatsuak direla, hainbat eraginek elkarrekin topo egiten baitute haien lerroetan. Bidaia-literatura, lerrootan ikergai daukadana, bidaiariak espero zutena eta kausitu zutena elkartetik eta nahastetik sortzen da. Azken batean, bidaia-liburuak errealitatearen eta fikzioaren arteko muga dabiltzan diren testu literario eta konplexuak dira. Iduritzen zait *sighting* hitzak, lehen adiera horretan, ongi laburbiltzen ahal duela konplexutasun hori.

Sighting hitzak badu, hala ere, guretako interesgarria izan daitekeen bigarren adiera bat, arlo militarretik datorrena. *Sighting* bat egitea, bigarren testuinguru horretan, kanoiak prestatzea zen, jo beharreko helburuan jo zezaten. Adiera hori guretako interesgarria izan daitekeela diot bi arrazoirengatik. Alde batetik, maiz Euskal Herriak bidaiarien eta, oro har, atzerritarren arreta bereganatu du gerlak zirela medio. Bi karlistaldietan, baina batez ere lehenean, 1833-1839koan, atzerritar asko eta asko etorri ziren gerlan parte hartzera, gerlaz informatzera, edo gerlako leku nagusiak ikustera. Horregatik hitzaren adiera militar hori oso aproposa iduritzen zait, gerlak balio izan baitu begiradak Euskal Herri aldera itzularazteko. Dena dela, hau egiaren erdia bertzerik ez da, bake garaian sorturiko bidaia-literaturak ere (Euskal Herriari buruzkoaz ari naiz, jakina), inportantzia handia izan baitu. Gerla ez da (beharririk!) euskaldunen kontu erakargarri bakarra izan.

Bertze aldetik, nire ustez egia da askotan Euskal Herria *sighting* bigarren mota horren objektua izan dela eta izaten segitzen duela. Begirada gaixtoen jomuga, horrela adieraztea zilegi bazait. Liburu honetan, ordea, horrelako gutxi agertuko dira. Etorritako bidaiari guztiei ez zitzaizkien euskal lurraldeak xarmangarri iduritu, eta kritikak (normala denez) ez dira falta. Baina, oro har, lehen adierako *sighting*-ez arituko naiz datozen orrialdeetan.

Honezkero ziur aski argi dagoenez, testuak haien konplexutasunean hartzen saiatuko naiz. Salbuespenak salbuespen, ez naiz egiak gezurretatik eta gezurrak egietatik

bereizten arituko, ikuspuntu positibistago batetik egin litekeen bezala. Baieztapenak haien testuingurura eramaten, testuen arteko harremanak eta testuen barneko mailak argitzen, egileen motiboak eta xedeak azaleraztan ahaleginduko naiz. Bidaia-liburuak, berriz diot, ez dira iturri objektiboak (iturri objektiborik baldin bada), literatura dira, eta fikziozko izaera *ere* badute. Beharbada adibide bat ematea ez da erabat lekuz kanpo egonen.

Christian August Fischer alemaniarra, 18. mendearen bukaeran, 1797-1798an hain zuzen ere, Amsterdametik Genova, Madril eta Cadizetik pasatuz, egindako bidaiaren berri eman zuen liburu batean. Liburua, 1799an plazaratua eta 1801ean berrargitaratua, garrantzitsua izan zen garai hartan. Izan ere, 18 eta 19. mendeen artean Fischer Espainiako gauzen dibulgatzaile nagusietako bat izan zen Alemanian, eta (horren froga bat emateagatik) bidaia hura egiteaz gain, espainiar literaturaren lan batzuk ere itzuli zituen alemaniarara (Zimmermann 1997: 105-113). Fischerren *Reise von Amsterdam über Madrid und Cadiz nach Genua* zenbait gutunez osatua dago, tartean Euskal Herritiko batzuk ere badirelarik. Liburuko 15. gutuna Getarian idatzia dago. Egileak, Donostiako portuan tarte labur bat pasa ondoren ontziz Bilbora zihoalarik, herri horretan sartu eta gelditu behar izan zuen eguraldi txarra, haize bortitza batez ere, zela eta. Honako hau da egiten digun deskripzioa, Getariara iristean:

“Niretako, dena berria zen. Balkoietan emakumeak agertu ziren, beloa zeramatela eta eskuetan arrosarioak zituztela, gu lehorreratzen ikusteko; kai-muturrean, gizonak beren euskal mintzairan deitzen ziguten, ahoan zigarroak eta soinean saretxoekin loturiko txalekoak eta gerriko zabalak zituztela,; gure ondotik txalupak pasatzen ziren, horiz eta gorritz jantzitako neskak eramanez, txirikordak gorputzaren inguruan lotuak zituztenak; urrundik fandango kantak aditzen ziren danbolin burrunbariaren soinuekin batera, eta leku guztietan gurutzefikak edo Ama Birjinaren irudiak agerian zeuden; labur erranda, kontaezin eta deskribaezinezko irudipen horiek guztiek batera osatzen zuten ikuspenak Espainian nengoela iragartzen zidan” (Fischer 1801: 70-71).

[“Alles war neu für mich. Auf den Balconen erschienen beschleyerte Weiber mit Rosenkränzen in den Händen, um uns landen zu sehen; auf dem Damme riefen uns Männer mit Cigarros in dem Munde, mit Redecillas bebänderten Westen und breiten Scherpen, in ihrer basquischen Sprache zu; neben uns fuhren Boote mit gelb und roth gekleideten Mädchen vorüber, die ihre langen Flechten um den Leib gewunden hatten; aus der Ferne tönte der Gesang des Fandango zu dem summenden Tambourin, und überall waren Cruzifixe oder Marienbilder zu sehen; kurz die Ansicht des Ganzen aus unzähligen unbeschreibbaren Eindrücken zusammengesetzt, bewies mir auf einmal, daß ich in Spanien war” (Fischer 1801: 70-71)].

Espainiara ailegatu ez ezik, Espainia begi kolpe batez harrapatu du Fischerrek: erlijioa eta musika, txirikorda luzeko neskak, andre belodunak eta gizonak zigarroa ahoan, denak Fischerri begira, eguraldi txarra gorabehera bakoitza bere tokian, Mr. Marshallen esperoan baleude bezala. Nire ustez, hori da Fischerren testua salatzen duena, artifizialtasun gehiegizko puntu hori hain zuzen, koadroaren perfektutasun soberazkoa. Zein zorte ona, Fischerrena: aldez aurretik prestatu gabe, halabeharrez herri batera joan behar izan, ontzitik jaitsi eta berehala, bitxikeria guztiak, nota pintoresko guztiak bertan bilduta, berak bere liburuan jaso eta deskriba ditzan: danbolina, euskara, arrosarioak, neska gazteak, emakumeak eta gizonak. Ez dut erran nahi Fischer gezurretan ari denik, ez zituenik gauza horiek ikusi eta entzun. Ikusi eta entzun egin zituen, seguruenik. Baina uste izatekoa da ez zituela denak batera topatu, eta deskribaturikoak baino gauza gehiago ere aurkitu zituela. Bertze modu batean errateko, Fischerren testuaren izaera literarioa azpimarratu nahi dut. Bere ikuspuntutik ziren elementurik xelebreenak, deigarrienak, bitxienak aukeratu zituen, modu horretan, tipismoz beteriko margolan moduko bat begi aurrean paratzeko.

Izan ere, Fischer irakurlea prestatzen hasia zen horrelako deskripziorako. 11. gutunean, Baionatik idatzian, Espainiako mugaren hurbiltasuna sumatzen du jada Fischerrek:

“Iduri zuen gauzaki guziek halako espainiar itxura bat zeukatela. [...] Euskararen ezohiko doinuek berek ere, jendea dantzara mugitzen zuten danbolin burrunbariek, aurpegietan eta imintzioetan adierazten ziren grinak eta kemenak, horrek guztiak Espainiako muga zekarkigun gogora” (Fischer 1801: 52).

“[Alle Gegenstände schienen nunmehr ein spanisches Ansehen zu haben. [...] [S]elbst die ungewohnten Töne der baskischen Sprache, die summenden Tambourins, nach welchen man tanzte, und das Wilde, Leidenschaftliche in den Mienen und Gesticulationen, alles erinnerte uns an die Gränze von Spanien” (Fischer 1801: 52)].

Baionan igartzen eta iragartzen hasten dena, Getarian gorpuzten da. Beraz, libururako forma epistolarra aukeratu arren, ez dirudi gutunak bat-batean idatziak izan zirenik. Alderantziz, ematen du landuak izan direla. Fischerrek ederki daki Europatik Hegoalderanzko bidea poliki, gradualki aurkezten, Hegoaldeko balizko ezaugarriak (erlijioa, musika, neska ederrak) paragrafo batean laburbiltzen dakien bezala. Eta

pentsatzekoa da hori zela haren irakurleek espero zutena: Fischer Espainia deskribatzera etorri zen eta Espainia deskribatu zuen, Getarian deskribatu ere. Horrek ez du erran nahi euskaldunen berezitasunetarako itsu zegoenik: euskararen eta foruen inguruan ere bazuen zer kontatu; bere ikuspuntua, gainera, onuraz alderatzen ahal da Humboldtarenekin, baina horretaz ez naiz orain, sarrera honetan, arituko. Gero itzuliko naiz berriz ere Fischerren liburura. Momentuz hau baino ez nuen erakutsi nahi: bidaiia-liburuak testu landuak, testu literarioak direla, eta ez egiari loturiko testigantza hutsak.

2. *Izenak eta izanak: Euskal Herria asmatzen.*

Liburu honetan, Euskal Herrira etorritako bidaiariak izanen ditut aztergai. Hori gogoan, Fischerren testuak arazo txiki bat agerian utzi du (eta, nahita, orain arte aipatu ez dudana): bidaiari anitz, Fischer bezala, ez ziren Euskal Herrira etorri, Espainiara, Espainiako Iparraldera edo Frantziako Hegoaldera baizik. Bertzalde, euskaldunak izendatzeko hitz bat, hizkuntza guztietan balio duena, ez dago: frantses eta ingelesezko *Basques* (Lacour 1834: 11; Henningsen 1836: I, 67) hitzaren ondoan, alemanerazko *Basken* (Rahden 1851: 10), *Basquen* (Fischer 1801: 60), eta *Vasken* (Humboldt 1920), ingelesezko *Biscayans* (Wilkinson 1838: 14), eta frantsesezko *Biscayen(ne)s* (Blanc Saint-Hilaire 1894: 377) edo *Biscaïen(ne)s* (Quinet 1998: 10) aldaerak ditugu. Forma arraroagoak ere ez dira ahaztu behar: *Basquinos*, ingeles testu batean (Roscoe 1837: 10); *Basquaises* (Vinson d.g.: 611), forma beti femeninoa; frantsesezko *Euskarien(ne)s* (Blanc Saint-Hilaire 1894: 377) eta ingelesezko *Euskarians*; eta *Cantabrians* (Ford 1845: 923) edo *Cantabres* (Humboldt 1817: 8) forma historiko eta jasoak (ingelesez eta frantsesez, hurrenez hurren). Nahasmena areagotzeko, idazle berberak forma bat baino gehiago erabiltzen ahal du, eta forma batek esanahi bat baino gehiago izan ditzake, egileen arabera.

Lurraldeei begira ere badira izendapen aukera ugari: *Biscay* (Roscoe 1837), *Biscaye* (Crusy 1805: 272), *Biscaya* (Fischer 1801: 71), *Cantabria* (Humboldt 1843)², *pays basque* (Michel 1859), *provinces basques* (Poitou 1869: 12), *Baskenland* (Rochau 1847: 256), *Basquenland* (Humboldt 1920: 5, oharra), *Vaskenland* (Humboldt 1920: 15) *provinces bascongades* (Sabatier 1836: 26),

² Izan ere, 1843an, Wilhelm von Humboldtaren obra guzietan 3. tomoan agertu zen testu laburrak *Reiseskizzen aus Biscaya* titula zeukan. Obra guzietan edizio hura Alexander von Humboldt anaiak prestatu zuen, eta hark paratu zion izenburua testuari. Jatorrizko izenburua *Cantabria. Im Wagen* zen.

Basque provinces (Bacon 1838), *baskische Provinzen* (Loning 1843) *Basque countries* (Russell 1873), *l'ancienne Cantabrie* (Blanc Saint-Hilaire 1894: 374)... Eta lehengo hitzekin gertatu zena horiekin ere gertatzen da: egile batek badu testu berean izendapen bat baino gehiago baliatzerik, eta izendapen berberak ez du testu guztietan gauza bera erran nahi. Nafarrek, ordea, ez dute eskuarki zailtasun hori edukitzen: *Navarrese* dira ingelesez, *Navarrais(es)* frantsesez, *Navarresen* alemaneraz. Bertze kontu bat da, bertze korapilo bat bide korapilatsu honetan, nafarrak *Basques* edo diren-direlakoek osatzen duten taldean sartzen ote diren. Horretan ere (nola liteke bertze modu batean?) bidaia-liburuek oso erantzun ezberdinak ematen dizkigute.

Jakina, ez naiz ni arazo horretaz konturatu den lehena: Wilhelm von Humboldt jakintsu prusiarrak zorrotz nabarmendu zuen bere garaian:

“Euskal nazioaren leinu guziak izendatzeko hitz bat erabili nahi izatera, larri ibiliko ginatke, eta alferrik bilatuko genuke espainiarrek, frantziarrek eta alemanek aho batez onarturiko bat. Frantziarrek ez dute izendapen orokorrik ezagutzen. *Biscayens* erraten dute Espainiako euskaldunez ari direlarik, eta *Basques*, Frantziako euskaldunez, eta, beharrezkoa denean, antzinako izenera jotzen dute: *Cantabres*. Espainiarrek *Vizcaya* izena berez Jaurerrira, *el Señorío*-ra, mugatzen dute, bestela herriari *las provincias Bascongadas* deitzen diote, eta hizkuntzari, *el Bascuence*. Biztanleak probintzia bakoitzaren arabera izendatzen dituzte: *Vizcainos*, *Guipuzcoanos*, *Alaveses*. Horrela bere izenaren batasuna ere galdu du herri gizajo honek” (Humboldt 1920: 5, oharra).

“[Man geräth in Verlegenheit, wenn man den ganzen Stamm der Biscayischen Nation mit Einem Namen benennen will, und man sucht vergebens nach einem, der einstimmig von Spaniern, Franzosen und Deutschen angenommen wäre. Die Franzosen kennen schlechterdings keine allgemeine Benennung. Sie sagen: *Biscayens*, wenn sie von den Spanischen, *Basques*, wenn sie von den Französischen Vasken reden, und nehmen im Nothfall ihre Zuflucht zu dem alten Namen: *Cantabres*. Die Spanier schränken den Namen *Vizcaya* nur auf die eigentliche Herrschaft, *el Señorío*, ein, und sagen übrigens von dem Lande: *las provincias Bascongadas*, und von der Sprache *el Bascuence*. Die Bewohner nennen sie nach den einzelnen Provinzen: *Vizcainos*, *Guipuzcoanos*, *Alaveses*. So hat dieser unglückliche Völkerstamm selbst bis auf die Einheit seines Namens verloren” (Humboldt 1920: 5, oharra)].

Bere lanera bederen argitasuna ekartzeko asmoz, alde zurretik erraten digu Humboldttek zein hitz erabiliko duen:

“Aldi berean gauzak labur eta argi errateko, eta nazio hauetan guztietan ohikoak diren izenak erabiltzeko, honako izendapen hauetaz baliatu naiz. Basquenland-en [Ipar Euskal Herrian], Biscaya-n [Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan] eta Navarra-n [Nafarroan] hedaturiko leinu osoaz mintzatzean: Vasken. Espainiako zatiaz aritzeko: Biscaya; Frantses Errepublikaren menpe dauden euskaldunetz hitz egiteko: Basquen; eta *Señorio* delakoari erreferentzia egiteko: Vizcaya” (Humboldt 1920: 5, oharra).

[“Um zugleich kurz und deutlich zu sein, und alle bei diesen verschiednen Nationen üblichen Namen zu benutzen, werde ich mich folgender Benennung bedienen. Wenn von dem ganzen durch das Basquenland, Biscaya und Navarra verbreiteten Stamm die Rede ist: Vasken; wenn ich von dem Spanischen Antheil des Landes rede: Biscaya; wenn ich von den der Französischen Republick unterworfenen Vasken spreche: Basquen; wenn ich das sogenannte *Señorio* besonders meyne: Vizcaya” (Humboldt 1920: 5, oharra)]

Salbuespena da Humboldt. Gainerako bidaiarietan ez dugu normalean horrelako zehaztapenik aurkituko. Bidaiari berezia dugu Humboldt. Euskara ikastera eta ikertzerara etorria, terminologia finkatu nahi horrek ez gintuzke harritu beharko: bere ikerketaren objektua definitzen ari da. Bidaiari gehienak, ordea, ez ziren euskara ikastera edo euskaldunak ikertzerara etorri. Erran bezala, haietariko asko militarrek, kazetariak, turistak... ziren. Hitzen esanahiak ongi eta argi finkatzeak ez zituen sobera kezkatzen. Eta, gaineratuko nuke ez zituela zertan kezkatu, ez baitziren tesirik edo lan akademikorik egiten ari. Hala ere, testuak aztertzeo tenorean, garrantzitsua da hori, axolagabetasun hori, kontuan hartzea. Horrelakoa baita landu beharreko gaia: gutxitan gardena, gehienetan finezia urrikoa eta, batzuetan, arrunt nahaskorra. Horrekin ez dut bidaiarien kontrako kritikarik egin nahi. Alderantziz, badakit esanahiak bilatzea, ateratzea, askatzea niri, ez bidaiariei, dagokidala, baina aldi berean azpimarratu nahi dut jakin behar dela nolakoa den esku artean dugun materiala.

Edonola den ere, izen ugaritasun horren azpitik edo gainetik, 19. mendeak aitzinera egin ahala, poliki-poliki, Euskal Herria sortzen da. Erran nahi da, hona hurreratutakoaren begirada horiek guztiek, haien deskripzioek eta komentarioek, haien eztabaidek eta desadostasunek, urrun idatzitako haien hitz hurbilek Euskal Herria deitzen ahal dugun gauzaki baten profila marrazten dutela. Gaur egun, anitzetan, bigarren adierako *sighting* gaixto horien ondorioz, Euskal Herririk ez

dagoela erran ohi da. Nire iduriko, 19. mendeko bidaia-literaturak, lehen adierako *sighting*-ek, kontrakoa frogatzen dute. Haiek paratu baizituzten euskal gauzak Europako begiradapean; euskaldunen jatorriaren inguruan eztabaidatuz, euskarari buruzko teoria zentzudunak edo eroak sortuz, euskal ohituretarako azalpen sinestezinak edo zientifikoak bilatuz, Europako mapa kontzeptualean kokatu zuten Euskal Herria. Labur erranda, Euskal Herria *asmatu* egin zuten, edo, gutienez, asmatzen lagundu zuten.

“Hamaika jendek niri esker jakin du euskaldunak existitzen direla” zioen Francisque Michel ikerlari frantziarrak 1859ko liburu baten aitzin-solasean (Michel 1859: 8)³. Liburu horretan, *Le romancéro du Pays Basque* tituluarekin hainbat poesia edo istorio poetiko edo balada bilduak zituen. Aitzin-solasean, balada horiek benetan euskal baladak edo euskal kutsuko balada asmatuak ote ziren eztabaidatzen zuen Michelek imajinaziozko elkarrizketa batean. Kontua, orain interesatzen zaiguna, hauxe da:

“Argi ikusten da balada hauek [...] eginak izan direla halako osotasun ideia bat gogoan, eta erakutsi nahi dutela euskal herriaren existentzia haren alderdi askotarikoetan” (Michel 1859: 10).

[“On voit bien que ces ballades [...] ont été composées avec une certaine vue d'ensemble, et qu'elles prétendent faire envisager, sous ses divers aspects, l'existence du peuple basque” (Michel 1859: 10)].

Euskal herriaren “existentzia” hitza erabiltzean, “bizitza” erran nahi du Michelek. Izan ere, euskaldunen bizitzaren aspektu guztiak –lana, amodioa, dibertimenduak– bildu nahi zituen balada horietan (liburutik ateratzen den irudia ziur aski sobera folklorikoa irudituko litzaiguke, baina hori bertze kontu bat da). Euskalduntasuna, bere osotasunean, liburu batean bildu, laburbildu, euskaldunak hor daudela eta nolakoak diren erakusteko. Azkenean, euskaldunen “bizitza” ez ezik, euskaldunen “existentzia” ere agerian uzten du egileak. Michelen *Romancéro* alegoria bihurtzen da, nolabait, euskaldunen existentzia erakusten eta, aldi berean, frogatzen duena. Liburu batean harrapatu nahian, imajinatu egiten ditu Michelek euskaldunak, eta imajinatuz, haien berri eman eta zabaldu. Francisque Michel, jakina, bidaia-literaturaren sinbolo gisa erabiltzen ari naiz,

³ *Le Pays Basque* liburuaz (Michel 1857) ari zen Francisque Michel, lan benetan aitzindaria izan zena.

argitzeko zer erran nahi dudan bidaiariek Euskal Herria asmatu dutela diodanean.

Euskaldunak herri asmatua garela maiz entzun dugun zerbait da, irain gisa, bigarren adierako *sighting* etsai horien ondorio bezala. Erantzuna kontrako muturrera jotzea izan da askotan: euskaldunak Europako herririk zaharrena gara, betidanik egon gara hemen, ez dago guk baino historia luzeagoa duenik. Erantzun horiekin okerreko bidetik jo dugula, jo dutela horrela erantzun dutenek, uste dut. Azken batean, argudioari modu horretan kontra eginez, argudioaren tesi nagusia ontzat ematen da, alegia badirela lehen mailako nazioak (betidanikoak) eta bigarren mailakoak (berriak, asmatuak). Herrien munduan nobleak eta plebeioak daudela ez da, nonbait, zalantzan paratzen ahal, beraz bila ditzagun guk ere gure tituluak.

Nire ustez, herri asmatua garela onartu ez ezik, aldarrikatu ere egin beharko genuke, herri edo nazio guztiak asmatuak izan baitira. Nazioak ez dira ibai edo zuhaitz bezalako gauzak; ez dira gauza naturalak, ez daude hor, gure aurrean, ikusi eta ukitu ditzagun. Kontzeptu kulturalak dira, gizakiok sorturikoak. Giza talde bat, nazio izateko, nazio gisa imajinatua izan behar da. Berdin da euskal taldea *fisikoki* eskualde berean egon izana Neolitotik, Paleolitotik edo Big Bang delakotik; inoiz inori bururatu ez balitzaio nazio gisa, herri gisa imajinatzea, ez litzateke nazio bat izanen. Eta imajinatze hori, asmatze hori, barnekoek eta kanpokoek egiten dute. Bietarik bigarrenean, kanpokoek imajinazioan alegia, kokatu nahi da ikerlan honen interesa. Atzerritarren begiradetatik, bisitarien diskurtsotik, bidaiarien liburuetatik nola sortzen den, zailki eta poliki, aitzinera eta gibelera eginez, Euskal Herriko irudia. Eta horretarako 19. mendea da, ezbairik gabe, garai egokiena. Dena den, ni ez naiz gai hau interesgarriztat jo duen bakarra. Bidaia-liburuek interes berezia sortu dute gure artean aspalditik, eta aurrekarien lana aitortzea bidezkoa baino ez da.

3. *Aurrekariak.*

Bidaia-literaturak tradizio luzea dauka hainbat herritan, Ingalaterran batez ere. Bertakoak izan dira eta dira gaur egun ere bidaiari ezagunenetariko batzuk (Wilfred Thesiger, Bruce Chatwin edo Jonathan Raban), eta hortaz normala da bidaia-literaturari buruzko ikerketek ere herri horretan tradizio eta indar

handiagoak edukitzea. Horren froga *The Cambridge Companion to Travel Writing* liburuan bildutako saioak eta bibliografia ditugu (Hulme & Youngs 2002).

Gure artean ere ez da falta bidaia-literatura landu duenik; are gehiago, 20. mende hasierako *Batxiren* kazeta kroniketatik hasita (Bilbao 1997), jeneroa bere aniztasunean agertzen da euskal literaturan. Bada bidaiari “klasikoa”, toki urrun eta exotiko bat bisitatzera doana: Jon Arretxeren *Ekialdeko mamuak* edo *Griot* (Arretxe 2002 eta 2004) izan daitezke horren adibide on bat. Bidaia politikoa ere baditugu, gatazka politikoa pairatzen ari diren hainbat tokitara joanda idatziak: Palestinara (Murua 1998), Belfastara (Murua & Unzueta 1996) edo Hego-Afrikara (Olasagarre 1998). Bada bidaiari literarioa, eskualde baten idazleen aztarnak bilatzen duena: 2004ko udan Anjel Lertxundik Italiatik *Berriara* bidalitako orriak aipatuko ditut adibide moduan (Lertxundi 2004). Harkaitz Canoren *Piano gainean gosaltzen* ere bidaia literarioa da, bertze modu batean, hala ere, idazteko behar den baldintzen bila edo (Cano 2002). Azkenik, Aurelia Arkotxak imajinazioa, poesia, geografia eta bidaiak nahasten ditu *Septentrio* liburuan (Arkotxa 2001). Euskaldunek berek bidaia-liburuak idatzi badituzte, atzerriko bidaia-liburuekiko interesa ere erakutsi dute. Azken lan horiek, ordea, gaztelaniaz, ez euskaraz, idatziak izan dira, salbuespen gutxi batzuk gorabehera.

Gure artean bidaiariak utzitako irudiez arduratu den beharbada lehena eta zalantzarik gabe garrantzitsuenetariko bat Justo Garate (1900-1994) izan da. Lanbidez medikua izanik, historiak biziki erakartzen zuen, eta historia alorrean, atzerriko bidaiariak. Jada 1927an Eusko Ikaskuntzaren aldizkarian argitaraturiko artikulu batean “Houston Stewart Chamberlain eta euskaldunak” izan zuen mintzagai (Garate 1927)⁴. Bere azken lanean ere bidaiari bati buruz aritu zen: Humboldt senar-emazteen hamabi gutun itzuli eta komentatu baitzituen (Garate 1993). 1927-1993 tarteko 66 urte horietan lan mardula egiteko aukera izan zuen Garatek, bai erbestean (Espainiako Gerla Zibilaren ondoan) bai Euskal Herrian. Artikulu ugari plazaratu zituen egunoroko prentsan eta aldizkari zientifikoetan, zeinetan bidaiari bat edo bertzea aztertzen baitzuen: Victor Hugo (Garate 1935), Christian August Fischer (Garate 1978, 1982) edo D’Aulnoy Baronesa (Garate

⁴ Justo Garateren bibliografia ezagutzeko ezinbertzekoa da Ascunce & San Miguel (2000) kontsultatzea. Justo Garateri buruz, oro har, ikus Askoren Artean (2000).

1949), batzuk aipatzearren. Baina, segur aski, Wilhelm von Humboldt zen gehien interesatu zitzaiona. Berlingo jakintsuari buruzko liburu oso bat (Garate 1933a) prestatzeaz gain, artikulua asko eta asko kaleratu zituen; lan horietan, Humboldtten obraren hainbat alderdi aztertzeaz gainera, zenbait zati gaztelaniara itzuli zituen. Izan ere, Garateri esker, alemanieraz oraindik argitaratu gabe dirauten testu batzuk eskuragarri daude gaztelaniaz (Hurch 2002b: 10, 3. oharra). Humboldt alde batera utzita, bertze idazle batzuen lana ere itzuli zuen Garatek, gaztelaniara beti ere: Joseph Augustin Chahoren *Voyage en Navarre* (Garate 1933b), George Borrow-en liburutik, euskarari buruzko kapitulua (Garate 1929) eta bertze. Banakako azterketa horiekin batera lan orokor bat ere utzi zigun: *Viajeros extranjeros en Vasconia*, 1942an kaleratua eta 1989an bigarren edizioa izan zuena (Garate 1989). “Atzerriko bidaiariak Euskal Herrian” gaiari dagokionez, Justo Garate figura saihestezina dugula erratea ez da inolaz ere gehiegi erratea.

Espainiako Gerla Zibilaren ondoren, 40, 50 eta 60ko hamarkadetan, bertze egile batzuk hurbildu ziren bidaia-liburuetara. Batek, Fausto Arocenak, ikuspegi orokorra eman zigun bere *El País Vasco visto desde fuera* liburuan (Arocena 1949). Gainerakoek eskualde edo hiri zehatz batean nahiago izan zuten kontzentratu. José M^a Iribarren idazle nafarrak, adibidez, Gasteizi eta Iruñeari buruzko liburu bana atera zituen (Iribarren 1950, 1957). Iruñekoan, Erdi Arotik aurrera garai guztietako bidaia-testuen antologia bat eskaini zigun, eta Gasteizekoan, berriz, 19. mendeko bidaiari batzuek aritu zen. Azken horren antzekoa da José Berruezoren liburua, Donostiari buruzkoa (Berruezo 1951). Liburu horiek guztiek bidaiariak kontaturiko anekdotak eta pasadizoak biltzen dituzte. Irakurleria zabal batendako eginak, liburu haietan testuen zatikirik libertigarrienak edota bitxienak itzultzen dituzte aipaturiko egileek, eta itzulpenak sarrera labur batez hornitu. Irakurtzeko atseginak izan arren, ikerlariari ez diote gauza handirik eskaintzen, hondarreko orrialdeetan bilduriko bibliografian izan ezik.

Testuinguru horretan, urte haietako libururik hobereena Jaime del Burgoren *La aventura hispánica de los viajeros extranjeros* izan zen ziur aski (Del Burgo 1963). Alde batetik, autoreak 19. mendeko bidaia-liburu askoren berri ematen du, eta, bertze aldetik, informazio hori zehatza da oro har; bertzalde, maiz liburu bakoitzak izan zituen itzulpenak seinalatzen ditu. Horretaz gainera, Del Burgok

bertze idazleengan hain ohikoak ziren anekdotak baztertzeko dituzte. Hala ere, Del Burgoren iritziak agerian gelditzen dira han eta hemen, ideia karlistetako bidaiariak goraiatzeko eta bidaiari liberalak kritikatzeko dituzte. Hitz bitan, liburu horretan, informazio ugari eta zehatzaren bila abiatzen denak ez du denbora galduko; bai galduko du, ordea, informazio horren analisiaren eske abiatzen denak. Zentzu horretan, Iribarrenek, Berruezok edo Arocenak eskaintzen zutena eskaintzen du Del Burgok ere, erudizioa alegia, baina kantitate askoz handiagoan.

70eko hamarkadaz geroztik lan gehiago eman dira argitara, maiz eskualdea oinarri hartu dutenak. Adibidez, Julio-César Santoyok Arabari buruzko bidaiarien irudipenak aztertu ditu (Santoyo 1972a), edo *British Legion* delakoaren egonaldia Gasteizen (Santoyo 1972b). Gipuzkoa izan du aztergai Beatriz Monrealek (1983), eta Tuteran izan da Esteban Ortaren gaia (Orta 1993). Ikuspegi partzial horiekin ondoan badugu ikuspegi orokor bat ere, Ángel Martínez Salazarrek aurkeztu diguna (Martínez Salazar 1995 eta 1996).

Bidaia-literaturaren inguruko liburua izan gabe, Europako eragina Euskal Herrian eta euskaldunen eragina Europan oso kontuan hartu du Juan M^a Sánchez-Prietok *El imaginario vasco* liburukote mamitsuan (Sánchez-Prieto 1993). Eskala apalago batean, Francisco J. Caspistegui bi artikulu idatzi ditu nafarren irudiaz (Caspistegui 1994, 1996) eta Coro Rubiok bertze bat plazaratu du, oraingo honetan *baskoen* irudiaz (Rubio 2000). Horiekin batera, bi aldizkariren ale berezi bana aipatu behar dira. Lehena Eusko Ikaskuntzako *RIE* Vek Wilhelm von Humboldti dedikatu ziona (*RIE* 1996); bigarrena, Bilboko *Bidebarrietaren* 2003ko alea, non aurreko urtean eginiko “Bidaia eta Bidaiariak Bilbon” kongresuaren emaitzak biltzen baitira (*Bidebarrieta* 2003). 2004an ere bidaiarien gaiaz arduratzen den liburu berri bat eskaini digu Rafael López Velasco medikuak, *Navarra shall be...* izenburupean. Bertan, garai guzietako Britainia Handiko zenbait bidaiariren berri ematen du egileak (López Velasco 2004).

Errepaso bibliografiko labur honek frogatzen du, nire ustez, liburu honetan aztertu nahi dudak nahiko pisu handia izan duela gure artean. Horrek ez du erran nahi dena egin dagoenik, edo egin dagoena ezin hobetu edo aberastu daitekeenik. Delineatu dudak tradizio honetan bi akats nagusi ikusten ditut nik. Alde batetik, alderdi anekdotikoan gelditzeko joera izan da. Humboldti

Gasteizko goxokiak gustatzen zitzaizkiolako edo Alexandre Dumas goseak egon eta arrautza frijituak eskatu zituenekoa (Iribarren 1950: 15-18 eta 62-64); Madame van Eyss-ek ez zuela hemengo sukaldaritza sobera gustuko eta “baratxuri gabe” izan zela euskaraz erraten ikasi zuen esaldi bakarra (Arocena 1949: 100-103): horiexek bezalako pasadizoek osatzen dute liburu anitzen mamia.

Bertze aldetik, liburu serioagoetan erudizioa izan da maiz abiapuntua eta helburua. Datuak bata bertzearekin gainean pilatu nahi izana da, hortaz, ikusten dudan bigarren akatsa. Eta analisi saiorik dagoenean, bidaiariak zertan asmatu eta zertan ez, kontatutakoan zer den egia eta zer gezurra bereizten ibili dira askotan gure ikerlariak.

Pasadizoak kontatzeko eta analisi sakonik gabeko erudizioa eskaintzeko joera izan dela erran dut: *oraindik badela* gainera nezake. Nire aldetik, uste dut datuak xerkatu eta biltzeaz gainera, ikerlariak gehiago eskatu behar diola bere buruari. Hain zuzen, lan-hipotesiak aurreratu eta arriskatu behar dituela, ez polemika pizteko asmoz, eztabaida sortzeko eta horren bitartez pentsatzera behartzeko xedez. Horregatik, aipaturiko bi akats horiek gainditzea gustatuko litzaidake liburu honetan. Baliteke anekdotaren bat ekartzea, irakurketa errazteko eta arintzeko asmoz, baina anekdotek ez dute lan honen funtsa osatu behar. Bertze aldetik, erudizio neurri bat ez da saihesten ahal, baina haratago joatea da nire xedea. Bidaiariak euskaldunen “benetako” irudia ez dut aztertzeko ez asmorik ez gogorik (uste baitut hori guk aldeztu aurretik “egiazko” irudia zein den erabaki eta gero egiten dugula): bidaiariak ze nolako irudi utzi diguten, zeintzuk diren haren iturriak eta zergatikoak, nola uztartzen ahal den bertze irudiekin, hauexek dira ikerlan honetan mintzagai izanen ditudan kontuak.

4. *Liburu honetan zer dagoen.*

Euskal Herria 19. mendeko bidaia-liburuetan. Baina, hain zuzen, zein bidaia-liburutan? Hiru herritako bidaia-liburuak kontuan hartzea erabaki dut: Frantziakoak, Ingalaterrakoak eta Alemaniakoak. Bertzelakoak badira: ingelesez idazten zuen bidaiari suediar baten liburu bat (Bramsen 1823), eta are konplikatuagoa, frantsesez idazten zuen poloniar jatorriko italiar baten liburu bat (Dembowski 1841). Horrek ez du erran nahi Portugal edo Italiatik bidaiaririk

ez dagoenik. Hizkuntzak bultzatu ninduen aukera horretara: nik ez dakit ez italieraz eta ez portugaleraz, nahiko ongi moldatzen naiz, ordea, ingelesez eta frantsesez (ez hain ongi alemaneraz). Uste nuen hiru herri horietako testuak elkartzeak eta konparatzeak emaitza interesgarriak sor zitzakeela, eta irakurlea uste horrekin bat etortzea espero dut.

Bidaiaria zer den erabakitzeko orduan zabal jokatu dut. Atzerritar batek idatzitako jada edozein liburu ikertu beharrekotzat jo dut. Irakurleak, beraz, denetarik kausituko du heldu diren kapituluetan, dagoeneko lehen lerroetan aditzera eman dudan legez. Aldi berean, oso ezagunak direnak (Victor Hugo, Wilhelm von Humboldt, Richard Ford, hiru aipatzeko) elkartu nahi izan ditut hain ezagunak ez direnekin edo erabat ezezagunak direnekin (Adolf Loning, edo Edward Bell Stephens, bi errateko).

Beti jatorrizko testuetara jotzen saiatu naiz. Datozen orrialdeetan, dagoeneko sarrera honetan egin dudan moduan, aipamen luzeak euskaraz eta, jarraian, parentesi karratuen artean, jatorrizko hizkuntzan emanen ditut. Horrela, irakurketa erraztu nahi izan dut (irakurleak ez du ingelesaz, frantsesaz edota alemanieraz jakin beharrik), aldi berean, nahi edota ahal duenak jatorrizko bertsioetara jo dezan utziz. Modu horretan, gainera, itzulpenen zuzentasuna (itzulpen guztiak, bertzerik erran ezean, nireak baitira) konproba dezake irakurleak.

Aipamen laburrak, testuetan kakotx artean txertatuak daudenak, soilik euskaraz emanen ditut, itzulpen zailtasunen bat dutenean edo zerbaitengatik oso aipamen garrantzitsua denean izan ezik. Azken kasu horietan, ohar batean balizko zailtasuna azaldu edo jatorrizko testua aldatuko dut. Jatorrizko testuetan egile bakoitzak erabilitako ortografia errespetatu dut beti. Horrek erran nahi dut batzuetan idazkera zaharrak ere agertzen direla, *tems* forma *temps* gaurko formaren ordez frantsesez, *Gränze* zaharra *Grenze*-ren tokian alemaneraz, edo, ingelesez *segars* eta ez gaurko *cigars*. Alemanerazko “s” bikoitzari dagokionez, testu batzuetan forma trinkoa erabiltzen da (β), bertze batzuetan forma zabaldua (*ss*); agertzen den bezala kopiatu dut nik eta, hortaz, jatorrizko testuen arabera *dass* edo *daß*, *gross* edo *groß*, idatziko dut.

Bidaiarien kontura, oso galdera zuzen bat egin liteke: zergatik ez bidaiari espainiarrak? Hutsune hori justifikatze aldera, bi arrazoi emango nituzke. Lehenik eta behin, uste nuen Frantzia, Ingalaterra eta, batez ere, Alemaniako

bidaiariak ezezagunagoak, arrotzagoak zirela Espainiakoak baino; hau da, bidaiari horiek ikertuz “lur berriak” deskubritzeko aukera handiagoak nituela, espainiarrak ikertuz baino. Bigarrenik, gauzak horrela, aztertu beharreko corpusa (jada arras handia zena) guztiz kontrolaezin bihurtuko zuen laugarren herri baten bidaia-literatura kontuan hartzeak.

19. mendearen aukerari dagokionez, ez dut uste justifikazio luzerik behar duenik. Nazioa eta nazioarekin zer ikusirik duen ia edozer aztertzeko mende hori da egokiena, zalantzarik gabe. 20. mendean ere bada zer miratu, baina ez dezagun ahaztu liburu hau urte bateko ikerketa batetik sortua dela. Bi mendeak hartu izan banitu, erabat ezinezkoa izanen zitzaidakeen lan sendo bat prestatzea. 19. mendera mugatuta ere, bidaia-liburuen zerrenda bat egin nahi izatera, hemen ez dauden liburuen kopurua hemen daudenena baino anitzez handiagoa izanen litzateke.

Tituluaren hirugarren zatia gelditzen zaigu: Euskal Herria. Hori da liburu honen benetako objektua, ikergaia. Horrek dakartzan zailtasunez aritu naiz aurreko epigrafeetan. Bidaia-liburuek, modu batean edo bertzean, euskaldunen herria Europan paratzen dute, haren existentziaren berri emanez. Kontua ez da kontatzen dituzten gauzekin bat egitea, ezta margoturiko irudiarekin ados egotea ere: azken batean, sortzen den irudia 19. mendeko irudia da (nola liteke bertzenaz?), bertze garai batekoa alegia. Kontua da prozesuan bertan arreta jartzea. Euskal Herria asmatze prozesu horretan bidaiariak alde bat bertzerik ez dute osatzen. Alde hori da ni aztertzeri noana. Baina badira alde gehiago ere: Euskal Herrian bertan sortzen diren diskurtsoak (historikoak, politikoak), atzerrian euskal kontuei buruz sortzen direnak (historia, antropologia, linguistika) eta bien arteko elkarrekintza... Hortaz, gauza gehiago ere badirela ahantzi gabe, momentuz has gaitezen gure gaia jorratzen.

WILHELM VON HUMBOLDT.

1. *Lagunetan lehena.*

19. mendean Euskal Herrira etorri ziren batzuk nahiko ezagunak izan ziren beren garaian, eta ez da falta oso ospetsuak izatera iritsi zenik ere. Agian, Richard Ford da horren adibide hoberenatariko bat, 1840ko hamarraldiaz geroztik mila orri baino gehiagoko bere gida mamitsuak arrakasta handia lortu baitzuen Ingalaterran, liburu kanoniko bihurtzeraino Espainiako gauzei dagokienez⁵. Bertze batzuen ospea, apalagoa eta mugatuagoa izanagatik, ez zen gutxiesteko modukoa izan. Errate baterako, Charles Frederick Henningsen-en 1836ko liburua, zeina berehala itzulia baitzen hainbat hizkuntzatara, Europa osoan zehar irakurri zuten euskal probintzia urrun menditsu haietako gerla karlistaren berrien gose ziren guztiek; eta ondoren etorri ziren idazle anitzek Henningsen-en lana aipatu zuten (eta batzuetan plagiatu ere bai). Bertze izenak datoz burura: George Borrow, Eugène Poitou... Dena den, arrakasta handia edo txikia izan, bidaia-liburu gehienak, guztiak ez bazen, irakurleen jakin-mina asebetetzeko idazten ziren, hau da, bat-bateko behar zehatz bati erantzun nahian izan prestatzen eta plazaratzen ziren. Izan ere, arestian aipatu dudak plagiatzeko kontu hura ildo honetatik bertatik zetorren: bertze herri batean harrera ona lortu zuen testu bat itzuli eta moldatu egiten zen, plagio-egilearen herrian ere publikoaren arreta bereganatuko zuelakoan. Baina jakin-min hori asebeteta, liburuok, maiz, galdu egiten zuten interesa. Ondorioz, entzute handiko edo txikikoak izan, bidaiari horien izen gehienak ezezagunak dira gaur egun, ahaztuak izan dira eta eskuarki ikerlariok gara horien berri dugun bakarrak. Hori izan da bidaiari gehienek patua; ez, ordea, guztiena.

Batzuen famak badirau gaur egun ere, beharbada Euskal Herrira egindako bidaia ez delako fama horren oinarri bakarra. Nire ustez, 19. mendeari begira bi dira salbuespen nabarmenenak: Wilhelm von Humboldt eta Victor Hugo. Biak gure

⁵ Postu kanoniko hori, beti ere 19. mendeari begira, George Borrow-rekin batera zeukan Richard Fordek, eta, neurri batean, dauka gaur egun ere. Adibidez, Tom Burns-en analisia bi egile horietara mugatzen da *Hispanomanía* izeneko liburuan (Burns 2000).

bisitaririk garrantzizkoenatarikoak izanik, Euskal Herrira begiratzeko oso modu ezberdinak, kasik kontraerriak, izan zituzten. Prusiarrak urte luzez, jada bizitza osoaz, jardun zuen euskal herri eta hizkuntzari buruzko gogoetak egiten, euskaldunak monografia handi batean zientifikoki deskribatu nahian. Frantsesaren euskal idazkia, ordea, bidaia labur baten emaitza izan zen, egunkari pribatu baten forman prestatua, eta bertan, zientziatik urrun, subjektibotasuna da nagusi. Humboldttek orri ugari bete zituen Euskal Herriaren kontura; Hugok gutxi batzuk baino ez. Baina, bai batarenak, bai bertzearenak, funts handikoak eta sakonak. Gehiago luza ninteke Humboldtten eta Hugoren paralelismoez eta diferentziez, baina geroago astia izanen dugu Hugoren testura itzultzeko.

Bi idazleak, erran bezala, munta handikoak izanik, Wilhelm von Humboldt dugu denboran lehena. Izan ere, horretan datza, aitzindaria izatean alegia, haren garrantziaren zati bat, Humboldt izan baitzen euskaldunenganako interesa hartu zuen lehen jakintsu europarra. Halaxe adierazi zuen Fausto Arocenak, “lagunetan lehena” deitu ziolarik (Arocena 1949: 72-80), eta halaxe onartu du oraindik orain Bernhard Hurch-ek, Humboldtten argitaratu gabeko hainbat lan biltzen dituen liburu baten sarreran: “azkenik, euskaldunentzat Humboldt da euskal herria, kultura eta historia Europako kontzientzian sarrarazten saiatu den lehen europar handia” (Hurch 2002b: 10).

Humboldt bitan egon zen Euskal Herrian. 1799. urtean etorri zen lehendabiziko aldiz. Edo, hobeki erranda, hemendik pasatu zen bere Espainiako bidaiaren ibilbidean. Schiller eta Goethe adiskideen antzera, Italiara joan nahiago izan balu ere, Napoleon penintsula hartan egiten ari zen gerla zela eta, Espainiarantz abiatzera deliberatu zuen Humboldttek (Tauber 1998: 194-195). Bere familiak lagunduta, 1799ko irailean Parisetik (non 1797az geroztik bizi baitzen) atera eta Baionarako bidea hartu zuen. Lehen bidaia hartan (1800ko apirila arte iraun zuena) aste pare bat baino ez zuen Euskal Herrian pasatu, Baionatik Gasteizera Madrilgo bidean. Bigarren bidaia, aldiz, 1801eko udaberrian egin zuena, espresuki euskararen eta euskaldunen inguruko informazioa biltzeko egin zuen. Interes zientifikoek ekarrita etorri zela egia den arren, Humboldttek euskal lurretan izan zuen esperientzia zabalagoa izan zen. Honelaxe adierazi zuen Humboldttek berak *Die Vasken* izeneko lan garrantzitsuaren sarreran:

“Zorionez beteriko bi hilabete eman nituen bai Espainiako Euskal Herrian, bai Frantziakoan; eta Bizkaiko Golkoko bazterretan pasaturiko udaberri hura nire bizitzako ederrenetarikotzat joko dut beti” (Humboldt 1920: 15).

[“[I]ch verlebte zwei glückliche Monate theils im Spanischen, theils im Französischen Vaskenlande; und immer werde ich diesen an den Ufern des Biscayischen Busens zugebrachten Frühling für einen der schönsten meines Lebens ansehen” (Humboldt 1920: 15)].

Adierazpen hori irakurrita, zilegi da pentsatzea, nik uste, hemen bizitakoak halako eragin bat izan zuela euskal gauzekiko bere interes iraunkorrean. Izan ere, eskerrak emateko modu gisa ikusten zituen egin beharreko lanak. Utz diezaiogun hitza, berriz ere, Humboldti berari:

“Ez dut uste gai izanen naizenik euskal nazioaren deskripzio bat zirriborrazteko, nire ariman betiko gelditutako irudiarekin konpara daitekeenik. Hein txiki batean bakarrik lortuko banu, hartu behar izan ditudan ahalegin eta lan guztiak, batez ere hizkuntza ikastekoak, ederki ordaindutat emango nituzke, zeren horrek erran nahiko bailuke lortua nuela monumentu bat ezartzea, zeinak, euskaldunek merezi duten bezain duina izan gabe, bederen islatuko lukeen nire baitan sorrarazi dituzten begirunea eta amodioa” (Humboldt 1920: 17)”.

[“Ich darf mir nicht schmeicheln, dass es mir gelingen werde, eine Schilderung der Vaskischen Nation zu entwerfen, welche dem Bilde gliche, das sich mir auf ewig von ihr in die Seele geprägt hat. Wäre dies aber auch nur einigermaßen der Fall, so würde ich mich für jede Mühseligkeit, deren ich, vorzüglich bei dem Studium ihrer Sprache, viele selber durchkämpft habe, für mehr als doppelt belohnt halten, weil es mir alsdann zugleich gelungen wäre, ihr ein Denkmal zu setzen, das, wenn gleich wenig ihrer würdig, doch den Gesinnungen der Achtung und Liebe entspräche, die sie mir in so hohem Grade eingeflößt hat!” (Humboldt 1920: 17)].

Bi aipamen horiekin adierazi nahi dut bidaiari prusiarrak batu egin zituela interes zientifikoa eta hurbiltasun humanoa. Biek bultzatu zuten haren ikerketak sakontzera eta, arraroago dena, bata (hau da, hurbiltasuna) ez zitzaion bertzeari (zientziari, alegia) kaltegarri gertatu. Adibide bat ematearren, Humboldtek Pablo Pedro Astarloarekin, Durangoko apaiz eta euskalariarekin, izan zuen harremana ekartzen ahal da gogora (Uriarte Astarloa 2002: batez ere 183-209; Altzibar 1996). Bere idazkietan Astarloarendako hitz onak bertzerik ez izan arren (“nire

bidaiatik lortutako fruitu bakarra harengandik ikasi nuena izan balitz, pozik sari askitzat joko nukeen”, zioen *Die Vasken* liburuan – Humboldt 1920: 16), haren metodo etimologikoari dagokionez, gero eta jarrera kritikoagoa erakutsi zuen denbora pasa ahala (Hurch, Kerejeta & Gómez 2002: 21). Argitaraturik gabeko euskal gramatika batean honako hau dio Humboldttek durangarraz:

“Gehiegikerietan erori gabe erran daiteke, euskal hizkuntzari buruz idatzi dutenen artean, Astarloa dela euskarari benetan oinarritzko ikerketa bat dedikatu, haren berezko egitura organikoa agerian uzteko saioa egin eta aurrerapauso esanguratsuak eman dituen lehena” (aipatua in El Zarka & Vollmann 2000: 4).

[“Ohne Uebertreibung kann man behaupten, daß Astarloa unter allen, die über die Vaskische Sprache geschrieben haben, der erste ist, der ihr wirklich ein gründliches Studium gewidmet, ihren eigenthümlichen organischen Bau aufzufinden gesucht, u. hierin bedeutende Fortschritte gemacht hat” (aipatua in El Zarka & Vollmann 2000: 4)].

Mithridates-erako prestaturiko lanean ere Astarloa goraiatzan du (Humboldt 1817: 64). 1821eko *Prüfung* delakoan, berriz, metodo etimologikoak sor ditzakeen gehiegikeriez gaztigatzen digu behin eta berriz, eta horren adibide Astarloaren (eta Juan Bautista Erro haren jarraitzailearen) izena aipatzen ditu (Humboldt 1841: 4-5, 10-11, bertzeak bertze), baina, beti ere, Durangoko adiskidearen lanaren balioa erabat ukatu gabe.

Jasotako harrera ona eskertzeko, monumentu handi bat eraiki nahi zien Humboldttek euskaldunei. Monumentu hori, hots euskal bizitzaren alderdi guztiak bilduko zituen monografia handia, prestatu nahian ibili zen bizitza osoaz. Testu labur batean monografia horren xehetasunak zehaztu zituen: zenbat zati izan behar zuen, zein alderdi ukituko zuen eta zein izanen zen haren tokia eta garrantzia historia unibertsalaren ikuspegitik (Humboldt 1904). Horretaz guztiaz geroago aritu naiz. Orain ohartarazi nahi nuke ahalegin erraldoi horren ondorioz, idazlan ugari ditugula: laburrak batzuk eta luzeak bestetzuk; geroago egin beharreko plan bat adierazten dutenak eta plan hori betetzen saiatzen direnak; gutxi batzuk, bere bizitzan argitaratuak eta, gehienak, argitaratu gabeak. Azken bereizketa hau da orain interesatzen zaiguna, harrigarria baita zein testu gutxi eman zuen argitara Humboldttek, batez ere zein testu anitz idatzi zuen kontuan hartuz gero. Bizirik zelarik, lau idazki baino ez zuen kaleratu (El Zarka

& Vollmann 2000). Lehena, orri gutxikoa, bigarren bidaiako urtean bertan plazaratu zuen, sarreran komentatu dugun liburu batean. Johann Christian Fischerren bidaia-liburua frantsesera itzuli zuten 1801ean. Edizio horretarako, Fischerrek berak eskatuta, Humboldték “euskal hizkuntzari buruzko ohar bat” prestatu zuen. Hizkuntzaz aritu zen, hortaz, lehen agerpen horretan.

Bigarren argitalpena, hamaika urte pasa eta gero etorriko zen: 1812an, Friedrich Schlegel-en *Deutsches Museum* izeneko aldizkarian publikaturiko artikulua bat, Euskal Herriari eta haren biztanleei buruzko lan monografiko bat iragartzen zuena (Humboldt 1904)⁶. Bertan, egileak zehazten zuen, alde batetik, historia unibertsala birpentsatzeko zertan zetzan herri txikien historiaren garrantzia eta, bertze aldetik, Euskal Herriari begira zeintzuk ziren landu nahi zituen gaiak (hiru, hain zuzen ere, historia, ohiturak eta hizkuntza).

Hirugarrena ez zen 1817 arte agertu, Humboldték 1811rako idatzia zuen arren (sarrera behinik behin 1811ko udan sinatua dago). Bi urte lehenago, 1809an, *Mithridates* izeneko hizkuntza-entziklopedian, Johann Christoph Adelung-ek 2. tomerako euskarari zegokion artikulua prestatu zuen, “Cantabrisch oder Baskisch” izenburupean (Adelung 1809). Adelung hil eta gero, Johann Severin Vater-ek hartu zuen entziklopediaren ardura eta hark Humboldti eskatu zion euskarari buruzko artikulua zabalago bat idatz zezan. Hainbat arrazoi tarteko, Humboldték ezin izan zuen Vater-en eskaera bete eta, lan zeharo berri bat moldatu beharrean, Adelungen artikuluari *Berichtigungen und Zusätze*, zuzenketak eta adizioak alegia, egin zizkion; 1817an agertu ziren *Mithridates*-en 4. liburukian, baita argitalpen independente eran ere (Humboldt 1817).

Azken lana, lauretan luzeena eta ezberrik gabe ospetsuena, 1821ean atera zen kalera: *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, hau da, *Hispaniako lehen biztanleen gaineko ikerketen azterketa, euskal hizkuntzaren bitartez*. Bertan, euskaldunak Iberiar Penintsulako antzinako biztanleak zirela frogatzen saiatu zen euskararen bitartez (Humboldt 1841). Tesia ez zen berria, baina Humboldték, bere azterketarekin, basko-iberismo deituriko teoriaren oinarri zientifikoak paratu zituen, eta, bidenabar, 20. mendera arte ailegatu zen eztabaida bat piztu zuen.

⁶ Schlegel-en aldizkarian ez ezik, urte horretan bertan bertze aldizkari alemaniar batean ere argitaratu zuen artikulua, *Königsberger Archiv für Philosophie, Theologie, Sprachkunde und Geschichte* izenekoan hain zuzen (El Zarka & Vollmann 2000: 11).

Zerrendaturiko lau lanetatik bakar batek ere ez du zerikusirik bidaia-literaturarekin. Bi (Fischerren liburukoa eta *Mithridates*-en agerturikoa) hizkuntzalaritza arloan kokatu behar dira. Hirugarrena, 1821eko *Prüfung* delakoa, lan akademikoa da, gai lehor samar batez arduratzen dena. Hemen darabildan ikuspuntutik 1812ko iragarpena da interesgarriena, Humboldtten euskaldunenganako interesa esplikatzeko eta testuinguruan kokatzen laguntzen duelako.

19. mendeari dagokionez, ikerlari prusiarra 1835ean hil zenez geroztik bertze lan bat gaineratzen ahal zaio argitaraturiko lauri. 1840ko hamarkadan, Wilhelm von Humboldtten obra guztien lehen bilduma prestatu zuen Alexander haren anaiak, *Gesammelte Werke* izenburupean. Bertan, lehen jada adierazi dudanez, 3. liburukian bidaia-testu motz bat argitara eman zuen, non lehen bidaiaren euskal zatiaren narrazioa eskaintzen baitzen (Humboldt 1843). “*Reiseskizzen aus Biscaya*”, “Bizkaiko bidaia baten zirriborroak”, horixe izan zen Alexanderrek paratu zion izenburua, aditzera emanez, edo eman nahian bederen, testu txiki hori ez zela behar bezain landua eta osotua, Wilhelmek ez zizkiola azken ukituak eman. 1799-1800eko bidaia kontatu arren, bigarren bidaia egin eta geroko testua da.

Euskal gaiei begira, horiexek dira 19. mendean plazaratuak izan ziren idazlanak, lau bizirik zegoen artean eta hondarrekoa hil ondoren. Bostetarik bakarra da bidaia-literatura arloan kokatzekoa.

20. mendean, Albert Leitzmann-ek bi bidaietako egunkariak argitaratu zituen estreinako aldiz, 1918an, berak prestatutako Humboldtten idazlan guztien bildumaren 15. liburukian; eta *Die Vasken* izeneko lan handiak ez zuen 1920 arte argia ikusi, 13. liburukian hain zuzen ere⁷. Bidaia-narrazio hau, haatik, 1804rako idatzita zeukan Humboldttek (“euskal bidaia prest dago”, erran zion emazteari 1804ko ekainaren 18ko eskutitz batean – aipatua in El Zarka 2002: 7), baina azkenean ez zuen argitara eman. Eskuizkribua kasualitatez edo aurkitu zuen Albert Leitzmannek berak Alemaniako Günthersdorf gazteluan, Humboldtten obren edizioa prestatzen ari zelarik. Gaur egun galdua dago eskuizkribua (El Zarka 2002: 2).

⁷ Sor litekeen nahasmena saihesteko: 15. liburukia 1918an izan zen argitaratua, eta 13.a, 1920an; 15.a 13.a baino lehen, alegia.

Horrekin guztiarekin azpimarratu nahi dut halako paradoxa bat sortzen dela orri hauetan Humboldtten lanaz aritzean. Alde batetik, baztertezina dela onartu behar da, baina, bertze aldetik, egia da bere bidaia-testu garrantzitsuenak ezezagunak izan zirela 19. mendean, hemen aztergai dudan mendean alegia. Hortaz, *Die Vasken* lanaren inguruko komentarioak eta analisiak egitea neurri batean ariketa anakronikoa da, inork ez baitzuen 1920 arte irakurtzeko aukerarik izan eta, ondorioz, ezin izan baitzuen inolako eraginik eduki geroago etorritako bidaiariengan. Horrela, datozen orriotan Humboldttek egindako ekarpena aztertuko eta berak marraturiko irudia ikertuko dudan arren, argi utzi behar da irudi hori ez zela 19. mendean zabaldu, eta bidaia-literaturaren ikuspuntutik mamitsuenak diren idazlanak ez zeudela eskuragarri 20. mendera arte, hain zuzen ere Albert Leitzmannek editaturiko *Gesammelte Schriften* izeneko bilduman agertu arte. 13. liburukian plazaraturiko *Die Vasken* horretan bere bigarren bidaiaren berri eskaintzen digu Humboldttek, eta aitzakia horrekin euskaldunen deskripzio osoa egiten saiatzen da.

Humboldttek material berberak behin baino gehiagotan erabiltzeko joera zuen, ñabardurak gehituz ideiak ondu ahala. Errate baterako, euskal lurraldeak izendatzeko izen baten eskasiaren inguruko pasartea, sarreran *Die Vasken* liburutik hona aldatu dudana, *Mithridates*-erako egindako artikuluan ere errepikatzen da, aldaketa batzuk gorabehera (Humboldt 1817: 8). Gauza bera gertatzen da bidaia-testuetan. *Reiseskizzen* izenekoan lehen bidaia kontatzen da, *Die Vasken* delakoan bigarrena, 1801ean egindakoa. Bietan, ordea, pasarte batzuk oso antzekoak dira, adibidez Donibane Lohitzuneko itsasoak eragindako inpresioa (konpara Humboldt 1843: 214-216 eta 1920: 29-31), edo hitzez hitz errepikatzen dira, errate baterako Gasteizko plazaren deskripzioa (konpara, paragrafoen ordena gorabehera, Humboldt 1843: 236-237 eta Humboldt 1920: 116-117). Errepikaketa horiek nabarmentzean, ez dezagun ahaztu lehen bidaia-testua zirriborro bat baino ez zela eta Humboldtten xedea ez zela bidaia bakoitzaren narrazio bana egitea, euskaldunen deskripzio ahalik eta zehatzena eskaintzea baizik, erran nahi baita bidaia-liburuaren forma estakuru bat zela bertze helburu garrantzitsuago bat erdiesteko. Helburu horren originaltasuna hobeki estimatzen hasteko komenigarria izanen da, ziur aski, Humboldtten garaikide batzuen ideiak eta irudipenak ezagutzea, axaletik bada ere.

2. *Wilhelm von Humboldt testuinguruan.*

Jean François Peyron idazle frantziarrarendako, Ebro ibaian Gaztelaren eta Euskal Herriaren arteko muga egoteaz gainera⁸, “Bizkaian gozaten den askatasun mota hori” ere hasten zen. Bidaiari haren iritziz, Foruak ziren euskal lurraldeetako ezaugarri deigarriena; hizkuntza, ordea, ez zuen aipatu ere egin. Iritzi horretan bat egiten zuen bertze bidaiari batzuekin. John Adams Estatu Batuetako bigarren presidentea 1799an egin zuen bidaian ere Foruak izan ziren euskaldunenganako interesa piztu ziotenak (Agirreazkuenaga 2003). Ur sakonagoetan murgildu gabe, irudipena dut euskal instituzio politikoak zirela bidaiariei atentzia ematen zietenak, eta atzerritar anitzen begietan euskaldunak zerbait izatekotan, Espainiako absolutismoaren itsasoan askatasun irla bat ziren. Errepublika monarkia absolutuaren barruan: “politikaren bitxikeria horietako bat da ikustea hain errepublikarra den herri txiki hau halako monarkia bati lotua”, Fischerrek (1801: 106) laburbildu zuen bezala. Irudi honen aldamenean, bertze ezaugarri batzuk (hizkuntza, ohiturak...) bigarren mailako kontuak ziren.

Ikus dezagun bertze adibide bat: John Talbot Dillon irlandarraren *Travels through Spain* liburuan bazen tokirik “Biscayners” direlakoei buruz xehetasun batzuk emateko⁹. Dena den, askatasuna, kaparetasun unibertuala eta antzeko gaiak dira bertan ere nagusi. Harrigarriena, beharbada, irlandarrekin egiten duen konparazio luze samarra: “Euskaldunen ohiturak eta antzinako irlandarrenak hain dira antzekoak askotan, ezen irlandarrak euskaldunengandik datozela pentsatzen ahal baita” (Dillon 1781: 178). Biei gustatzen zaizkie erromesaldiak eta ekitaldi horietan Bizkaiko gizonak (“the *Guizones* of Biscay”, dio Dillonek) eta Irlandako *Boulamkeighs* direlakoak berdin portatzen dira: probokaziorik txikiena dela medio, elkar jipoitzen dute, baina maltzurkeria edo arrangurarik gabe eta, beti ere, labanarik erabili gabe. Bi herrien arteko antzekotasun gehiago ere badira Dillonen arabera: Bizkaiko txakolinak eta Irlandako *sheheen* delakoak berdin-berdin erotzen dituzte euskaldunak eta irlandarrak. Horiek eta bertze hainbat inguruabarrek sinesgarritasuna ematen zioten, Dillonen ustez, biak, jatorrian, herri bakarra zirelako ideari (Dillon 1781: 178).

⁸ Pentsa daitekeenez, Peyronek “la Biscaye” esamoldea erabiltzen du, eta horren barne Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa sartzen ditu (Peyron 1782: II, 346).

⁹ Berriz ere, iduri du Dillon-en *Biscay*-k Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia baino ez duela bere baitan hartzen.

Fischerrek berak ere Foruen eta euskararen inguruan zenbait zertzelada ematen dizkigu. Euskara da Bizkaian egiten den hizkuntza nagusia, dio 15. gutunean, Getarian ikusitakoaz jarduten duen horretan hain zuzen. Izan ere, horren ondorioz, solas gutxi egin ahal izan zuen alemaniarrek ostatuko jabearekin. Beharrik funtsezko informazioen bat eman ziezaiokeen:

“Bizkaian, ezaguna denez, mantendu egin da antzinako kantabriar hizkuntza, eta gaztelaniaz ez da batere hitz egiten, edo oso gaizki. Azken hori zen bai ostalariaren bai bisitariaren kasua, eta bakarrik neke handiz ulertzen ahal genion elkarri. Hala ere, ‘*Es Vm Christiano?*’, alegia katolikoa ote nintzen bere lehen galderari baiezkoa eman nionean, iduri zuen arrunt kontent gelditu zela” (Fischer 1801: 71).

[“In Biscaya hat sich, wie bekannt, die alte cantabrische Sprache erhalten, und man spricht entweder gar nicht, oder sehr unvollkommen Castilianisch. Wirthinn und Gast befanden sich in dem letztern Falle, und wir konnten uns nur mit Mühe verständlich machen. Als ich indessen ihre erste Frage ‘*Es Vm Christiano?*’ d.i. katholisch, bejahet hatte, schien sie vollkommen zufrieden zu seyn” (Fischer 1801: 71)].

24. gutunean errepikatzen du euskara “bizkaitar arruntaren hizkuntza bakarra” dela, gaineratzeko, dena den, bizitza modernorako kontzeptu berri guztiak (“alle neuen Begriffe des bürgerlichen Lebens”) frantsesetik edota espainoletik hartu behar izan dituztela (Fischer 1801: 127). Horrelako komentario soziolinguistikoak alde batera utzita, hizkuntzaren beraren deskripzio moduko bat egiten ere saiatzen da. Euskarak, dio bidaiari alemaniarrek, ez du antzekotasun txikiena ere ez hotsetan, ez hitzetan eta ez syntaxian ezein hizkuntza ezagunekin:

“Badirudi kontsonante asko dituela, eta azentu kantari baina gogor samar batez mintzaten da. Erraten da esapide poetikoz aberatsa dela eta malgutasun handia daukala; baina jende kulturadunak kexatzen dira adierazpenaren zehaztugabetasun eta aniztasunaz” (Fischer 1801: 128).

[“Sie scheint viel Consonanten zu haben, und wird mit einem singengen etwas harten Accent gesprochen. Man behauptet, sie sey reich an dichterischen Ausdrücken, und habe viel Biegsamkeit; aber gebildete Leute klagen über die Umschwebungen und die Weitläufigkeit des Ausdrucks” (Fischer 1801: 128)].

“Autoreak ez du bidaia-narrazio bat baino eskaini nahi; honen asmo nagusia bizitza irudikatzea zen; eta haren sari bakarra, Bourgoing-en jarraipena izatea” (Fischer 1801: V). Bere liburua idaztean, Fischerren xedea bertze egile batena osatzea zen, hain zuzen ere Jean François Bourgoing-en *Nouveau voyage en Espagne*, 1789an plazaraturikoa. Bertan ere egileak behartua ikusi zuen bere burua keinuak erabiltzera, euskaldunekin komunikatu ahal izateko, hauek ez baitakite gaztelaniaz. Oraingo honetan Ordizian gertatu zen pasadizoa:

“Luzaro oroituko naiz Ordizian gertatu zitzaigunaz. Goiz iritsita eta eguraldi ederra izanik, noragabe genbiltzan herrixka haren inguruetan; landareen aniztasuna begiratzea atsegin zitzaigun. Baratzeetan sakabanaturiko nekazari talde batzuek gure arreta erakarri zuten: guk beraiena piztu genuen. Istant batez, kuriositateak elkarrengana hurbildu gintuen. Nire bidaia-kideak gaztelaniaz perfektu hitz egiten zuen; bazekien, nik nekien bezala, mintzaira horrek ez duela zerikusirik euskaldunenarekin; baina ezin genuen imajinatu hain aspalditik Espainiaren mende jarritako probintzia batean posible zela batere ez konprenitzea Erregearen hizkuntza: hizkuntza primitiboaz baliatu behar izan genuen” (Bourgoing 1789: I, 8-9)”.

[“Je me rappellerai long-tems ce qui nous arriva à Villafranca. Arrivés de bonne heure & par un beau tems, nous errions dans les environs de ce bourg; nous nous plaisions à observer la variété de sa culture. Plusieurs groupes de paysans éparpillés dans des vergers, fixèrent notre attention: nous éveillâmes la leur. Un instant la curiosité mutuelle nous rapprocha. Mon compagnon de voyage parloit parfaitement Espagnol; il savoit, comme moi, que cette langue n'a aucun rapport avec celle des Biscayens; mais nous ne pouvions nous figurer que dans une province depuis si long-tems soumise à l'Espagne, on ignorât absolument le langage du Souverain: il fallut donc recourir au langage primitif” (Bourgoing 1789: I, 8-9)].

Bourgoing-ek eta bere lagunak keinuen hizkuntza primitiboari esker lortu zuten nahi zutena. Geroago Fischerrek erranen duen bezala, euskaldunen hizkuntzak ez duela zerikusirik espainolarekin dio hemen frantziarrak, euskarari buruzko azalpen sakonagoetan sartu gabe. Baina Bourgoing-ek, Fischerrek ez bezala, euskaldunen gaineko ohar batzuk egiten ditu. Sistema forala aipatzen du noski, baina baita euskaldunen *ezberdintasuna* ere:

“Zein nabarmena den herri honen itxuraren eta ondo-ondoan dagoenaren arteko aldea. Nire gogotik urrun dago gaztelarrez trufatu nahi izatea; haien bertuteak prezatzen ditut, baina isilak eta hitsak dira: haien aurpegi betilun eta belztuetan pobretasun eta unaduraren irudia

daramate. Bizkaian, bertze kolore bat dago, bertze fisionomia bat, bertze izaera bat: libreak, alaiak eta abegikorrak, beraien zoriona sentitu ez ezik, zorion horren lekukoak direnekin partekatu nahi dutela dirudi” (Bourgoing 1789: I, 8).

[“Quelle différence de l’aspect de ce pays à celui du pays qui l’avoisine. Je suis loin de vouloir jeter un ridicule sur les Castellans, dont j’estime les vertus; mais ils sont silencieux et tristes: ils portent sur leurs visages austeres & rembrunis, l’image de l’ennui & de la pauvreté. En Biscaye, c’est un autre teint, une autre physionomie, un autre caractere: libres, gais & hospitaliers, ils paroissent sentir leur bonheur & vouloir le faire partager à ceux qui en sont témoins” (Bourgoing 1789: I, 8)].

Erran bezala, arestian aipaturiko egileendako, foruek dirudite euskaldunen bereizgarri nagusia. Bourgoing-ek, baina, sistema forala euskal ezberdintasun orokorraren barnean kokatzen du: “Bizkaitar hauek, kanpoko itxuraz eta hizkuntzaz gaztelarrengandik hain ezberdinak direnak, neurri berean bereizten dira haien herriko konstituzioarengatik ere” (Bourgoing 1789: I, 10). Eta, gainerako bidaiarien antzera, euskal askatasunaren laudorioa egiten du.

18. mendearen bukaerako bidaiariek, sistema politikoa gai interesgarrientzat jo arren, bertze gai batzuk ere ukitzen dituzte, neurri batean behintzat. Erran nahi da begirada berri bat agertzen ari zela emeki-emeki. Izan ere, hona ekarri ditudan autoreengan Humboldttek jorratuko dituen gaiak kausitzen ditugu jada, baina ñabardura garrantzitsu batzuk azpimarratu behar ditugu. Adibidez, atal honetan aipaturiko guztiok, bakoitzak bere hizkuntzan, *Biscaye* edo *Biscay* edo *Biscaya* dute mintzagai, nik “Bizkaia” bezala euskaratu dudana. Eta guztiondako Bizkai horretan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia (zentzu estuan) baizik ez dira sartzen. Horrek ez du erran nahi bertze tokietan euskaldunik ikusi ez zutenik: Fischerrek, errate baterako, Baionako “Basquaises” direlakoari buruz jarduten du (Fischer 1801: 51-52). Humboldttek, alderantziz, euskaldunak nor diren determinatzen du lehendabizi.

Euskarak ere bidaiari batzuen arreta erakartzen du. Nabarmentzekoa da, horratik, eskainitako informazioa oso orokorra dela (euskarak ez duela antzekotasunik espainolarekin, Bourgoing-en kasuan), edo bigarren eskukoa (euskara hizkuntza guztietatik bereizten dela baieztatzeko, Hervás eta Larramendiren autoritatean hartzen du babesa Fischerrek, eta euskara deskribatzeko “badirudi” eta “erraten da” bezalako esapideak baliatzen ditu). Humboldtten jarrera justu kontrakoa

izanen da: euskara serio eta sakon ikasten eta ikertzen saiatuko da. Eta, azkenik, xehetasun beharbada pisuzkoena, ikuspuntu aldaketa benetan agerian uzten duena. Peyron, Dillon, Bourgoing eta Fischerrendako Euskal Herria atal bat baizik ez zen bidaia handiago batean, kapitulu bat baino ez Espainiako ibilbidea kontatzen zuen liburu batean. Humboldték euskal “gauzetan” kontzentratuko ditu bere indarrak.

Erran daiteke 18. mendean bazegoela euskaldunenganako interesa, eta interes horren arabera Humboldték landuko zituen gaiak bertze egileek landuak edo, gutienez, ukituak zituztela. Are gehiago, litekeena da egile horietako batzuek eragina eduki izana Humboldtengan. Adibidez, gauza segurua da prusiarrak Fischerren liburua ezagutzen zuela, erran bezala eranskin bat idatzi behar baitzuen frantses itzulpenerako. Humboldték euskal probintziek espainiar Monarkiaren barruko estatu ia independente osatzen dutela dioenean, bat egiten du Fischerrek adierazitakoarekin (Fischer 1801: 106). Orobat, Fischerren bitartez Bourgoing-en liburua ere irakurria zuela pentsatzea ez zait gehiegikeria iduritzen. Ordiziako pasadizoa kontatutakoan, euskal abegikortasun eta eskuzabaltasunaren inguruko oharrek Humboldtén ohar askoren oso antzekoak dira. Bourgoing-en pasarte hori horrela amaitzen da:

“Gure esker oneko erakusgarri batzuk utzi genizkion; haien harrera desinteresatua izan zela adieraziz hartu zituzten. Iruditzen zitzaigun Bougainville jaunak eta Cook-ek maitatzen irakatsi dizkiguten irltako biztanle maitagarriak uzten ari ginela, eta Baionatik hogeitaseko legoatara ere ez geunden” (Bourgoing 1789: I, 10).

[“Nous leur laissâmes quelques marques de notre reconnaissance; ils les reçurent de manière à nous prouver que leur accueil étoit désintéressé. Il nous sembloit que nous quittions les aimables insulaires que M. de Bougainville & Cook nous ont appris à aimer, & nous n’étions pas à vingt lieues de Bayonne” (Bourgoing 1789: I, 10)].

Azken esaldian agertu zaigun basati ona Humboldtén lerro batzuetan ere sumatzen ahal da. Hala eta guztiz ere, Humboldtén interesak bere garaiko testuinguruan txertatzen ahal badira ere, berak zorrotasun berri batez landu zituen, eta horrek aparte jartzen du haren obra.

3. *Euskal monografia.*

3.1. Abiapuntu teorikoa.

Ankündigung einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation, nebst Angabe des Gesichtspunctes und Inhalts derselben, horrela zuen izena 1812an *Deutsches Museum* eta *Königsberger Archiv für Philosophie, Theologie, Sprachkunde und Geschichte* aldizkarietan agertu zen artikuluak, eta horrela euskaratu genezake: “Euskal hizkuntza eta nazioari buruzko idazlan baten iragarpena, darabilen ikuspuntu eta edukiaren berriarekin batera”¹⁰. Bi testuak berdin-berdinak ziren; hala ere, argitaraturik gabeko bertze bertsio bat ere bazegoen. Bigarren bertsio horren jatorrizko eskuizkribua galdua dago, baina bada kopia bat Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, Resurrección M^a de Azkuek Kolonian prestatu zuena 1908an. Bi bertsioen arteko ezberdintasunak ez dute garrantzirik ikerketa honetako asmoetarako eta, hortaz, soilik plazaraturiko bertsioaz arituko naiz¹¹.

Komentatzeko asmoz, bi zatitan bana daiteke “iragarpenaren” edukia. Lehenak ikuspuntu orokorra dauka, eta euskal non ikerketak kokatu beharko diren, zein esparru teorikotan, zehazten saiatzen da (Humboldt 1904: 288-291). Bigarrenean, bi puntu azaltzen digu egileak: alde batetik, euskaldunak nola hartu zituen ikergai eta zein diren euskaldunak ikertzeko zailtasunak (1904: 291-293), eta, bertze aldetik, egin beharreko monografiaren nondik norakoak zehazten dizkigu (1904: 294-299). Dena den, hasieratik bertatik estu lotzen ditu bi zatiak:

“Euskaldunak bezalako herri berezi bat, eskura dauden bitartekoekin posible den xehetasun eta zehaztasun handienaz deskribatzeko erabakia hartzean, batez ere hau hartu dut kontuan: historia unibertsala ikuspuntu berri batetik lantzeko larriki eta nire ustez biziki beharrezkoak diren eskakizunak (zeren ukazina baita historia unibertsalak, hainbat ikuspegitatik, berrikuspen batzuk behar eta eskatzen dituela)” (Humboldt 1904: 288).

[“Bei dem Entschluss, einen einzelnen abgesonderten Volksstamm, wie der Vaskische ist, mit aller Ausführlichkeit und Genauigkeit zu beschreiben, welche die vorhandenen Hilfsmittel erlauben, habe ich vorzüglich die Forderungen vor Augen gehabt, welche, meiner Ueberzeugung nach, an eine gewisse und höchst nothwendige Bearbeitung der

¹⁰ Gaztelaniazko itzulpen bat ikus daiteke in Garate 1933: 115-129; lehenago, zati baten itzulpena argitaratu zuen *RIEVEN* (Garate 1931: 631-638).

¹¹ Azkueren kopia ez da inoiz argitaratu. Humboldt idazlanen bilduma berrian atera bitartean, bi testuak eskura daude Interneten: www-gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/txt/BAST0001.html

Weltgeschichte (da dieselbe unläugbar mehrere, von verschiedenen Gesichtspuncten aus, erlaubt und fordert) gemacht werden müssen” (Humboldt 1904: 288)].

Euskaldunak bezalako herri txikiak ikertzetik historia unibertsalari buruzko ikuspegi berri bat sortu behar da, beraz. Humboldten iritziz, gainerako izakiak generoetan eta arrazetan banatzen diren moduan, gizakiak “nazioetan, leinuetan eta arrazetan” banatzen dira, eta aniztasun hori ere aztertzea historiari dagokio. Gizabanakoak, aske eta independente izanagatik, inguruko eraginak jasotzen ditu: “Dagoeneko bere jatorrizko bizilekuan, eraginak jasotzen ditu datorren arrazatik, sorterrri izan duen lurretik, arnasten duen airetik, inguratzen duen eskualdetik eta ikusten duen zerutik” (Humboldt 1904: 289). Gizataldeak, herriak edota nazioak, batasun esanguratsuak dira, ikerlarien arreta merezi dutenak. Baina ikuspuntu hori, beharbada, ez da erabat bateragarria gizateria gero eta batasun handiagorantz doala azpimarratzen duenarekin:

“Gizakia natura fisikoak (mendiak, itsasoa, ibaiak) eragindako diferentzietan ulertzea ere historia unibertsalaren lana da, bere lana den bezalaxe honako gertakari hauek ulertzea: talde txikiak bateratu eta gizadi osoaren izaera morala gero eta helburu altuago betarantz daramaten gertakari handiak eta iraultza moralak.” (Humboldt 1904: 289).

[“Diesen Gesichtspunct, von welchem aus das Menschengeschlecht gleichsam in seiner, ursprünglich hauptsächlich durch die physische Natur (Gebirge, Meere, Flüsse) veranlassten Trennung betrachtet wird, zu ergreifen, ist nicht weniger Pflicht der Weltgeschichte, als die einzelnen grossen Begebenheiten und moralischen Umwälzungen zu verfolgen, die auf Vereinigung der kleineren Massen gerichtet sind, und das moralische Daseyn der ganzen Menschheit Einem immer höher gesteckten Ziele zuzuführen streben” (Humboldt 1904: 289)].

Ezberdintasunak, alde batetik, eta berdintze prozesua, bertzetik. Jatorrizko diferentziak eta batasun altuagorako bidea. Bi ideien arteko kontra-jartze hau garrantzia handikoa zen Humboldtendako. Izan ere, *Die Vasken* lanaren sarreran ere aritu zen jada bien harremanaz: “Giza kulturaren bidean”, dio prusiarrak, “badirudi memento batean, heziketa eta kulturaren maila zehatz batera iritsita, herri talde txikiak bereizten dituzten ezberdintasunek halabeharrez desagertu behar dutela, eta masa handiek bakarrik eragiten ahal diotela elkarri”.

Historiaren norabidea gizatalde txikien bat etortze prozesu bat dela aitortzen du Humboldték, baina honako galdera hau ere gaineratzen du:

“Bertze galdera bat da, naski ez garrantzirik gabea, ea horretarako ere mugarik ez ote dagoen, ea kultura ez ote den puntu batera iristen, non arrazoia esfera zabal batera eramatea bezain beharrezkoa baita irudimena eta sentimena zirkulu estu batean ixtea, nortasuna emankorra izan dadin ezinbestekoak diren beroa eta indarra atxikitzeko” (Humboldt 1920: 10).

“Ob indess nicht auch dies eine Gränze kennt, ob nicht die Bildung wiederum einen Punkt erreicht, auf dem es eben so nothwendig ist, Einbildungskraft und Gefühl in einen engen Kreis einzuschliessen, als den Verstand in eine weite Sphäre zu führen, um dem Charakter die Wärme und die Kraft zu erhalten, ohne die nichts in ihm Frucht tragen kann? ist eine andre und gewiss nicht unwichtige Frage” (Humboldt 1920: 10)].

Taldeak bereizten dituzten xehetasunak ezabatu, “gizadi osoaren izaera morala gero eta helburu altuago baterantz” eramateko: aurrerapen kontzeptuan oinarritutako historia ilustratua da Humboldt kritikatzin ari dena, bere burua determinatzen duen subjektu unibertsal, abstraktu eta independentea euskarri duen historia hain zuzen. Horren ondoan, subjektu honi eragiten dizkion baldintzak (ingurumena, dagokion gizataldea, hizkuntza) gogora ekarri nahi izan ditu Humboldték. Alabaina, bere kritika, nire irudiko, ez da erradikala. Modu baldar batean adierazita, ez du proposatzen historia ilustratua zakar ontzira botatzea, historia horri mugak paratzea baizik.

Historia unibertsalaren betebeharrerako bat, ikuspegi ilustratu horri lotuta, “banako gertakari handiak eta iraultza moralak” ikertzea da. Nire ustez, badago hitz abstraktu horiek gertakari zehatzei lotzerik. Humboldtén garaian bazen gainerakoek baino askoz itzal eta eragin handiagoa izan zuen gertakari bat, ohituretan uzkaillte itzela eragin zuena: Frantses Iraultza, hain zuzen ere (ez dezagun ahaztu Humboldték Paris 1789an bisitatu zuela, 23 urte zituelarik). Eta bazen, halaber, izen propio zeukan indar bateratzaile bat: Napoleon. Bata ilustrazioaren emaitzatzat jo zitekeen, bertzea ideia ilustratuen zabaltzailetzat, zentzu literalenean. Ildo honetatik, *Die Vasken*-en sarreran, hizkuntza txikien gainbeheraz ari zelarik, Frantziako Hegoaldean proventzar eta tolosar mintzairek “Iraultzaren hasieratik” pairatutako atzerapena “adibide iragartzaile eta

ikasgarritzat” jotzen zuen (Humboldt 1920: 9). Eta liburu horretan bertan bi galdera dakartza Humboldték hizpidera, historikoa bata eta politikoa bertzea, argiren bat eman diezaguketenak. Edo, zehatzago, bigarrena, politikoa, gertatzen ahal da argigarri. Zein den euskaldunen jatorria da lehen galdera, historikoa alegia. Bigarrena, hauxe: Espainiako Monarkiak “nola tratatu beharko lukeen euskal nazioa, haren indarrak eta lanerako gogoia Espainiarako ahal bezain emankor bihurtzeko”. Bigarren galdera horrek, Humboldtén iritziz, badu interes praktikoa handia, “*eta are gehiago orain, herri ezberdinak estatu bakarrean batzea gero eta kasu arruntagoa izanen den memento honetan*” (Humboldt 1920: 14, nik azpimarratua)¹².

Uste dut modu honetan hobeki ulertzen ahal dugula Humboldtén jarrera, bi aldeko kritika batean oinarritzen dena. Ideien mailan, alde batetik, ilustrazioak bultzaturiko historiaren ikuspegia, xehetasun bereizgarriak eta haien eraginak kontuan hartzen ez dituenak, kritikatzeko; bertze aldetik, politikaren mailan, gauza bera egiten du ilustrazio horren ondorioztat jo zitekeenarekin. Arestian erran dudana bezala, kritika hau ez zen apurtzailea, zuzentzailea baizik. Humboldték ikuspegi baten mugak azpimarratu nahi zituen. Goian aipaturiko galdera “praktikoa” oso esanguratsua da zentzu honetan. Humboldték ez du zalantzan jartzen herriak gero eta estatu handiagoetan bilduko direnik (edo biltzera behartuak izan direnak), ezta bilakaera hori ona denik ere. Zalantzan jartzen duena da prozesu horretan ezberdintasun oro ezabatzeak komenigarria, onuragarria edo nahitaezkoa izan behar duenik. Hala adierazten du berak:

“Argi aitortu behar da, hala ere, ezberdintasunak sortzen dituen zailtasunak desagerrarazteaz gogoeta gehiago egin dela, berezitasunak berarekin dakartzan onurak baliatzeaz baino” (Humboldt 1920: 14).

[“Man muss aber frei gestehen, dass man bisher wohl immer mehr daran gedacht hat, nur die Schwierigkeiten hinwegzuräumen, welche die Verschiedenheit entgegengesetzt, als das Gute zu benutzen, das die Eigenthümlichkeit mit sich führt” (Humboldt 1920: 14)].

Azpiatal hau bukatu baino lehen, hondarreko puntu teoriko bat gaineratu behar da. Ezberdintasunak, ezaugarri bereziak, xehetasun bereizgarriak... behin eta

¹² “Die zweite Frage hat ein höheres praktisches Interesse, und das um so mehr, als gerade jetzt der Fall häufiger wird, dass verschiedenen Völkerstämme in denselben Staat vereinigt werden” (Humboldt 1920: 14).

berriz errepikatu ditudan hitzak dira. Baina, zeintzuk dira gizataldeak bereizten dituzten ezaugarri horiek? Humboldtten arabera, ezaugarri bat gailentzen zaie gainerako guztiei eta ezinbestekoa da nazioak ikasteko orduan:

“Nazioen arteko ezberdintasuna garbien eta argien beren hizkuntzetan adierazten denez gero, bada, horregatik bat egin behar du hizkuntzaren ikerketak ohituren eta historiaren ikerketarekin” (Humboldt 1904: 290).

[“Denn da der Unterschied der Nationen sich am bestimmtesten und reinsten in ihren Sprachen ausdrückt, so muss [...] das Studium der Sprache mit dem der Sitten und der Geschichte zusammenstossen” (Humboldt 1904: 290)].

Ikuspuntu horren ondorioak geroago etorriko diren lan batzuetan aterako ditu Humboldttek (El Zarka & Vollmann 2000). Guri hemen axola digunari begira, horrek azaltzen digu zergatik eman zion Humboldttek hain garrantzi handia euskarari. Edonola ere, hizkuntza eta historia elkartzeko eskakizun horrek zailago, ez errazago, egiten zuen edozein nazioaren ikerketa, hizkuntzen azterketa egokirik ez baitzegoen eskura: “Hizkuntzen arteko ahaidetasun mailak ziurtatzeko oinarri sendoak falta dira”, dio jakintsu prusiarrak, “ez dago behar adinako adostasunik ezartzeko zein diren herrien arteko ondorengo-harremanak argitu liezazkiguketen hizkuntza-zeinuak” (Humboldt 1904: 290). Hizkuntza, herrien nortasuna atzemateko, herrien iragana ikertzeko eta herrien arteko harremanak azaltzeko tresna gisa. Ondorioz, Humboldtten ikuspuntutik, hizkuntza, historia eta ohiturak elkarri lotuta daude, bata ez da bertzerik gabe ulertzen ahal. Nazio bat modu egokian konprenitzeko hirurak hartu behar dira kontuan. Horrek, jakina, bere isla izanen du euskal monografiaren egituran.

3.2. *Euskaldunak ikergai.*

Bere ikuspegiaren berritasuna eta hizkuntzaren inguruko ikerketa egokien eskasia azpimarratzen duelarik, hau da, hartutako lanaren zailtasuna nabarmentzen duelarik, berak egin litzakeen akatsengatik barkamena eskatzen ari Humboldt, orain teoriatik praktikara pasatzeko ordua ailegatu baita. Orain, bere ikergaia kokatu behar du azaltzen saiatu naizen esparru teoriko horren barnean. Objektu hori euskaldunek osatzen dute. *Ankündigung* testuan,

kasualitateari leporatzen zion euskaldunekin topo egin izana, “nire Espainiako bidaiak piztu zuen nigan nazio eta herriarenganako interesa” (Humboldt 1904: 292). *Die Vasken* liburuko lehen orrialdeetan, ordea, interesa lehenagotik zetorkiola ematen du aditzera. Espainiara joateko erabakia hartu zuenetik, euskal bidaia prestatzen hasi zen: “euskal gramatika ikasteari ekin nion, lurraldeari buruzko informazioa bilatzen ibili nintzen, baina beharrezko bitartekoak nituen falta, batez ere dauden hiztegi gutxiak, zeren Parisen, han bizi bainintzen garai hartan, liburutegi publikoek ez zuten bakar bat ere” (Humboldt 1920: 14). Zalantza guztiak uxatzeko, hauxe dio aitzinago:

“1800ko udan, Parisera itzulitakoan, berriz ere ekin nion euskara ikasteari, beharrezko bitartekoak, inprimatutako hiztegia eta bertze bat, eskuz idatzia eta liburutegi nazionaleko bilduman dagoena, erdietsi nituen, [eta] bidaiariak eskualde txiki horri eta nazioari buruz erraten dutena irakurri nuen [...]” (Humboldt 1920: 15).

“Nach meiner Rückkunft nach Paris im Sommer 1800. nahm ich mein unterbrochenes Studium des Vaskischen wieder vor, ich erhielt die nöthigen Hülfsmittel, das gedruckte Wörterbuch, und ein andres handschriftliches, das sich in der Sammlung der Nationalbibliothek befindet, [und] ich las, was die Reisebeschreiber von dem Ländchen und der Nation sagen [...]” (Humboldt 1920: 15).

Lehen bidaiatik bueltatutakoan, *berriro* hasi zen euskara ikasten, eta lehen kausitzen ez zituen liburuak aurkitu zituen¹³. Dena den, *berriro* hasi behar bazuen, argi dago euskararekiko harremana penintsulara etorri baino lehenagokoa zela. Izan ere, jada Parisen euskaldunak ezagutzen zituen Humboldttek, eta azpimarratzekoa da, batez ere, bere harremana Dominique Joseph Garatekin. Parentesi artean erranen dut Garat bezalako Ipar Euskal Herriko euskaldunak ezagutu izanak ziur aski lagundu ziola Euskal Herria bere osotasunean hartzen, eta ez, aurreko bidaiariak bezala, “Bizkaiko” hiru probintzietara mugatzen. Itxi dezagun orain parentesia. Kontua da Garatek 1780-1783 tartean Pariseko *Mercure de France* aldizkarian kolaboratu zuela eta bertan, 1783ko otsailaren 8an, “Lettre sur Bayonne et sur les Basques” (“Euskaldunei eta Baionari buruzko gutuna”) izeneko artikulu bat argitara eman zuela. Artikulua biziki interesatu zitzaion Humboldti, hain biziki ezen itzuli ere

¹³ “Inprimatutako hiztegia” Larramendirena da, eta “eskuz idatzitakoa”, ziur aski, Silvain Pouvreau-rena. Puntu horretaz, ikus Kerejeta 1997.

egin baitzuen. Itzulpena Humboldték utzitako paperen artean dago eta orain dela gutxi ikerlari batek argitaratu zuen lehendabiziko aldiz¹⁴. Garat euskal historiaz, ohiturez, geografiaz aritu zen bere “Lettre” hartan, baita euskal hizkuntzaz ere. Azken horri dagokionez, Garat-ek hizkuntza eta ikusmoldea lotzen ditu elkarrekin (“Sinetsita nago herri honek ideietan dituen arrazoizkotasuna eta zabaltasuna, sentimenduetan dituen indarra, finezia eta leuntasuna, hein handiz mintzaten den hizkuntzari zor diola”)¹⁵; horretaz gain, “*génie des langues*” edo hizkuntzen senari buruzko gogoeta teorikoa esparru praktikoa batera darama, euskarara hain zuzen; eta, azkenik, euskara, “literatura eta kulturarik gabeko” hizkuntza zena, latinarekin eta grezierarekin parekatzen du bere adierazpen gaitasuna dela eta (“Greziarrek eta Erromatarrek hitz egiten zituzten hizkuntzen garaikidea, eta ziur aski hauek baino jatorri zaharragokoa izanik, euskarak, hizkuntza horietako aberastasun guztiak edukitzerik ez badu ere, baditu haien ezaugarri handi guztiak eta haien edertasun handi guztiak”)¹⁶.

Garat-en artikuluan, hortaz, Humboldtén lanaren zenbait ezaugarri agerian daude: hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko lotura, hizkuntza txikién aldarrikapena, interes praktikoa (Humboldt euskara ikasten saiatu zen eta hiztunekin harremanetan sartzen ahalegintzen; zentzu horretan, hiztun “natibo” batek egin izanak balio handiagoa eman zien Garat-en hausnarketei). Greziera eta latinaren garaikidea, jatorriz hizkuntza hauek baino antzinatasun handiagokoa, eta, aldi berean, bizirik zirauena, euskarak Europako iraganera bide ezohiko batetik hurbiltzeko aukera paregabea eskaintzen zion Humboldtí. Honekin batera, irakasle prusiarrak bazekien aniztasuna eta berezitasuna prezatzen eta, Garat-en ildotik, euskarak pentsamenduak eta sentimenduak zehaztasunez eta edertasunez adierazteko duen gaitasuna aldarrikatuko zuen

¹⁴ Humboldtén euskal eskuizkribuen ondarearen zatirik esanguratsuenak Krakoviako Biblioteka Jagiellonska-n dago, eta bertze zati txiki bat, Berlingo Staatsbibliothek-en (ondareaz, ikus El Zarka & Vollmann 2000). Garat-en itzulpena Krakoviakoan zegoen eta 1991an argitara eman zuen Kurt Mueller-Vollmer ikerlariak. Izan ere, Garat-ek diodan ia guztia bere artikulutik hartu dut (ikus Mueller-Vollmer 1991).

¹⁵ “Au reste, je suis persuadé que tout ce qu’il y a de raison & d’étendue dans les idées de ce peuple, d’énergique, de fin & de délicat dans ces sentiments, il le doit beaucoup à la langue qu’il parle”; Humboldtén itzulpena: “Übrigens bin ich überzeugt, daß dies Volk die ganze Richtigkeit u[nd] den Umfang (étendu) seiner Ideen, die ganze Stärke, Feinheit u[nd] Zartheit seiner Empfindungen größtenteils seiner Sprache verdankt”, biak in Mueller-Vollmer 1991: 116-117.

¹⁶ “Contemporaine des langues que parloient les Grecs & les Romains, & même probablement d’une origine plus ancienne encore, la langue basque, qui ne peut pas avoir toutes les richesses de ces langues, en a tous les grands caractères, & toutes les grandes beautés”; Humboldtén itzulpena: “Eine Zeitgenossin der Griechischen u[nd] Römischen, u[nd] vermutlich von noch älterem Ursprung, als sie, trägt die Biskayische Sprache (la langue basque), da sie unmöglich allen Reichtum des Ausdrucks von jenen besitzen kann, doch den großen Charakter u[nd] alle ihre hohen Schönheiten an sich”, biak in Mueller-Vollmer 1991: 118-119.

(ikus Humboldt 1920: 11-14). Astarloarekiko zorra behin baino gehiagotan eta ozenki adierazi zuen idazle prusiarrak; ez dut uste, baina, Garat-ekikoa gutxiesteko modukoa denik. Azken honi omenaldi ederra, ixilagoa izanagatik, egin zion, *Die Vasken* liburuari haren aipamen batez hasiera emanez (ikus beherago). Irudi du, laburbiltze aldera, Humboldten euskaldunekin topo egitea ez zela hain kasualitatezkoa izan.

Horrek guztiak ez du erran nahi Humboldt baikorra zenik etorkizunari begira: “[Euskaldunak] iraganean handi eta interesgarri egin zituenak haien nazionalitatearen eta are hizkuntzaren gainbehera epe laburrean kasik ziurtasun osoz aurreikusten uzten digu” (Humboldt 1904: 292). Zehaztasun handiagoz, *Die Vasken* testuan: “Beharbada mende bat baino gutxiagotan, desagertu egingen da euskara hizkuntza bizien lerroetatik” (Humboldt 1920: 15).

3.3. *Bidaia, hizkuntza, historia.*

1812ko *Iragarpenaren* hondarreko orrialdeetan euskal monografiak zer gai ukituko zuen eta zenbat zati izanen zituen azaldu zuen Humboldtek. Beti ere, hizkuntzen inguruko behar adina ikerketa ez egotetik sortzen ziren zailtasunak kontuan hartuta, monografia hura lehen urratsa baino ez zen izanen, Humboldten ustetan.

Euskaldunei buruzko lanerako hiru zati aurreikusten zituen. Lehendabizikoan, herriaren eta biztanleen deskripzioa egin nahi zuen; bigarrenak euskal gramatika moduko bat izan behar zuen, “euskal hizkuntzaren analisi bat [...], gehi euskararen hizkuntza-lagin sorta bat, denbora zaharrenetatik hasita” (Humboldt 1904: 294); hirugarrenean, euskal nazio eta hizkuntzaren inguruko ikerketa historiko eta filosofikoak eskaintzea zen bere asmoa. Hondarreko zati horrek bertze bien ondorioa izan behar zuen.

Hiru parteetarik, bigarrena ez zuen inoiz gauzatu, saioak egin eta zatikiak prestatu arren. Testurik goiztiarrena, Fischerren liburuaren itzulpenekoa, ohar batzuk bertzerik ez da. Segidan, *Mithridates*-ekoa dugu, ohar (zabalago) batzuk horretan ere, hizkuntza-entziklopedia orokor baten beharretara moldatuak, hain zuzen ere. Humboldtek horrelako entziklopedia batek eskatzen zuena baino analisi luzeago eta osotuago bat egin nahi zuen eta, dagoeneko erran dudan bezala, nahiago izan zuen aurreko liburuki batean Adelungek idatzitakoari

hainbat zuzenketa eta adizio egin. Horretaz gain, eskuizkribuetan badira bi “euskal gramatika” ere, alemanieraz oraindik argitaratu gabe daudenak (bai, berriz, gaztelaniaz, in Garate 1933a: 153-178 eta 179-197; eta Garateri buruz ikus Kerejeta 1997: 1-2; El Zarka & Vollmann 2000: 14; El Zarka 2002: 4). Dena den, Humboldt ez zen euskararen azterketa on bat idazteko gauza sentitzen eta nahiago zuen betebeharrak hori euskaldun baten eskuetan utzi.

Hirugarren zatia, ordea, bukatu egin zuen, eta argitaratu ere bai. Goian erran bezala, 1821ean kaleraturiko *Prüfung* izeneko liburua lan akademikoa zen, tesi “basko-iberista” frogatu nahi zuena.

Lehen zatia ere bukatu zuen, baina ez zuen publikatu: *Die Vasken* liburuaz ari naiz, jakina. Bertan, bere bidaiaren berri ematen du. Bidaia Baionatik Gasteizera, handik Bilbora eta Bizkaiko hiriburutik berriz Baionara joan zen. Ipar Euskal Herriaz itzuleran aritzen da, idazkiaren azken orrialdeetan beraz. Nabarmentzekoa da, bidenabar, Nafarroan soil-soilik Orreaga bisitatu zuela. Euskal Herrian eman zituen bi hilabeteetan herri anitzetik pasatu arren¹⁷, aski argi dago Humboldten asmoa ez zela tokian tokiko xehetasunak ematea, euskaldunen ezaugarri orokorren azalpen bat eskaintzea baizik.

Aurrera egin baino lehen, komenigarria izanen da Nafarroaz zerbait erratea. Aipatu legez, gure bidaiaria ez zen Nafarroan sartu, herri batean izan ezik. Sarreran komentatu dudanez, Humboldt saiatu zen argi uzten nola izendatu zituen euskal lurraldeak. Garrantzitsua denez gero, berriz ekarriko dut hona testua:

“Aldi berean gauzak labur eta argi errateko, eta nazio hauetan guztietan ohikoak diren izenak erabiltzeko, honako izendapen hauetaz baliatu naiz. Basquenland-en [Ipar Euskal Herrian], Biscaya-n [Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan] eta Navarra-n [Nafarroan] hedaturiko leinu osoaz mintzatzean: Vasken. Eskualdearen Espainiako zatiaz aritzeko: Biscaya; Frantses Errepublikaren menpe dauden euskaldunetz hitz egiteko: Basquen; eta *Señorio* delakoari erreferentzia egiteko: Vizcaya” (Humboldt 1920: 5, oharra).

¹⁷ Justo Garatek (1933) bidaia humboldtiarraren mapa argitaratu zuen. Interneten ere ikusten ahal da Humboldten ibilbidea, helbide honetan: www-gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/txt/basqmap01.html Hauxe izan zen ibilbidea: Baiona, Donibane Lohizune, Ziburu, Hendaia, Hondarribia, Pasaia, Donostia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Markina, Gasteiz, Durango, Bilbo, Portugalete, Plentzia, Bermeo, Mundaka, Gernika, Lekeitio, Azkoitia, Azpeitia, Hernani, Oiartzun, Irun, Ustaritze, Itsasu, Orreaga, Donibane Garazi eta Maule.

Arretaz irakurtzen badugu, ohartuko gara bi irizpide erabiltzen dituela izenen auzia erabakitzeko. Lurraldetasuna (“Basquenland”, “Biscaya” eta “Navarra”) eta biztanleak (“Vasken” eta “Basquen”). Izan ere, biztanle guztiak hartzen dituen izen bat (“Vasken”) badago ere, ez dago lurralde guztiak biltzen dituen izendapenik. Badakigu *Vasken* izenekoak Nafarroaraino hedatzen direla, eta Nafarroan euskaraz hitz egiten dela ere aipatzen du behin baino gehiagotan (adibidez, Humboldt 1920: 179). Are gehiago, bertze pasarte batean dio “euskal probintziei eta Nafarroari” “Espainiako probintzia batuak” deitzen zitzaizela, euskaldunek, atzerrian topo egiten zutenean, elkartzeko eta elkarri laguntzeko joera baitzuten. Argi dirudi, beraz, Humboldten iritziz Nafarroa ere sartu egiten dela euskal elkartasun horretan. Hala eta guztiz ere, euskal instituzioez luze aritu arren, Nafarroakoez ez du deus komentatzen *Die Vasken* liburuan. Iduri luke Humboldten buruan Nafarroa dantzan zebilela, Euskal Herriaren zati izan ez izan. Aitortu behar da, hala ere, bazuela informazioa Nafarroari buruz: adibidez, José de Moret kronistaren liburuak ezagutzen zituen. Nolanahi ere, Nafarroa da hutsunerik nabariena Humboldten lanean. Nafarroa alde batera utzita, itzul gaitezen *Die Vasken* testura.

Paisaje ugari deskribatzen ditu, beti miresmenezko hitzak erabiliz. Deskripzio hauek ez dira garrantzirik gabeko edo bigarren mailako kontuak: bere abiapuntu teorikoarekin bat egiten dute. Ez dezagun ahaztu Humboldten arabera gizataldeak naturaren baldintzapean bizi direla, ingurumenak eragin ez nolanahikoa duela gizakiarengan. Izan ere, euskaldunak Euskal Herriko paisaje menditsuari esker interesatzen zitzaizkion Humboldti, neurri batean behinik behin. Alde batetik, mendien artean bakartuta bizi izan zirelako, inguruko herriekin harreman handirik izan gabe. Hori da bidaia-narrazioaren hasiera-hasieran, lehen lerroetatik beraietatik, adierazten dena:

“Mendien artean ezkuturik, Mendebaldeko Pirinioen bi aldeetan herri bat bizi da, mende luzeetan zehar bere jatorrizko hizkuntza eta hein handi batean bere antzinako konstituzioa eta ohiturak gorde dituen eta, gaur egungo idazle baten esapide egokia erabiltzearen, behatzailearen begiradatik nahiz konkistatzailearen ezpatatik ihes egin duena – euskaldunen edo bizkaitarren herria” (Humboldt 1920: 5)¹⁸.

¹⁸ Aipuko “gaur egungo idazlea” Dominique Joseph Garat da. Humboldtek ez du haren izena ematen (eta Leitzmann editoreak aitortzen du ez duela aipamenaren egilea ezagutzen); alabaina, J.-L. Lacour izeneko frantziar bidaiari batek testu berbera aldatzen du, eta Garat-ena dela dio (Lacour 1834: 40, 21. oharra). Nik ere aitortu behar dut, hala ere, ez dakidala zein idazkitatik datorren. Lehen erran bezala, uste dut Garat-i egindako

[“Versteckt zwischen Gebirgen, wohnt zu beiden Seiten der WestPyrenaeen ein Völkerstamm, der eine lange Reihe von Jahrhunderten hindurch seine ursprüngliche Sprache, und grossentheils siene ehemalige Verfassung und Sitten erhalten und sich, nach dem glücklichen Ausdruck eines neueren Schriftstellers, ebensowohl dem Auge des Beobachters, ald dem Schwerdt der Erobrer entzogen hat - der Stamm der Vasken oder Biscayer” (Humboldt 1920: 5)].

Bakartze horri esker, beraz, eutsi izan zieten euskaldunek beren hizkuntzari eta ohiturei. Bertze aldetik (eta Humboldten arabera, beti ere), bere kokaleku geografikoak oreka eman dio Euskal Herriari. Greziar idazleez geroztik ohiko izan da herriak sailkatzea dauden tokiaren arabera. Europako herriei dagokienez, Iparraldekoen eta Hegoaldekoen artean izan da lubaki nagusia, nahiz eta 18. mendean geroztik Ekialdeko edo Erdiguneko Europa kontzeptuak ere agertzen zaizkigun. Kontua da, dena den, biztanleei Hegoaldean edo Iparraldean (eta geroago, Ekialdean) egotetik ezaugarri batzuk zetoziela (Drace-Francis 2003). Iparraldekoak hotzak, langile onak eta protestanteak ziren, adibidez; eta Hegoaldekoak beroak, alferrak eta katolikoak. Nondik begiratzen zitzairen, toki bateko bertuteak akats bihurtzen ahal ziren. Sailkapen mota horren bertze bereizgarri garrantzitsua da oso erlatiboa dela. Erran nahi baita Hegoaldea beti Iparraldearekiko dela Hegoalde, eta alderantziz. Euskaldunak, errate baterako, Hegoaldeko herrien artean kokatuak izan ohi dira, Espainiaren barnean dauden aldetik. Espainiatik begiratuta, berriz, Iparraldeko herri gisa irudikatuak izan dira. Humboldten ikuspuntutik, iparraren eta hegoaren gauza onak biltzen zituzten euskaldunek, eta horrek oreka berezia ematen zien:

“Iparraldeko landareari hazkunde azkarrago eta indartsuago bat ematen bazaio, eta bertako biztanleen seriotasun hotz eta batzuetan iluna hegoaldekoaren bizitasun eta alaitasunaren pixka batez ordezkutzen bada, orduan lortuko da Hego Euskal Herriko eta bereziki Gipuzkoako zatirik jendeztatuen eta emankorrenen irudi egiazko bat. Batek irudipena dauka iparraldean dagoela, ezin da erran udaberri eta udazkeneko haizea goxoa denik, gure aberriko eta Ipar Frantziako produktuak kausitzen dira hemen ere, eta, aldi berean, hegoaldeko produktu delikatuak falta dira, laranjak, palmak, almendrak, olibondoak berek ere. Baina ipar hau Espainiako iparra da, eta landareek badute lurraren urreztatze oparoan behar duten baino gehiago eguraldi eskuarki zakarrari aurre egiteko” (Humboldt 1920: 55; antzeko gogoetak in Humboldt 1843: 228-229).

omenaldi moduan ulertu behar da aipamen hori.

[“[W]enn man der trägeren Vegetation des Nordens einen schnelleren und kräftigeren Wuchs leiht, den kalten, manchmal finstren Ernst seiner Bewohner mit einem Theil der Lebhaftigkeit und der Heiterkeit des Südländers versetzt, so hat man ein treues Bild von Biscaya, und vorzüglich von den bevölkertsten und fruchtbarsten Theilen Guipuzcoas. Man fühlt, dass man sich im Norden befindet, die Luft im Frühjahr und Herbst ist nicht eigentlich milde zu nennen, die Produkte unsres Vaterlandes und des nördlichen Frankreichs finden sich auch hier, die zarteren des Südens, Orangen, Palmen, Mandeln, selbst Olivenbäume fehlen. Aber dieser Norden ist der Norden Spaniens, und die Vegetation findet in der reichlichen Bewässerung des Landes einen mehr als hinlänglichen Ersatz für die anhaltend rauhere Witterung” (Humboldt 1920: 55; antzeko gogoetak in Humboldt 1843: 228-229)].

Humboldten hitzak laburbiltzarren, Euskal Herria hegoaldean dagoen ipar herria dela erran genezake. Naturak emandako eta naturan adierazitako oreka hori euskal sistema foralean ere ikustekoa da. Aurreko eta geroko bidaiari askok bezala, Humboldtek ere zer goraipatu aurkitu zuen euskal instituzioetan. Xehetasunak emanaz deskribatu zituen Gipuzkoako instituzioak (Humboldt 1920: 48-53), Arabakoak (107-112) eta Bizkaikoak (161-168); gehiegi sakondu gabe, berriz, Iparraldekoak (182-184), “Frantses Iraultzak probintzia hauetako konstituzioak deuseztatu dituenaz, lekuz kanpo legoke haien azalpenaz luzeago jardutea” (Humboldt 1920: 184).

Christine Tauber ikerlariak Humboldtek euskal bidaian erakutsitako jarrerari “iraultzaren ondoko klasizismoa” deitu dio (Tauber 1998). Euskal antolamendu politikoaren laudorioa egiterakoan, Greziako *polis*, alegia hiri-estatuaren irudia ez dago inoiz urrun. Gogora dezagun Humboldtek, Goethe eta Alemaniako bertze erromantikoei jarraiki, Italiara joan nahi zuela aro klasikoaren aztarnen xerka. Iduri luke aztarna horiek, ustekabean, euskaldunen artean aurkitu zituela. Humboldten begietan Euskal Herrian bat egiten zuten gizakiak eta naturak, askatasunak eta tokian tokiko ezberdintasunek. Batasun klasikoa gaur eguneraino iritsita. *Die Vasken* liburuan baino hobeki, agian euskal monografia iragartzen zuen testu horretan laburbildu zuen Humboldtek ikuspuntu hau:

“Berez interesgarria da egotea gogoz eta adimenez beteriko nazio erne baten erdian; hegoaldeko herri baten iparreak eta kostalde batetik hurbil dauden mendietan bizi denez, aldi berean mendi eta itsas herria da, eta bere izaeran gauza anitz biltzen ditu, bertzenaz banan-banan baizik ez direnak aurkitzen; gainera, nik ikusi nuen garaian bazuen oraindik

konstituzio libre bat eta estatu federatzaile bat osatzen zuen, tokian tokiko ohituren arabera banatutako herri txiki askotan partitua; horrela, bere egoera, konstituzioa eta izaeraren bizitasuna zirela eta, nazio horrek maiz antzinako Greziako estatu libre txikiak ekartzen zizkidan gogora” (Humboldt 1904: 294).

[“[E]s ist aber auch interessant an sich, sich in die Mitte einer emsigen muth- und talentvollen Nation zu versetzen, die den Norden eines südlichen Landes, und Gebirge an einer Küste bewohnt, mithin zugleich Berg- und Seevolk ist, und vieles in ihrem Charakter vereinigt, was man sonst nur einzeln antrifft; die ferner zu der Zeit, als ich sie sah, noch eine freie Verfassung besass, einen in viele kleine, wieder durch einzelne Localgebräuche getrennte Ortschaften getheilten Föderativstaat bildete, und so durch Lage, Verfassung und Lebendigkeit des Charakters mich nicht selten an die kleinen Freistaaten des alten Griechenlands erinnerte” (Humboldt 1904: 294)].

Oreka klasikoa mantentzen jakin izan duen herria, beharbada horrela adieraz liteke Humboldték Euskal Herrian ikusi zuena. Honek, jakina, deskripzio idealizatua egitera darama. Dena den, kontua ez da ados egotea Humboldték utzi zigun irudiarekin; kontua da nabaritzea, aurreko bidaiariekin alderatuta, zein jauzi handia egin zuen prusiarrak euskaldunen herria irudikatzeko orduan. Fischerrek Baionan Espainiako hurbiltasuna sumatzen bazuen, Humboldték toki berberari euskal kutsua antzematen zion:

“Baionatik benetan Ipar Euskal Herrira sartzen da. Guk egiten genuen bezala, gelditzeko asmorik gabe bidaiatzen bada ere, ezinezkoa da nazio fisionomia deigarriaz ez ohartzea. Agian inongo herrik ez du hain luzez, hain garbi eta hain deigarri bere nazio izaera atxiki” (aipatua in El Zarka & Vollmann 2000: 2).

“Von Bayonne kommt man in das eigentliche Basquenland. Wenn man auch bloss, wie wir, durchreist, so kann man nicht die auffallende Nationalphysionomie unbemerkt lassen. Kein Stamm hat sich vielleicht so lange, so rein und so auffallend national erhalten” (aipatua in El Zarka & Vollmann 2000: 2).

Aipamena lehen bidaiako egunkaritik, 1799-1800ekotik alegia, dator. Bertze bidaiariekin konparatuta, Humboldtén begirada erabat berria eta berezia da, Euskal Herria bere osotasunean harrapatzen saiatzen ari baita. Bigarren bidaia amaituta, Euskal Herria gibelean uzterakoan, honako hitz hauekin despeditzen da Humboldt:

“Ausarta eta kementsua, baina zakarra den bizkaitarrak eta zuberotar finak hizkuntza bera hitz egiten dute, eta bakarrik egun gutxiko tartek bereizten du bata bertzearengandik; hurbil dauden eskualdeek ezberdinak diren, baina hizkuntza berberari dagozkion hitzak erabiltzen dituzte gauza berberak izendatzeko; ondo-ondoan dauden herriek nekez ulertzen diote elkarri, baina elkar onartzen dute nazio baten eta beraren anaiak bezala” (Humboldt 1920: 195).

[“Der wackre und kraftvolle, aber rauhe Vizcayer, und der weibliche Souletaner [...] reden Eine Sprache, und sind nur durch wenige Tagereisen getrennt; nahe liegende Districte benennen dieselben Dinge mit verschiedenen und doch derselben Sprache angehörigen Namen; fast benachbarte Ortschaften verstehen sich mit Mühe und erkenne sich doch als Brüder einer und eben derselben Nation an” (Humboldt 1920: 195)].

Baten batek gutxi iritziko dio begirada horri. Erantzuten ahal da euskaldunak, euskal herria ikustea ez zela hain kontu agerikoa. Izan ere, erranen nuke euskaldunek ez dutela hain arreta handia berriz lortuko lehen karlistaldia piztu arte. Bitartean, berriro ere, posible izango zen hona etortzea eta euskaldunak zeudenik ere ez konturatzea.

LEHEN KARLISTALDIA AITZINEKO HIRU IKUSPEGI.

1. Euskal Herri ikusezina: John Bramsen.

Bere liburuaren aitzin-solasean John Bramsenek ulermena eskatzen zion irakurleari, hark aurkituko zituen “akatsak” barkatzeko, “ingelesa ez baita nire ama-hizkuntza” (Bramsen 1823: xi). Hori, jakina, apaltasun ohar bat baizik ez zen, egilearen ingelesa lehen mailakoa zen-eta (nik, behinik behin, ez diot inolako akatsik nabaritu), eta egileak berak erabat ingelestua zirudien. Izan ere, liburua Fife-ko kondeari dedikatua dago, hark Espainiako Independentziako gerlan parte hartu eta betidanik penintsulako gauzekiko interesa izan baitzuen. Hala eta guztiz ere, jatorriz, suediarra dugu John Bramsen (uste izatekoa da izena ere ez zela *John* izanen, haren suediar ordaina baizik), eta hori egokia da, autore honen arrotasuna azpimarratzeko balio dezakeelako. Bidaiaria agian amorratua (Egipton, Sirian eta Grezian barnako bidaia bati buruzko liburu bat argitaratua zuen), 1822ko irailean atera zen Baionatik, *Espainiako iparraldea* ezagutzeko asmoz; idatzi zuen liburuak hala du izena, *Remarks on the North of Spain* hain zuzen ere. Dena den, arrotasun kontura itzuliz, nahiko liburu ezezaguna da gure artean. Bai Justo Garatek, bai Jaime del Burgo aipatzen dute (Garate 1989: 35; Del Burgo 1963: 27), eta biek gauza bera erraten dute, alegia John Bramsen suediarra zela eta haren liburuko pasarte batzuk Julio de Urquijok itzuli zituela *RIEV*-erako. Garai hurbilagoetan, Bramsenek libururik zatirik handiena Bilbori eman arren, ez dago aipamen bat ere Bilbon egondako bidaiariei dedikaturiko *Bidebarrieta* aldizkariko zenbakian (*Bidebarrieta* 2003). López Velascok ere ez du kontuan hartu (ikusi López Velasco 2004: batez ere 211-213. eta 433-434. orr.), ezta Beatriz Hernandok ere, Fernando VII.aren Espainiatik pasatutako bidaiariak aztertzean (Hernando 1997).

Erran bezala, 1822ko bukaera aldera Espainiako mugarantz abiatu zen suediarra. Urte hartan, liberalak zeuden Espainiako gobernuan. Beraz, bere liburuak “hirurteko liberal” deituriko denboraldiaz, 1820-1823 tartekoaz, ematen digu informazioa. Absolutismoaren defendatzaileen oposizioa handituz joana zen, liberalek 1820an boterea hartu zutenez geroztik; hasieran egunkari eta aldizkarietan adierazita, oposizio

hura gerra zibil bilakatu zen 1822rako. Izan ere, egoera politiko hura zen Bramsenen liburuari interesa eman behar ziona. Aitzin-solasean, honako hau aitortzen du egileak: “Badakit, ongi jakin ere, bidaia-liburuak idazteko moda hainbertze hedatu den garai hauetan, mota honetako argitalpen bat ez dela ongi etorritako eskaintzarik”; ondorioz, bere liburua aurkeztera ausartzen bada, bakarrik da “Europa osoko begiak iltzaturik dituen herri batez” aritzen delako, bertzenaz “agian ahazmenera igorriko nukeen” (Bramsen 1823: ix). Eta gai politiko batez jardutean bidaiari zintzo bati dagokionez, Bramsenek ere bere neutraltasuna aldarrikatzen du (x).

Espainiako egoera orokorra hurbiletik ikusi nahi bazuen ere, Bramsenen ibilbidea ez zen ia-ia Euskal Herriko mugetatik atera: Baionatik Irunera; handik Bilbora –Tolosa, Ordizia, Urretxu eta Durangotik pasatuz–; Bilbotik Gasteizera, bidean Urduña, Bergonda, Miranda de Ebro eta Puebla de Arganzón bisitatuz; eta Arabako hiriburutik berriz bueltan Baionara, Arrasate, Tolosa, Hernani eta Irundik. Aitortu beharra dago euskal herrietan zeharkako bidaia horretan Bramsenek lortu zuen irudipena ez zela sobera ona izan. Muga pasatu eta berehala, eskale multzo batek inguratu zuen, eta beren “itxura basatiak eta azal horixkak Jerusalemgo mendien artean ikusitako arabiarrez oroitarazi ninduten”:

“Ez bide zuten zintzotasun ospe handirik, haien mugimenduak behatzen zituzten guardiak bazeudelako, bidaiariak eta fardeleria ongi zaintzeko. Guardia horiek, aurreko aldean, gerriko batek lotua, kaxa bat kartutxo zeramatelako bereizten ziren bakarrik” (Bramsen 1823: 4-5).

[“They did not appear to enjoy the best reputation for honesty; as there were guards watching their motions for the better security of the baggage and passengers. These guards were only distinguished by a cartridge-box fastened in front by a girdle” (Bramsen 1823: 4-5)].

Uler daiteke guardiak guardia zirela adierazten zuen gauza bakarra kartutxo kaxa zela; baina uler daiteke, halaber, guardiak eskaleengandik bereizten zituen gauza bakarra kartutxo kaxa zela eta gainerakoetan haiek ere –“itxura basatia eta azal horixka”– arabiarren antza zutela. Susmoa dut bigarren irakurketa dela egokiena. Irungo deskripzioa ere ez da oso alai: etxeak “penagarriak” ziren (“*miserable*” da Bramsenek erabilitako hitza), emakumeak “politik, ederrak baino gehiago; baina beren azala, gizonena bezala, zurbila eta osasunik gabea” (Bramsen 1823: 8 eta 10). Tolosan “bazirudien bertako biztanleek garbitasuna debekatu egin zutela, eta puntu horretan Irungoen antzekoak ziren oso” (18). Ostatu batean, Bergaratik hurbil, bezeroek

gizalegez jokatzeko zuten, ez hainbertze, ordea, “ohea betetzen zuten zomorroek” (19). Salbuespenak salbuespen (nahiko iritzi ona ematen du Ordiziaz eta bertako ostatuaz, adibidez), Bramsenek euskal probintzietan herrixka txikiak eta karrika zikinak aurkitu zituen, bertze edozer baino gehiago. Hiri handietan, gainera, egoera ez da hobetzen:

“Bidaiariari erraten bazaio, niri erran zitzaidan bezala, Bilbo Espainiako hiririk garbiena dela, hark ez du gainerakoez oso iritzi ona osatuko. Mota guztietako ezin konta ahala intsektuk mukurutzen dute hiria, arratoi eta saguekin batera, eta beren harrapakariak egunez eta gauaz egiten dituzte, inolako oztoporik gabe” (Bramsen 1823: 54).

[“Should the traveller be informed, as I was, that Bilboa is the cleanest town in Spain, he will form no very favorable opinion of the rest. Numberless insects of all kinds, with rats and mice, swarm and carry on, unmolested, their diurnal and nocturnal depredations” (Bramsen 1823: 54)].

Hemengo sukaldaritzan olio eta baratxuri gehiegi erabiltzeko joera bidaiari askok komentatu arren (sarreran dagoeneko Van Eyss-en andrearen kasua aipatu dut), ingelesezko tema berezia da, zalantzarik gabe. Kontu txikia izanagatik, honetan ere iritzi guztiek ez dute bat egiten. Edward Bell Stephens-ek zioen, janarira iristeko, borrokatu egin behar zela olioaren eta baratxuriaren arteko bidea aurkitzeko (Stephens 1837: II, 248); Michael Burke Honan-en ustez, ordea, euskal ostatuak ez zeuden hain gaizki eta “Gaztelara ailegatu arte, bidaiaria ez dute itoazten olio eta baratxuriarekin” (Honan 1836: 67); 70eko hamarraldian, Ellen Burges-ek goraiatzeko zuten Bilboko Iturrizaga andrearen ostatua, ingelesezko gustuetara ohituta zegoelako eta, “ondorioz, sukaldetik iristen zitzaigun olio eta baratxuri usainak ez zuten guri zerbitzatzen ziguten janaria blaitzen” (Burges 1874: 34-35). Jakina, John Bramsen-ek ere kritikatu egin zuten hemengo sukaldaritzak. Durangoko ostatuan goseak bakarrik egiten zuten posible hainbertze baratxuriz hornituriko platerak irenstea (Bramsen 1823: 21-22), eta, Bilbon, honako ohar hau egin zuten: “bidaiaria, dama batekin solasean ari delarik, ez da harritu behar, haren hatsean deskubritzen badu baratxuri usainak gailentzen zaizkiela Arabiako urrinei” (Bramsen 1823: 45).

Balorazio ezkor hauekin batera, iritzi positiboagoak ere aurkitzen ditugu Bramsenen liburuan. Bilboko “Posada de San Nicolás” ostatua ona omen zen, “Espainian orain arte ikusi dudana hoberena” (Bramsen 1823: 27), eta Bilbok berak, zikintasuna alde batera utzita, bazuen bere xarma. Izan ere, arestian ere erran dudana bezala, liburuaren zatirik luzeena Bilbori buruzkoa da eta hainbat xehetasun interesgarri ematen ditu. Egoera

politikoari dagokionez (penintsulara erakarri zuen kontua, gogora dezagun), azken orrialdeetan zenbait ohar egiten ditu, ondorio gisa. Espero zitekeenez, gobernu liberalak “Espainiako iparraldeko herri eta hiri txikietan” defendatzaile gutxi zituen, eta babes nagusia hiri handietan zeukan (Bramsen 1823: 128). Horren adibide praktikoren bat eskaintzen du Bramsenek. Izan ere, Bilbotik Gasteizerako bidaia soldadu konstituzional talde batekin egin zuen eta bideko geldialdi batzuetan (Urduñan, errate baterako), soldaduei ostatua emateko arazoak ez ezik, bertako biztanleekin tentsioko mementoak ere sortu zirela kontatzen du.

Dena den, irakurleren batek bere buruari galde diezaioke horrek guztiak zer ikusirik ba ote duen Euskal Herriaren irudiarekin. Bramsen Espainiara etorri, bere liburuari *Espainiako iparraldeari buruzko oharra* izena paratu, eta Espainiako egoera politikoaz arduratu zen. Euskaldunak ez dira inon ere agertzen. Balizko irakurle horri arrazoi osoa emanen nioke, baietz, bete-betea asmatu duela. Baionatik Bilbora, Bilbotik Gasteizera eta Gasteizetik Baionaraino, Bramsenek ez zuen euskaldun bakar bat ere ikusi. Edo ikusi bazuen, ez zuen bere liburura ekarri. Huts egin ezean, *Biscay* hitza bi aldiz agertzen da, bata Bilbo *Biscay*-ko hiriburua dela eta “Ybaicabal” ibaiaren gainean dagoela errateko (Bramsen 1823: 27), bigarrena *Biscay*, Santander (edo *St. Ander*, Bramsenen bertsioan) eta Asturiaseko nobleziaz ari delarik (134). *Basque* edo *Biscayan* hitzak ez dira behin ere agertzen. Jendea euskaraz mintzatzen zenik ere ez zen konturatu, Bilbon inork ez omen zion foruez hitz egin. Lurraldea beti “Espainiako iparraldea” edo “Espainiako alde hau” (116) da.

Euskaldunek, beraz, huts egiten dute Bramsenen bidaiari; euskal probintzietatik atera ez arren, euskaldunak ikusiezinak dira. Ez naiz konspirazio batez ari, ez dut uste Bramsenek euskal kultura nahita ezkutatu egin zuenik. Ez dut, bederen, hori sinesteko arrazoirik aurkitzen. Erran nahi baita, ez dut uste gezurretan ari zenik, euskaldunak hauteman bai baina ez aipatzeko deliberoa hartu zuenik. Nire hipotesia da egiatan ez zela euskal “ezaugarriez” oharatu, berak ez zuela ikusi Humboldttek hain argi ikusi zuena eta geroago bertzek ere ikusiko zutena, eta preseski horretan datzala bere interesa. Azken buruan, John Bramsen interesgarria da, bere itsutasunak erakusten duelako Euskal Herria ikustea, deskubritzea ez zela hain erraza; bertze modu batean erranda, ziur aski Bramsenek ez zituen euskaldunak ikusi, ikusterik espero ez zuelako, haren “betaurrekoek” harrapatzen zuten esparrutik at gelditzen zirelako. Bramsenen liburua hona ekarriz gainerakoen lanaren balioa (Humboldttena, adibidez) azpimarratu nahi da.

2. *Euskal Herri arrunta: Henry David Inglis.*

John Bramsen 1822ko Espainiako egoera politikoa ikustera etorri bazen, Henry David Inglis ingeles bidaiariak deskripzio orokorrago bat egin nahi zuen 1830. urtean, politikaz ere aritu arren. Egileak berak honela adierazi zuen bidaiaren zergatikoa liburuaren hasieran:

“Ezinezkoa da atzerriko herri batean estreinako aldiz sartzea, zirrara intelektualen bat sentitu gabe; eta iduritzen zait ezen Europako herrien artean Espainia dela aproposena interesa eta ikusmina pizteko: zeren, Espainiako historia Kartagoko gogo lehiatsurekin, Erromako askonahiarekin eta mairuen handitasunarekin lotzen duen guztia ahanzterik balego ere, hala herri honen gaurko egoera, nola Espainiako jendearen ohiturak, izaera eta egoera ezagutzeko ikusmina, aski bailitzateke sentimendu biziki zirrargarri bat justifikatzeko” (Inglis 1831: I, 2).

[“It is impossible to enter any foreign country for the first time, without experiencing some mental excitement; and it seems to me, that among all the countries of Europe, Spain is the most calculated to awaken interest and expectation: for even if it were possible to forget all that links the history of Spain with Carthaginian enterprise, and Roman ambition, and Moorish grandeur, the present condition of the country, and the desire of gratifying curiosity, respecting the manners, character and condition of the Spanish people, would still be sufficient to justify a strong feeling of excitement” (Inglis 1831: I, 2)].

Espainiako jendearen ohiturek, izaerak eta egoerak, beraz, osatzen dute Inglisen interes nagusia. Idatzi zuen liburuaren izenak ere ikuspuntu hori islatzen du: *Spain in 1830*, 1831ean argitaratua izan zena. Urte horretarako bertze liburu batzuen egile dugu Inglis, nahiz eta ordu arte “Derwent Conway” goitizenez sinatu; *Espainia 1830ean* lana, berriz, benetako izenez sinatzea erabaki zuen, fikziozko liburua ez zela argi uzteko (Inglis 1831: I, vii). Izan ere, Inglis kazetari eta idazlea zen ogibidez eta bidaia-liburuak idazteaz gain, zenbait eleberri ere kaleratu zituen. Bramsen ez bezala, Inglis Cadizeraino joan zen eta, aldi berean, Bramsenek baino arrakasta handia izan du gure artean. Mikel Alberdik lerro batzuk dedikatzeaz gainera, Bilbori buruzko orriak euskaratu ere egin baititu, bizkaiera batura euskaratu, hain zuzen ere (Alberdi 2003: itzulpeneko, 135-146. orr.).

Espainia osoa ikusgai edo aztergai hartuta ere, euskal kontuetan arretatsu agertzen zaigu Inglis, eta Bramsen baino askoz baikorrago. Batzuetan, iduri luke Bramsenen liburua irakurri eta gezurtatzen ari dela. Euskaldunez soilik lehen tomoko lehen

kapituluan (eta bigarren kapituluaren lehen orrialdeetan) aritzen da. Zehazki erranda, Bizkaia edo *Biscay* (hala du izena lehen kapituluak) hartzen du mintzagai, eta izendapen horren barnean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia sartzen ditu: “Arabako eta Gipuzkoako probintzietan deitzen zaizkie bizkaitar probintziak, baina Benetako Bizkaia” mendien eta itsasoaren arteko lurraldera mugatzen da (Inglis 1831: I, 15). Nafarroaz eta Ipar Euskal Herriko euskaldunetz, ordea, ez du ezer erraten; alderantziz, muga pasatu bezain fite Espainia hasten da: “Bidasoa zeharkatu nuenean, banekien Espainian nengoela; eta gauza guztiek interes berri bat hartu zuten berehala” (Inglis 1831: I, 2). Kontua da, bada, erran bezala, jarrera baikorra erakusten duela Ingliseek. Irun ez omen zitzaion sobera gustatu; hala ere, “ez da egokia herri bat epaitzea bakarrik mugan dauden tokien arabera” (I, 2). Ostatuaren garbitasunari dagokionez, Tolosakoa ez zegoen hain gaizki eta otordua, oparoa izan gabe, jateko modukoa zen, mahaia garbia eta ongi paratua, eta zerbitzariak aktiboak eta artatsuak (I, 7); eta Durangoko ostatuan “garbitasunik zainduena ikusten zen gauza guztietan; ez zegoen afariari kritikarik egiterik; eta Frantziako ostatu hobereenetan arrotza den fintasun bat ikusi nuen bertan: labanak eta sardexkak aldatzen zizkiguten plater bakoitzarekin” (Inglis 1831: I, 15-16).

Ikuspegi baikor horrek hemengo ostatuaren aurkitutakoa isla dezake, noski, baina susmoa dut egilearen orijinala izateko asmoa ere erakusten duela. Penintsulako ostatuak toki txarrak eta ezin zikinagoak zirelako topikoari buelta eman nahian dabil aipaturiko lerroetan, eta idazleak berak erreferentzia egiten dio testuartekotasun horri, ostatuez istorio izugarriak entzunak zituela aipatuz Tolosakoari buruzko iritzi ona eman aurretik. Horretaz gain, hau da, gauzak begirada berri batez ikusteko gaitasuna erakustez gain, bere testurako sinesgarritasun handiagoa bereganatzen saiatzen ari da. Aurrekoen iritziak ilunegiak (edo onegiak, berdin da) izan direla nabarmentzean, gureak – apalagoak diren heinean– askoz egokiagoak eta, hortaz, sinesteko modukoagoak direla ere azpimarratzen dugu. Estrategia erretorikoa da, azken batean, gure testua orekatua eta, ondorioz, egitua dela frogatzeko. Inglis horretan dabilela erranen nuke nik. Dena den, kritikarako ere bada tokirik eta Bilbori buruzko iritzia ez da hain ona:

“Bilboko kokapena itzela dela esan badut ere, ez da Bilbo goraiagarria bere edertasunagatik edo garbitasunagatik. Bertoko usainak sano txarrak dira. Hain mendi barruan egonik eta itsasoaren bidea ia itxita izanik, ez dut uste Bilbo sano hiri osasuntsua izan daitekeenik” (Inglis 1831: I, 20; Mikel Alberdiren itzulpena)¹⁹.

¹⁹ Mikel Alberdiren itzulpenetan aldaketa txiki batzuk egin ditut.

“I have already spoken of the situation of Bilbao, as striking and beautiful, but the town itself is not remarkable for its beauty or cleanliness; the smells are most offensive; and lying as it does in so deep a basin among the mountains, which even shut it out from the sea, I can scarcely think Bilbao a healthy city” (Inglis 1831: I, 20).

Bramsenek bezala, Inglise ere Bilbo deskribatzen du xehetasun handi samarrez, eta deskripzio horretan bada lekuri pasadizo irrigarriren baterako. Hona hemen, adibidez, nola egin zuen topo, taberna batean, mus jokoarekin:

“Bilbon egon nintzen iluntze guztietan ordu erdi igarotzen nuen Suitzar kafetegian, Bilbon dagoenik eta bakarra. Sano entretenigarria iritzi nion han ikusi nuen gauza bati. Sartu nintzenez, lau gizon zebiltzan karta-jokoan, mahai batean jarrita. Hasieran ez nituen erreparatu baina konturatu barik, kafea hartzen nengoela, begiratu egin nituen. Euretariko bat keinuak egiten ari zen, begi bat itxita eta mihia ateratzen. Beste bat begi biak okertzen ikusi nuen eta beheko ezpaina kanporantz ateratzen. Geroago konturatu nintzen, jokoak aurrera egin ahala, etengabeko aurpegi-keinuak zirela. Ezin dut hitzekin azaldu aurpegi arraro, barregarri eta lotsagarri haiek. Harriduraren harriduraz, mutu geratu nintzen hasieran, gero barrez errementatu beharrean eta denbora guztian hain ikuskizun bitxi eta barregarriren esanahia jakinguran. Bizkaiko joko bat zen, mus izenekoa. Karta bakoitzeko aurpegi-keinu bat egiten da, kartaren balioa adierazteko. Joko honetan, kontua da, ze jokalarik daukan abilezia gehiago eskuko karten edukia keinuekin adierazteko bere kideari. Bizkaiko jokorik zabalduena da eta itxura denez, bizitza osoan aritu behar da musean sano ona izateko. Nik esango nuke, aurpegi-keinuak egiteko trebezia ere behar dela” (Inglis 1831: I, 37-38; Mikel Alberdiren itzulpena).

[“Every evening while I remained in Bilbao, I spent half an hour in the Swiss Coffee-house - the only one in the town; and one evening, I was very much amused by a very curious scene I witnessed there. Four gentlemen were seated at a card-table when I entered the coffee-house, and at first I paid no particular attention to them; but accidentally resting my eye upon them while sipping my coffee, I was surprised to see one of the players shut one eye, and at the same time thrust his tongue out of his mouth; from him, my eyes wandered to another, who at the same moment squinted with both eyes, and thrust forward his under-lip: I now saw that it was a constant succession of face-making, while all the while the game went on. It is impossible to describe the strange, ludicrous, and hideous faces of the players; I was at first dumb with astonishment, and then convulsed with laughter, and all the while dying with curiosity to know the reason of so grotesque an exhibition. It was a Biscayan game, called mus; – answering to each card there is a particular contortion of the face, which interprets its value; and the point of the game consists in the dexterity with which partners are able to convey to each other by grimaces, the state of each other's hand. This is a favourite game in Biscay, but it is said to require a lifetime to become an expert in it: I should think it requires also a natural gift of grimace” (Inglis 1831: I, 37-38)].

Horrekin batera (eta Bramsenek ez bezala), Inglise euskaldunen bereizgarri batzuk ere nabaritu zituen. Ohar bitxiena, beharbada, emakumeei dagokie. Gasteizko andreez ez zuen ezer erran nahi, Madrilera ailegatu arte itxoin nahiago baitzuen, Espainiako emakumeez iritzi bat botatzeko. Ez zuen halako arazorik, berriz, Bilbokoez aritzeko (“Emakume eder gutxi ikusi nituen Bilbon eta eleganteak, gutxiago oraindik”, –Inglis 1831: I, 22; Mikel Alberdiren itzulpena–). Izan ere, hori Bilboko emakumeez erraten ahal da, zeren “Bizkaiko biztanleak aparteko arraza izanik”, iritzi horrek ez baititu zertan ukitu edota ukatu Espainiako emakumeen “izaera eta merezimenduak” (I, 22).

Bizkaiko “pribilegioez” ere badu zer kontatu Inglisek, eta baita euskal (edo bizkaitar) izaeraz ere:

“Bizkaitarrari gogorra dela nabaritzen zaio. Bizkaitarren eta andaluziarren arteko desberdintasunak handiak dira, bizi ere, Espainiako muturreko puntetan bizi dira eta. Andaluziarrak, ilunak, altuak, artezak eta lirainak dira; dotorea da beti euron itxura. Jakin badakite ederrak eta erakargarriak direla eta horretaz harro sentitzen direla antzematen zaie euron itxuretan eta aurpegietan. Bizkaitarrak, zabalak, gihartsuak eta latzak direla ikus daiteke euron itxurei eta egitekoei erreparatuz gero. Askatasuna sentitzen dutela nabari zaie, eta ez bakar batzuei guztiei baino. Izan ere, euron buruak bizkaitar sentitzeak ematen dien duintasunetik datorkie gogortasun hori, bizkaitar izanik, beste inork ez dituen eskubide bereziak oinordetu dituztela dakitelako” (Inglis 1831: I, 21; Mikel Alberdiren itzulpena).

[“The Biscayan deserves the character of strength, that has been given to him; and the contrast between the Biscayan, and the Andalusian peasant, who inhabit the two extremes of Spain, is remarkable: the latter, dark, tall, upright, slim, with something of elegance in his appearance; and the look of pride generally visible in his air and countenance, seeming to have some reference to his personal attractions: the Biscayan, broad, athletic, lounging, with something of peculiar roughness in his look and manner; and his expression of blunt independence, having no reference to himself individually, but arising from the knowledge that he is a Biscayan, and as such, the hereditary possessor of peculiar and exclusive rights” (Inglis 1831: I, 21)].

Bere lehen kapitulu horretan, Inglisek nahiko ongi laburbiltzen du bidaiari askoren harremana Euskal Herriarekin: “*Biscay*”-ko hiru probintzietara mugatua, Espainiako ikuspegi orokor baten barnean kokatua, euskal bereizgarri batzuekiko arretatsua. Bibotik Cadizeraino (Espainiako muturreko bi puntak) espainiar izaeraren aldaerak hedatzen dira. Erran bezala, bidaiari asko ildo honetatik joango dira 19. mendean zehar. Hala ere, Euskal Herria ikusteko modu gehiago ere aurkitzen ditugu mende horretan.

3. *Euskal Herri exotikoa: Prosper de Lagarde.*

Politika zen John Bramsenen eta Henry David Inglisen bidaietako ardura. Suediarraren kasuan, ardura nagusia, Espainiako egoera politikoaren berri eman ahal izateko etorri baitzen Euskal Herrira. Ingelesaren kasuan, politika haren kezketako bat baizik ez zen. Hala ere, egoera politikoaren inguruko zertzelada batzuk ere eman zituen: Bilbon, adibidez, iritzi ilustratuak aurkitu bazituen ere, Bizkaian jende anitz erlijioaren eraginpean zegoela nabarmendu zuen (Inglis 1831: I, 23). Horretaz gain, bigarren edizioa, 1837an agertua, sarrera berri batez hornitu zuen, eta bertan Espainiako egoera politikoaz aritu zen²⁰.

Bien helburua Espainia izanik, biek Hego Euskal Herria dute mintzagai eta bie bereziki Bilbo eta Gasteiz interesatu omen zitzaizkien (Bilbo batez ere). Biak, gainera, idazle trebeak ziren, kulturaz ongi jantziak, ironiaz baliatzen eta ñabardurak adierazten ongi zekitenak. Ez dakit bidaiari profesionalak ote ziren; Ingliseak, bederen, lan egiten zuen bidaiatzean (Alberdi 2003: 120).

Alderdi horiei guztiei dagokienez, Prosper de Lagarde-ren kasua erabat kontrakoa da. Lehenik eta behin, politikak axola gutxi zuen berarentzat, batere ez zuenik ez errateagatik. Liburua, *Voyage dans le Pays Basque et aux bains de Biarritz* izenekoa, 1835ean argitaratu zuen, eta bidaia, 1834an egin. Mugaren alde honetan lehen karlistaldia jada hasia zegoen garaian, alegia. Gerla horrek, alabaina, ez zuen sobera kezkatu edo erakarri, nonbait. Izan ere (eta hau da aurreko bi idazleekiko bigarren ezberdintasuna), Ipar Euskal Herrira egin zuen bidaia, eta Hegoaldean bakarrik Irun eta Hondarribia bisitatu zituen.

Prosper de Lagarde ere kultura zabaleko bidaiaria dugu eta, zalantzarik gabe, plazerrez bidaiatzen zuena. Hala adierazten du berak ere. Baionan ez omen zioten Espainian sartzeko baimena eman nahi, gerla zela eta. Behobiako poliziak, ordea, ulertu zuen “ni nintzela Sternekin *bidaiari laxo eta ikusbera* bezala sailkatzen dituen bidaiari horietako bat” eta, ondorioz, muga zeharkatzen utzi zion (Lagarde 1835: 117; jatorrizko testuan azpimarratua).

²⁰ Lehen edizioa erabili dut nik, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioan dagoena. Mikel Alberdik bigarren edizioa, 1837koa, erabili zuen bere artikulurako, eta bertan orrialde batzuen faksimila dakartza (Alberdi 2003: 147-159). Lehen orrialdea Inglisen liburuaren azalekoa da, non agertzen baita liburuak baduela sarrera bat “on the present political state of the peninsula”.

Lagardek, zer bidaiari mota den aditzera emateko, Laurence Sterne dakar hizpidera, *A sentimental journey through France and Italy* liburuaren egilea eta 18. mendean bizi zena. Ez da bere liburuan aurkitzen dugun aipamen literario bakarra. Hasieran (15. orrian, hain zuzen) berriz ere agertzen da Sterne, oraingo honetan bertze idazle batzuekin batera: Voisenon-go abadeari, Voltaire-ren adiskidea zenari, ez zitzaion Frantziako hegoaldea gehiegi gustatzen; Madame de Motteville-k, ordea, Frantziako Luis XIV.aren gortean zegoenak, bazekien eskualde horretako alde onak balioesten. Modu horretan, Lagardek goi-mailako bidaiarien tradizio baten barnean kokatzen ditu bere liburua eta bere bidaia. Kultura zabal eta finekoa izanik, hegoaldeak (gorteko heziketa eta etiketatik urrun dagoen esparruak, alegia) eskaintzen dituen edertasun naturalak prezatzeke gauza ere badela erakutsi nahi du. Miarritzen, adibidez, itsasora begira, paristarrez urrikaltzen da. Haiek Luis XIV.aren Versailles-eko edertasuna baino ezin dezaketelako gozatu, Miarritzeko kostaldearen ikuspegi miresgarria bazter utzita (Lagarde 1835: 81). Beraz, Lagarderen *Voyage dans le Pays Basque* bidaia, bidaia literarioa da, alde batetik, eta, bertze aldetik, hegoalderako bidaia, Parisko zibilizaziotik urrundu eta hegoaldeko naturaltasunera eta benetakotasunera hurbiltzen gaituen bidaia.

Hegoaldeko herrietan, naturarekin batera, jendea dago: iparrean baino irekiagoak eta hurbilagoak, beti solas eta txantxak egiteko prest. Izan ere, hegoaldean merezi du zalgurdi publikoan joatea, bertako gizakiek eskaintzen duten interesarengatik:

“Hori egia da bereziki hegoaldeari dagokionez: han jendea eskuarki iparrean baino berritsuagoa da, ateraldi bati bertze batek segidan jarraitzen dio, txantxak eta izkirimiriak ia etengabekoak dira, eta, ondorioz, landu beharreko zelaiak uzta oparoagoa eta errazagoa agintzen du” (Lagarde 1835: 14).

[“Cela est vrai surtout pour le midi où l’on est en général plus expansif que dans le nord, où une saillie n’attend jamais l’autre, où la plaisanterie et le bon mot sont presque en permanence, et où, par conséquent, le champ de l’observation promet une récolte plus abondante et plus facile” (Lagarde 1835: 14)].

Jendea ikustera etorri zen Lagarde, eta bere bidaia hegoaldera ez ezik, ezezagunerantz ere bada. Pirinioetan zehar ordu arte eginak zituen bidaietan, Paue izan zen mendebaldeko muga, ez zen inoiz haratago joan. Zoritxarrez, dio Lagardek, ez dago Paez eta inguruko eskualdeaz deus berririk idazterik. Ondorioz, Pauetik sartalderantz zeuden lurretara abiatzera deliberatu zuen, gauzaki berriak kausituko zituelakoan. Paueren inguruan biarnotarrak ziren, eta haien *patois*, “hegoaldeko gainerakoak bezala,

erdizka ulertzen nuen, latina eta italiara lagun”; baina handik hurbil, misterio handiagoak zeuden Lagarderen esperoan: “Euskaldunak ziren nik ikusi nahi nituenak” (Lagarde 1835: 29).

Gauzaki berriak ikusi nahi zituen, inork deskribatu ez zituenak, toki ezezagunak, jende misteriotsuak, hizkuntza ulertezinak, zenbat eta arrotzago, hainbat eta hobe. Horregatik, euskaldunak ezagutu ez ezik, euskara aditu ere nahi zuen:

“Argi dago indiar irokesena edo mohikanoena bezain hizkuntza barrokoa izan behar zuela. A ze gustu jende basati hauen artean egon ahal izatea, Frantziatik atera ere egin gabe! Benetan egia da arrotza eta ezezaguna denak baduela zerbait, gure desirak pizten dituen eta gure irudimena xarmatzen duena! Hala izanik, atsegin handiz sartu nintzen Baionara eraman behar ninduen kotxean” (Lagarde 1835: 31-32).

[“Évidemment ce devait être une langue aussi baroque pour le moins que celle des Iroquois ou des Mohicans. Quel plaisir d’être au milieu de ces sauvages sans sortir de France! Tant il est vrai que l’étrange et l’inconnu ont quelque chose qui excite toujours nos désirs et séduit notre imagination! Aussi est-ce avec un véritable plaisir que je montai en voiture pour me diriger vers Bayonne” (Lagarde 1835: 31-32)].

Arrotzak eta ezezaguna denak erakarrita, abenturazale edota esploratzaile gisa aurkezten digu bere burua Lagardek. Esploratzaile etxezulo gisa, gaineratzen ahal da, etxean bertan baitaude (“Frantziatik atera ere egin gabe!”) zirrara hainbertze pizten zioten “basatiak”. Bisita egin eta haien misterioak ezagutzeko ez dago ibai zabalak igaro edota mendi elurtsuak igo beharrik, aski da lasai-lasai zalgurdia hartu eta Baionarantz abiatzea. Arroztasuna bidaiariaren begietan baitago, diskurtsoaren emaitza bat da: “eta, gainera, ze izen miresgarriak! Nire mapan ikusten nituen, adibidez, ibaiei dagokienez, “Aringaston”, “Houabea”, “Uhaitshandia”, “Arangoroné”, “Gambouri”, eta mendiei dagokienez: “Handiamendi”, “Erostate”, “Ahunsbide”, “Altobiscar”, “Igoustabeguy”, etc., etc.” (Lagarde 1835: 31).

Lagardereendako, euskaldunen erakargarritasuna erabat ezberdinak izatean zetzan, eta arroztasunarekiko lilura hori muturreraino eraman zuen. Lehanago aipatu dut euskara entzun nahi zuela. Aldi berean, Biarnoko mintzaira konprenitzeko latin eta italiararen bitartez moldatzen zela ere komentatu dut. Euskararen kasuan, Lagarde ziur dago ez duela tutik ere ulertuko eta hori da preseski helburua, hizkuntza ez ulertzea hain zuzen, hori baita euskararen xarma guztia:

“Euskaraz mintzatzen entzuteko irrikaz nintzen, alde zurretik ziur egon arren, edo hain zuzen horregatik, ez nuela hitz bakar bat ere ulertuko hizkuntza horretaz” (Lagarde 1835: 29-31).

“Il me tardait d’entendre parler basque, tout sûr que j’étais d’avance, et par cela même, de ne pouvoir saisir un mot de cette langue” (Lagarde 1835: 29-31).

Azkenean, bere desira betetzeko parada izan zuen Ziburuko elizan:

“Ziburuko elizako dorreak Txinako eraikuntzak dakartza gogora, eta urrundik pagodatzat har genezake, goian burdinazko gurutze ttipi bat izanen ez balu. Berezitasun horrek erakarrita, bisitatzera sartu nintzen. Apez gazte bat katekesia irakasten ari zen. Denboraldi batez gelditu nintzen aditzen. Bertan, lasai eta euskara garbi batean hitz egiten entzuteko atsegina izan nuen lehendabiziko aldiz. Bertze aldetik, entzuteko bezain atsegin handia izan nuen hitz bakar bat ere ez ulertzekoa, “sacramen” hitza izan ezik, maiz errepikatua izan zena. Dena den, ezin izan nintzen luzaro egon. Neska eta mutiko txiki guztiak arras asaldatuak baitziren gizon arrotz bat ikusiz, Ziburuko elizan oso gutxitan baino jazotzen ez dena” (Lagarde 1835: 102-103).

“Le clocher de l’église de Siboure a quelque chose des constructions chinoises, et de loin on pourrait le prendre pour une pagode, si ce n’était la petite croix de fer qui le surmonte. Attiré par cette singularité j’y entrai pour la visiter. Un jeune prêtre faisait le catéchisme. Je m’arrêtai quelque temps à l’écouter. Là j’eus pour la première fois la satisfaction après laquelle j’aspirais, d’entendre parler le basque posément et avec pureté. J’eus d’ailleurs le plaisir non moins grand de n’y pas comprendre un seul mot, à l’exception du mot de sacrement (sacramèn), qui revenait assez souvent. Au reste, je ne pus y faire une longue séance. Tous ces petits garçons et petites filles étaient fort préoccupés de l’apparition d’un étranger, ce qui est un rare événement dans l’église de Siboure” (Lagarde 1835: 102-103).

Eta apezaren betebeharra gehiago ez oztopatzeagatik, atera egin zen elizatik. Euskaldunen mintzaira ulergaitza, beraz, aditzea lortu zuen, non eta eliza batean. Eszenaren (agian nahigabeko) sinbolismoa egokia da arras, eremu sakratu batean ikustera ematen baitzaio misterioa. Bertze aldetik, interesgarria da haurren urduritasuna nabarmendu izana. Lagarderen testuan, horrek adierazten baitu kanpoko jende gutxi sartua zela Ziburuko eliza hartan, eta bera, hortaz, ordu arte gutik ikusi zutena, ikusten ari zela.

Esploratzaile eta abenturazale irudi horren zerbitzura paratzen du Hegoaldeko gerla karlista ere. Lagardek Lapurdiko kostaldetik egin zuen bere bidaia, Baionatik abiatu eta

mugaraino. Lehenago erran dudanez, muga zeharkatu eta denboraldi batez Irunen eta Hondarribian egon zen. Egoera politikoak ardurarik ez zionez gero, karlistaldia, batik bat, arriskuaren sinonimoa zen bidaiari honendako. Tokiko gida batek lagundurik, Irungo inguruak ikustera atera zelarik, hamabi bat soldadu liberalekin topo egin zuen, “eta *litekeena* da ni Don Carlosen zelataritzat hartu izana, hori baitzen garai hartako kezka bakarra”. Azkenean, Lagarderen gidak soldaduak konbentzitu zituen ez zela zelatari karlista bat, frantziar bidaiari bat baizik, eta arratsalde horretan bertan Baionara itzuli behar zuela (Lagarde 1835: 176-178; nik azpimarratua). Urruti joan gabe exotismorik xarmangarriena aurkitzerik dagoen bezala, benetako arriskurik gabeko abentura arriskutsuak bizitzea ere posible da. Don Carlos zelataritzat balizko hartze horrek ziurtatzen du Lagarderen abenturazaleatasuna. Afrikara joan gabe istorio pizgarriak bizitzea posible delako ziurtagiri erabatekoa da.

Agian ondorio batzuk ateratzen ahal ditugu jada. Legarderen ikuspegitik, bada eremu zabal bat, “hegoaldea” (Frantziakoa, batez ere, baina ez soilik), desberdina delako erakargarria dena. Hala ere, eremu hori askok ibilia da, bertan zeharkako bidaiak, hamaika aldiz kontatuak, eta bertako dialektoak, ulergarriak. Alabaina, eremu horren ertz batean euskaldunak daude, erabat ezezagunak, zeharo exotikoak, guztiz “guz ez-bezalakoak” direnak. Arroztasun neurri berri horren bila abiatu zen Lagarde eta kausitu ere kausitu zuen: bere bidaia Ziburuko elizan iristen da gailurrera, euskara aditzean.

Euskaldun guztiak exotikoak izanda ere, arrisku fisikoa mugaz bestaldean hasten da (soldadu taldearekin topatzearen istorioak frogatzen duenez). Bertze modu batean erranda, hegoaldeagora joan ahala, lanjerra handitu egiten da. Baina, mugari garrantzi hori (Frantziako eta Espainiako euskaldunak ez direla erabat berdin, alegia) aitortuta, Lagardek (Humboldték bezala) mugaz bi aldeetakoak euskaldunak direla baieztatzen du: “Euskaldunek, zazpi-zortziehun mila direnak (Espainiako euskaldunak sartuta), gure arreta merezi duen aparteko herri bat osatzen dute” (Lagarde 1835: 40). Eta, Lagarderen ustez, arreta hori hizkuntzagatik merezi dute. Izan ere, behin baino gehiagotan euskara hizkuntza bat eta ez dialekto bat dela defendatzen du (Lagarde 1835: 31); gogora dezagun Biarnoko mintzaira *patois* bat dela erraten duela.

Hein batean, uste dut Lagardek Frantziatiko begirada bat ordezkatzeko duela, Inglisek Espainiatikoa ordezkatzeko ahal duen bezala. Nahiko normala zen, 19. mendean, Ipar Euskal Herrira zihoazenek gogoan edukitzea mugaz bertze aldean ere bazirela euskaldunak. Kontrakoa baino normalagoa, bederen. Horrekin batera, Lagarderen

begirada exotizatzaile edo exotiko-bihurtzaile (hitzok asmatzea zilegi bazait) ohikoa da frantziar bidaiarien artean. Txanpon bereko bi aldeak dira. Lagarderen ikuspegia, ikuspegi kulturala da. Horri esker, Euskal Herria bere osotasunean hartzen ahal du, baina, bertze aldetik, Euskal Herria erabat ezberdina den zerbait bilakatzen du. Zentzu horretan, euskararekiko jarrera guztiz argigarria da, nire ustez. Euskara dialektorik ez, eta hizkuntza dela argi eta garbi erran arren, hizkuntza horren balioa misteriotsua izatean (ez komunikazio tresna izatean) baitatza Lagarderen ustez.

Dena den, Lagardek bere bidaia egin zuen garaian, karlistaldia piztua zen jada, eta gerlak begirada berriak erakarri zituen.

BIDAIARIAK LEHEN KARLISTALDIAN.

1. Europa Euskal Herriari begira.

Gaur egun gertatzen den bezala, 19. mendean ere maiz gerlei esker bihurtu zen ezagun toki baten kokalekua. Gatazkak dira anitzetan mapetan begiratzera behartzen gaituztenak herri bat non dagoen jabetzeko, eta hala gertatu zen Euskal Herrian ere karlistaldietan. 1833tik 1839ra arte iraun zuen lehen karlistaldia, izan ere, mapetan begiratzera ez ezik, asko Euskal Herrira joatera ere bultzatu zituen, gerlan parte hartzeko edo gerlaren berri emateko. Borrokatzera etorri zirenetan gehienak Don Carlosen alde agertu ziren, eta zerrenda luze bat osatzen dute: Charles Frederick Henningsen, Alexis Sabatier, Adolf Loning, Felix Lichnowsky, Wilhelm von Rahden, Alphonse Barrès du Molard, Hermann du Casse... Haiiek baino gutxiago izanda ere, Isabel II.aren aldeko batzuk ere izan ziren, Henry Wilkinson, Thomas Farr edo R. M. Felder bertzeak bertze. Izan ere, liburu ezagunenetariko baten egilea John Francis Bacon izan zen, liberala, karlisten aurkako. Hura, dena den, ez zen militarra, merkataria baizik, Bilbon negozioak zituena; gerlak Bizkaiko hiriburuan harrapatu zuen eta hiriak pairatu zituen setioen berri eman zuen bere liburuan. Kazetariak ere bi bandoen artean banatu ziren, batzuk karlisten alde (Edward Bell Stephens, Michael Burke Honan, Charles Lewis Gruneisen...), bertze batzuk liberalen alde (John Moore, *Little More* edo *Poco Más* goitizenez ezaguna zena). Kontuan hartu behar da, beti ere, hemen emandakoak izen gutxi batzuk baino ez direla (zerrenda luzeago baterako, ikus Bullón de Mendoza 1997).

Sei-zazpi urteko epean makina bat bidaiari ibili ziren euskal herrietan zehar. Hala ere, kantitatetik kalitatera pasatzen bagara, gauzak aldatu egiten dira pixka bat. Militarrak, espero daitekeenez, borroka egitera etorri ziren, eta kazetariak borroka horren informazioa biltzera. Batailak, garaipenak, porrotak, estrategiak, etsaiaren ankerkeria, norberaren armadaren ausardia... kontu horiek guztiak ziren gure bidaiariak nagusiki arduratzen zituztenak. Baina euskal kulturaren, euskaldunen eta euskararen inguruko komentarioak ere ez ditugu falta; agian hori ez da sobera harrigarria, soldadu

gehienak euskaldunak zirela jakinik. Ekintza militarrek kontatzera mugatzen den libururik ere bada, jakina, baina salbuespenak dira.

Beharbada komenigarria izanen da, hasi baino lehen, lehen karlistaldiaren zenbait xehetasun ematea, oso ezagunak izan arren. Gerla karlista 1833an piztu zen, Fernando VII.a hil eta ia berehala. Gerlarako azalezko zioa edo aitzakia formala erregearen ondorengotza izan zen, alegia Espainiako tronua nori zegokion, Fernandoren anaiari, Don Carlosi, edo zendutako erregearen hiru urteko alabari, Isabeli (1830ko urrian jaio zen). Eztabaida argudio juridikoetan oinarritu zen. Felipe V.a 18. mendearen hasieran errege bihurtu zenetik Lege Salikoa indarrean zegoen Espainian, Frantzian bezala. Lege horren arabera, erregearen gizonezko ahaideek lehentasuna zuten emakumezkoen gainetik, koroa jasotzeko. Horrek erran nahi zuen Fernandoren anaia hobestekoa zela bere ilobaren aitzinetik. Hala ere, bere hondarreko urteetan, Fernandok indargabetu egin zuen legea (1830ko apirilean), geroago berriz ezartzeko (1832ko udan) eta, azkenean, berriro deuseztatzeko (1832ko abenduan). Don Carlosen jarraitzaileek ez zuten indargabetze hura onartu, Lege Salikoa bezain lege garrantzitsua ezereztatzeko egin behar ziren urrats guztiak egin ez zirelakoan; Lege Salikoak, argudiatzen zuten karlistek, bere horretan jarraitzen zuen eta, ondorioz, tronua Don Carlosi zegokion. Isabelen defendatzaileek, espero zitekeenez, onesten zuten Lege Salikoa indargabetua izan zela eta, ondorioz, erregearen alabak erregina izan behar zuela zilegitasun osoz. Ondorengotza kontuetan eta hark zekartzan argudio juridiko guztietan oinarriturik, bai alde batekoek, bai bertzeoek, arrazoia izan uste bazuten ere, funtsezko eztabaida ez zen nork gobernatu behar zuen, nola gobernatu baizik. Karlistek monarkia tradizionala defendatzen zuen; Isabelen aldekoek edo giristinoek (printzesaren amak izena María Cristina zuenez gero, *crístinos* deitzen zitzairen haren jarraitzaileei, eta hortik *giristinoak* euskaraz) erreforma liberalak ezarri nahi zituzten.

Ikuspegi orokor horretan kokatu behar dugu euskaldunen parte hartzea. Hiriburuetan izan ezik, euskal eskualdeetako gehien jarrera karlisten aldekoa izan zen, Euskal Herria karlismoaren gotorleku nagusia bilakatzeraino. Egia da bertze tokietan ere karlismoak indar handia izan zuela, Katalunian edo Valentzian, adibidez, eta baita Gaztelan ere; izan ere bidaiari batek baino gehiagok azpimarratu zuen gaztelarren ausardia eta borrokarako prestasuna (Henningsen 1836: I, 38 eta 183; Du Casse 1840: 131). Baina Euskal Herrian iraun zuen gerlak luzeen, Euskal Herrian sortu zen karlisten buruzagi famatuena eta hemen sinatu zen gerlari bukaera emateko hitzarmena ere. Horrek guztiak bidariariak beren buruari galdera batzuk egitera bultzatzen zituen:

zergatik lortu zuen Don Carlosek hain babes handia euskaldunen artean? Erlijioaren alde borrokatzen ari zelako? Foruak defendatzen zituelako? Aipatu dut 18. mendean atzerritar askok euskal lurraldeak askatasun irla bat bezala ikusten zituztela espainiar monarkiaren barnean, batez ere sistema foralari esker; ondorioz, nola uler zitekeen euskaldunak Don Carlosen absolutismoaren alde agertu izana? Bertze modu batean adierazita, zeren alde ari ziren euskaldunak, Don Carlosen alde, foruen alde, erlijioaren alde, independentziaren alde? Oker ez banago, galdera horien guztien inguruan historialariak eztabaidatu eta erantzun egokiak ematen saiatu dira. Nire helburua hemen ez da galderoi ihardestea; hizpidera ekarri ditut bakarrik ohartarazteko galdera horiek ez direla berriak, gaurko historialariek asmatuak, baizik eta jada karlistaldiaren garaian bertan sortuak. Bidaiari anitzek beren buruari galdera horiek berberak egin zizkioten eta erantzunen bat aurkitzen saiatu ziren; bertze batzuen ikuspegia, berriz, zeharka agertzen zaigu, han-hemenka botatako iritzien arabera. Lehen gerla karlistan parte hartu zuten bidaiariek, beraz, gaur egun arte iraun zuen eztabaida bati hasiera eman zioten; 40ko hamarkadan etorri zirenek ere segitu zutena, heldu den kapituluan ikusiko dugunez (momentuz, lehen karlistaldiarekin zer ikusia duten bidaiariez ariko naiz). Baina interesatzen zaigun kontua da galdera horiek bidaiariak arreta euskaldunengan paratzera behartzen zituztela. Galderak gerlaren zergatikoari buruzkoak izanik, euskaldunei buruzkoak ere badira. Horrenbestez, erantzunen edukia interesgarria izan arren (eta bidaiari askoren gogoetak mamitsuak izateaz gainera, maiz Espainian posible ez ziren analisiak egiten zituzten atzerritar haiek), galdera egin izana bera funtsezkoa da, horrek Euskal Herria kokatzen baitu Europako begipean, eta ikusgarri bihurtzen.

2. Zumalakarregiren lilurapean: Charles Frederick Henningsen eta Alexis Sabatier.

Alfonso Bullón de Mendoza historialariak ohartarazi du karlistaldiarengatik etorritako bidaiari ugarien artean batzuk agertu ohi direla bibliografietan, eta bertze batzuk, ordea, ez, arrazoi berezirik gabe, nonbait. Zergatik Henningsen bai, eta Sabatier ez?, galdetzen du adibide gisa (Bullón de Mendoza 1997: 101). Henningsen Sabatier baino idazle askoz hobea zelako, izan daiteke erantzun bat. Badirudi horrela onartu zuela Henningsen-en garaiko publikoak ere. *Zumalakarregirekin egindako hamabi hilabeteko kanpaina bateko gertakaririk harrigarrienak* izeneko liburua 1836an argitaratu zuen ingelesez, eta berehala Europa osoan arrakasta lortu zuen: urte hartan

bertan agertu zen frantsesez, 1837an alemanezko itzulpena eman zen argitara eta 1838an italierazkoa. Espainian zati bat bakarrik itzuli zuten, 1839 urtean (eta espainolezko itzulpen hau berriz itzulia izan zen frantsesera 1887an). Liburu osoko gaztelaniazko itzulpena Román Oyarzun historialari karlistak prestatu eta 1935ean argitaratu zuen, Madrilen; bigarren edizioa 1939an kaleratua izan zen, Donostian, eta hirugarrena, Buenos Airesen, 1947an²¹.

Eskoziar bidaiari²² honen lanaren arrakasta ez da harritzekoa. Nahiz eta seiehun orri eduki, bi tomotan banatuak, bere estilo arinari esker liburuak ez da batere astuna: gertakariak elkarrekin ongi lotuz, ildo narratiboa trebetasunez osatzen du; gerlari estu-estu dagozkionak baino kontu gehiago ere sartzen ditu bere narrazioan; karlismoaren aldekoa izanagatik kritikak ere egiten ditu –ez du karlisten ankerkeria estaltzen, adibidez–; bera ez da inoiz harro agertzen (“bere liburuak mundu guztiaren merituak erakusten ditu, bereak izan ezik”, erran zuen Edward Bell Stephens-ek – 1837: II, 129) eta gainerakoengatik inguruko iritziak orekatu samarrak izaten dira...

Tio Tomas. Souvenirs d'un soldat de Charles V, Alexis Sabatierren liburuak, ordea, ez da hain eraginkorra edo, hobeki erranda, ez zait Henningsenena bezain eraginkorra iduritzen. Laburragoa da, beraz informazio gutxiago dauka, eta estiloaren aldetik ez dut uste eskoziarrarekin alderatzerik dagoenik. Irudipen pertsonala da, beti ere, baina esanguratsua da hurrengo urteetan ez zela liburu horren itzulpenik egin²³.

Hala eta guztiz ere, Bullón de Mendozaren galdera arrunt egokia da, zeren, erdietsi zuten arrakasta gorabehera, bi autoreek urte berean eta helburu berberarekin argitaratu baitzuten bakoitzak bere lana. Are gehiago, elkarren lagunak edo, gutxienez, ezagunak ziren. Alexis Sabatier behin baino gehiagotan aipatzen du “*mon ami Enningsen*”, eta beti haren ausardia ekintzaren batean azpimarratzeko (Sabatier 1836: 61-62, 87, 110). Henningsenek ere dio “frantziar bat, Sabatier izenekoa” maiz nabarmendu zela hainbat ekintzatan (Henningsen 1836: I, 243). Armada karlistako atzerritarrek elkar ezagutzea ohikoa omen zen. Haietako anitzek gaztelaniaz ongi bazekiten ere, ziur aski elkarrekin ibiltzeko joera zuten, baita etxera itzulitakoan bertzeen lanak irakurtzeko ere. Kasu batzuetan alde zuzenetik ezagutzea da litekeena. Hermann du Casse-k, Sabatierrek

²¹ Itzulpenei buruzko datuak Del Burgoren liburutik (1963: 52-54) hartu ditut. Sabatierri dagokionez, ikus 67-68. orriak.

²² Eskoziarra zen, deitura alemaniarra eduki arren. Bibliografia eta liburutegi katalogo batzuetan, ez dakit zergatik, *Carl-Ferdinand* Henningsen bezala agertzen da (hala deitzen dio Del Burgok, errate baterako), alemanezko itzulpenaz ez, ingelesezko liburuaz ari direlarik. Ez dakit zergatik izenaren alemanezko ordaina paratzen duten, eta hori paratuta, zergatik *Carl-Ferdinand* eta ez *Carl-Friedrich*. Nik erabili dudana liburuaren titulu-orrian *Charles Frederick* irakurtzen ahal da.

²³ Del Burgok (1963: 67-68), behinik behin, ez du bakar bat ere aipatzen.

bezala, “*mon ami Eniksel*” deitzen dio Henningseni, ingeles ortografia desitxuratzea muturreraino eramanda (Du Casse 1840: 42). Adibide pare bat gehiago emate aldera, Sabatierrek kontatzen du, muga zeharkatuta eta Don Carlos Donezteben ikusi eta gero, armada karlistan sartzeko asmoz, lagun batzuekin Elizondotik Ollora joan zela, han baitzegoen Zumalakarregi; bertara ilunabarrean ailegatuta, bakarrik Alphonse Barrès du Molard izeneko bati esker aurkitu ahal izan zuten lo egiteko toki bat. Jarraian, Barrès du Molard-en istorioa eskaintzean, hura “frantsesa eta, ni bezala, Ardèche departamendukoa” zela zehazten du Sabatierrek (Sabatier 1836: 22-23). Izan ere, ematen dituen datuen arabera, pentsatzen ahal da lehenagotik ezagutzen zutela elkar. Bere aldetik, Barrès du Molardek ere bere gerlako memorietan, aitzin-solasean, Henningsen eta Sabatierren liburuak aipatzen ditu (Barrès du Molard 1842: VIII).

Aipamen joko horretan hitzak ez ziren beti goxoak. John Francis Bacon liberalen aldeko idazleak, adibidez, Henningsenen baieztapen batzuk haserre gezurtatzen ditu aldi pare batez (Bacon 1838: 170-171 eta 243-244), eta Adolf Loning-ek Kräwinkel izeneko ofizial aleman batekiko azpijoko doilorretan ibili izana leporatzen dio Sabatierrri (Loning 1844: 295). Armada karlistako ofizial atzerritarrek sare moduko bat osatzen zutela ondorioztatzen ahal da, hainbat liburutan agertzen diren komentario, pasadizo eta anekdotek erakusten dutenez. Hala ere, iduri du Henningsen eta Sabatier benetan adiskideak zirela, edo gerlan benetan adiskidetu zirela. Horren froga honako pasarte hau dugu: Zangozan egonik, logela bereziki txarra, zikina eta kez betea, tokatu omen zitzaion eskoziarrari; gauzak horrela,

“Nire adiskide berezi baten bila abiatu nintzen, giden kapitaina zen baten bila; lehendik ere arrantxoak elkarrekin hartzen genuen, eta harekin afaltzeko eta, tokatzen zitzaion logela nirea baino hobea suertatuz gero, lo egiteko ohitura neukan” (Henningsen 1836: I, 283).

“I went in search of a particular friend of mine, a captain of guides, with whom I had formerly messed, and was in the habit of supping and sleeping if it chanced that his quarters were better than my own” (Henningsen 1836: I, 283).

Eszena honi dagokion pasartean Sabatierrek dio gau hartan *Enningsen* bere laguna ikustera joan zitzaiola (Sabatier 1836: 87); modu horretan, jakin dezakegu Sabatier zela Henningsenen “adiskide berezi” hura. Gerlako afarrietan ziur aski denbora izan zuten luze solas egiteko; interesgarria litzateke jakitea zertaz hitz egiten zuten, baita ea gerlatik joan eta gero gutunak elkarri igorri ote zizkioten ere. Interesgarria litzateke hori,

inoiz gerlaz idatzi eta kontatu beharrekoaz mintzatu behar izan baitzuten, biok egin zituzten liburuak hain dira elkarren antzekoak (batarena bertzearena baino hobea izan arren, arestian erran bezala).

Biek denboraldi bereko gertakizunak kontatzen dituzte (gerlaren hasieratik Zumalakarregi hil artekoak, guti goiti-beheiti), biek antzeko iritziak adierazten dituzte eta, batez ere, tesi berbera defendatzen dute biek, liburuen titulu bertan agerian dagoen tesia hain zuzen ere. Henningsenen liburuak izenburu hau dauka: *The most striking events of a twelvemonth's campaign with Zumalacarregui, in Navarre and the Basque provinces*, alegia *Zumalakarregirekin egindako hamabi hilabeteko kanpaina bateko gertakiririk harrigarrienak, Nafarroan eta euskal probintzietan*; Sabatierrek honelako titulua paratu zion bereari: *Tio Tomas. Souvenirs d'un soldat de Charles V*, edo euskaraz *Osaba Tomas. Carlos V.aren soldadu baten oroitzapenak*. Bietan titulu eta azpititulu egitura daukagu. Azpitituluetan osagai garrantzitsu bana dugu, dela gerlaren agertokia, eskoziarraren kasuan, dela erregegaia, frantziarrarenean; baina bi tituluetan pertsonai bat da nagusi: Zumalakarregi, “Osaba” Tomas.

Saarsfeld, Quesada, Valdés, Mina, Rodil... denak militar ospetsuak, eskarmentu handikoak, batzuk Ameriketara ibiliak, eta guztiek porrot egin zuten karlisten aurrean. Ematen zuen Espainiako armada erregularrak ezin zituela talde karlistak makurrarazi. Nola zitekeen artzain eta menditar basati bakar batzuek espainiar armada osoari aurre egitea? Nola zitekeen hori, are jeneral liberalen buletinek behin eta berriz baieztatzen zutenean karlistek amore emateko zorian zeudela? Zer gertatzen ari zen euskal probintzietan? Hura izan behar zen, nik uste, Europa osoan jendeak bere buruari egiten zion galdera; huraxe dugu, hain zuzen, Henningsen eta Sabatier erantzuten saiatu ziren galdera. Eta haxe beren erantzunaren mamia: karlistek lortu zituzten garaipenak lortu ahal izan zituzten haien artean adimen handiko jeneral bat zegoelako, egiazko jenio militarra, estima handikoa euskal jendearen artean eta soldaduek maitatua, estrategia egokiak antolatzen eta beharrezko aginduak ematen ez ezik borrokaren lehen lerroetan egoten ere zekiena: Zumalakarregi. Modu horretan, eskoziar eta frantziar idazleek ihardespene sinple eta ulerterraza eskaintzen zuten, gainera heroi erromantikoaren irudiarekin bat zetorrena (“hala sentimenduez eta izaeraz, nola janzkeraz eta portaeraz, Zumalakarregi beti iruditu zitzaidan antzinako mende bateko heroi bat”, dio Henningsenek –1836: I, 91): behar zen denboran eta tokian, behar ziren bertutez hornitutako behar zen gizonaren agerpenak argitzen zuen karlistaldiaren bilakaera. Ormaiztegiko jenerala da, beraz, protagonista erabatekoa istorio honetan. Sabatierri

Zumalakarregi ikuste hutsak hotzikara bat eragiten dio (Sabatier 1836: 23); Henningsenek, Don Carlosen eta Zumalakarregiren artean, argi dauka nor hautatu:

“Karlistekin eta Zumalakarregirekin bat egin nuenean, hark Erreginaren tropen esetsalditik trebeki ihes egiten eta kolpe ausart batzuk ematen jakin izan zuenaren gerrilla buruzagi baten ospea zuen; baina, Pirinioez bestaldean orduan ematen zen deskripzioaren arabera, basati eta ezjakin irudikatzen nuen. Gogoan dut hasieran ezin nuela ulertu gizabanako batenganako erabateko atxikimendua, adiskidetasun pribatutik at; baina azkenean soldaduen sentimenduekin bat nentorren; eta hura bizi bitartean bukaeraraino jarraituko niokeen, onerako eta txarrerako, haren eskutik maitasun erakusgarririk jaso ez banitu ere. Jakina, *ni* Don Carlosen alde borrokatzera etorri nintzen. Eta nire aurreiritziak jeneralaren kontrakoak ziren, aldekoak baino gehiago, baina hilabete gutxiko denboraldi laburrean, Don Carlosek bere kausari uko egin balio, ni gelditu egingen nintzatekeen Zumalakarregiri jarraitzeko” (Henningsen 1836: I, 101-102; jatorrizko testuan azpimarratua).

[“I joined the Carlists and Zumalacarregui when he had nothing but the reputation of a guerrilla chief, who had skilfully baffled the pursuit of the Queen’s troops, and struck a few daring blows, but whom, from the description then given on the other side of the Pyrenees, I expected to find ferocious and ignorant. I remember at first my total inability to comprehend enthusiastic attachment, independent of private friendship, to any individual; but I ended by sharing entirely the feelings of the soldiers; and so long as he lived, in success or adversity, I would have followed him to the end, even if I had experienced no acts of kindness at his hands. It was of course for Don Carlos *I* had come to fight. I had been rather prejudiced against than in favour of his General, yet, in the brief space of a few months, if Don Carlos had abandoned his own cause, I should have remained to follow Zumalacarregui” (Henningsen 1836: I, 101-102; jatorrizko testuan azpimarratua)].

Ikuspegi horretan, dena den, euskaldunak bigarren mailako kontua dira. Zumalakarregik, izan ere, espainiar bertuteak gorpuzten ditu. Sabatierrek “Cid nafarra”, “*le Cid navarrais*”, deitzen dio (Sabatier 1836: 15), eta Henningsenek “*the modern Cid*”, “Cid modernoa” alegia (Henningsen 1836: I, 86), karlistaldia Espainiako birkonkistaren historiarekin lotzeko. Hala ere, bertze ohar interesgarri batzuk ere badira.

Sabatierrek hasiera ematen dio bere liburuari Nafarroako laudorio baten bitartez. Bertan, nafarrak printzea ez ezik, foruak ere defendatzen ari zirela aditzera ematen du, eta honako hau gaineratzen du:

“Gernikako haritzaren azpian, haren adar zaharren itzalpean egiazko Jaungoikoaren aldare bat dagoelarik, berak [Carlos V.ak] zure pribilegioak mantentzeko zin egiten du, eta zuk bizitza eta heriotzako leialtasuna zin egiten diozu. Zin bikoitz honen gainera, apezaren bedeinkapenekin batera,

Jaungoikoaren bedeinkapenak jaisten dira. Nafarroa! munduari jakin duzu erakusten zer den herri bat, eta zure Erregeak irakatsi dio zer den Errege bat” (Sabatier 1836: xii).

[“Sous le chêne de Guernica, ombrageant de ses antiques branches un autel du vrai Dieu, il jure de maintenir tes privilèges, et toi, tu lui jures fidélité à la vie et à la mort. Sur ce double serment, descendent, avec les bénédictions du prêtre, le bénédictions de Dieu. Navarre! tu as su montrer au monde ce que c’est qu’un peuple, et ton Roi lui a appris ce que c’est qu’un Roi” (Sabatier 1836: xii)].

Don Carlosek Nafarroako foruak zin egiten Gernikako arbolaren azpian... Argazki polita. Estatu nafarraren teoriarako etekinak aterako lizkiokeenik bada ere, nik irudipena dut Sabatierrek, alde batetik, geografía nahasia zuela buruan (momentu batean gaztigatzen digu “Lesakara, Gipuzkoako herri txiki batera” iritsia zela – 1836: 144), eta bertze aldetik, bidaiari askok bezala, uste zuela foruak euskal foruak zirela, orokorrean, eta ez lurraldez lurraldeko foruak; horrenbestez, euskal foru guztien zina lekurik ospetsuenean egin behar zen, nahitaez. Sabatierren nahasmenaren muinean, horratik, intuizio interesgarri bat usnatzen ahal da: (hegoaldeko) euskaldun guztiak baturik ikusten ditu. Izan ere, bi aldiz mintzatzen zaigu “lau euskal probintziez” edo, jatorrizko bertsioan, “*les quatre provinces bascongades*” (Sabatier 1836: 26 eta 132).

Henningsenek ohartarazten du Frantziako euskaldunek bazutela “Don Carlosen aldeko interes sakon” bat, gerlak kontrabandoa errazten zuelako, baina batez ere “beren Espainiako anaiekiko hurbiltasun sentimendu batengatik” (Henningsen 1836: I, 129). Henningsen Sabatier baino hobeki dabil foruei dagokienez. Nafarroakoen deskripzio labur bat egiten du, gaineratzeko “Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako probintziek antzeko foruez gozatzen dutela”. Are gehiago, dio Henningsenek, hiru probintzia horietan Espainiako erregea ez da errege, jaun baizik; hori dela eta, lurralde horietako soldadu karlistek “Gora gure Jauna!” edo “Gura Erregea, gure Jauna!” oihukatzen dute, “Gora gure Erregea!” oihukatu beharrean. Hala ere, horrek ez du erran nahi euskaldunak soilik edo nagusiki foruen alde egiten ari direnik:

“Horrelako kontuetan oinarrituta, kazetariak aspalditik irakurleei serio-serio erran diete matxinoak hain irmoki eta hain arrakasta handiz beren eskubide eta foruen alde borrokatzen ari direla, eta ez Carlos V.aren alde edo erregezaletasunetik hurbil zitekeen sentimendu batengatik. Horrek egiatan zentzuzko eta posible iduri du; baina, izatez, ez dirudi horrek soldadu gehienak akuilatzen dituenik borrokan are kemen handiagoa jartzera, ezta bururatu zaienik ere, nahiz eta egia izan probintzietako pribilegio hauek moztuak izateko zorian zeudela. Armak zeramatzen hogeitik batek ere ez daki “foruak” hitzak zer erran nahi duen, agian belarriari arrotz gertatu ez arren. Kontu

honen gaineko informazioren baten bila, hamaika aldiz itaundu nien soldaduei erantzun doi-doi egoki bat lortu aurretik; eta zeren alde ari ziren galdetuta, arrapostua beti izaten zen: “Carlos V.aren alde” edo “Erregearen alde” (Henningsen 1836: I, 70-71).

[“Founding their ideas, most probably, on this and similar circumstances, the journalists have long gravely told the public that the insurgents fight with such determination and success, nor for the cause of Charles V., or from any feeling approaching to royalism, but for their own rights and fueros. This certainly seems highly plausible and probable; yet, in fact, with the immense majority, this neither seems an additional incentive to their zeal, nor appears even to have struck them at all, although the provinces were certainly on the point of having these privileges curtailed. Of those now carrying arms, not one in twenty knows even the signification of the word fueros, although it may be familiar to his ear. When I was anxious to obtain some information on this subject, I interrogated the soldiers many times before I could obtain an answer in the least satisfactory; and on asking what they were fighting for, they invariably replied, ‘For Charles V’, or, ‘For the King!’” (Henningsen 1836: I, 70-71)].

Henningsenen ustetan, hortaz, foruen defentsak ez zuen garrantzirik batere euskaldunek Don Carlosen bandera hartzera bultzatzeko orduan; alderantziz, erlijioa eta monarkiarekiko maitasuna izan ziren sentimendu nagusiak. Datorren atalean kontu horretaz berriz arituko banaiz ere, azpimarratu nahi nuke eskoziarra ez dela jarrera hori defendatzen duen bidaiari “karlistazale” bakarra. Alphonse Barrès du Molardek modu ezin argiagoan ukatzen zuen foruak gerla piztearekin zerikusirik izan zutenik (Barrès du Molard 1842: 5-6) eta gauza bera adierazten zuen Hermann du Cassek, zeinak, Henningsenek bezala, ez baitzuen inoiz “foruak” hitza aditu soldaduen artean (Du Casse 1840: 21). Wilhelm von Rahden alemaniarrek, gerla hasi baino lehen foruekiko kezka euskaldunen artean pisu ez nolana hikia izan zuela erran ondoren (Rahden 1851: 18-19), arestian aipatutako Henningsenen hitzak errepikatu zituen, edo zehazkiago erranda, jatorria adierazi gabe alemanierara itzultzen zituen, alegia plagiatu egin zituen.

Ikuspegi horrekin bat eginez, gauza bat azpimarratu zuen Henningsenek: gerla (bereziki) euskal lurretan garatzen ari bazen ere, Don Carlosen babesa jendearen artean ez zen Euskal Herrira murrizten, Espainia osoko babesa baitzuen, Espainia osoko herri xumea erregezale omen baitzen. Zentzu horretan, gaztelarren parte hartzea armada karlistan agerian uzten saiatzen da behin baino gehiagotan. Baina aldi berean ezberdintasunak ere badaki kontuan hartzen. “Nafarrek”, dio Henningsenek, “gainerako espainiarrak beren mendeko-kidetzat jotzen dituzte, beren herrikidetzat baino gehiago”

(Henningsen 1836: I, 50)²⁴; “*fellow-subjects*” eta “*fellow-countrymen*” dira Henningsen erabiltzen dituen esapideak. “*Fellow-countrymen*”, herri bat eta berakoak direnak; “*fellow-subjects*”, errege baten mendekoak, errege bera duen jendea. Eskoziar bidaiariaren arabera, ondorioz, nafarrek onartzen dute gainerako espainiarrekin monarkia baten barnean daudela, baina ez haiekin herri bat osatzen dutenik. Bertzalde, Nafarroa euskal herria da: “Bizkaia eta Gipuzkoa euskal probintzietako bere kideen antzera, nafarra ere antzinako herri baten hondarretako zati bat da” (Henningsen 1836: I, 65), eta herri horrek, dio Henningsenek, gaur egun arte eutsi dio bere hizkuntzari, “gaztelaniaz *Basquense* edo *Lengua Vascongada* deitzen den” horri (I, 65). Eskoziarrarendako hizkuntzak dirudi herritartasun ikur nagusia. Nafarroan hegoalderantz joan ahala “herri zahar baten itxura berezia” galtzen da emeki-emeki, harik eta Ebroko ertzetan arraza berri bat agertzen zaigun arte (Henningsen 1836: I, 66). Bertze leku batean dio Ingalaterran uste zabaldua dela soilik euskaldunek osatzen dutela Don Carlosen armada, “*Basque*” hitzaren ondoan honako zehaztasun hau emateko:

“Ingalaterran akats ohikoa da pentsatzea Don Carlosen armada soilik euskaldunek eratu dutela – bederen benetako euskaldunek, herri horren jatorrizko hizkuntza eta izaera berezia atxiki dituztenek. Haiek ez dute osatzen Nafarroako eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia probintzietako biztanleriaren heren bat ere; eta, izan ere, ez dira erregearen zutoihalen mendeko armadaren erdia” (Henningsen 1836: I, 67).

[“It is a common error in England to imagine that Don Carlos has been entirely supported by the Basques - at least the genuine Basques, who still retain the primitive tongue and distinguishing character of that people. These do not form one-third of the population of Navarre and of the three provinces of Guipuscoa, Alava, and Biscay; and do not, in fact, compose half the army now under the banners of the King” (Henningsen 1836: I, 67)].

Agian komenigarria izanen da karlistaldiak sortarazitako bi liburu hauek laburbiltzen hastea. Goian erran bezala, Sabatierrek eta Henningsenek nahiko modu simple batez azaltzen dute gerlaren ordu arteko garapena: Zumalakarregi da giltzarria karlisten arrakastak ulertzeko. Hori kenduta, gauza gutxi dauka Sabatierrek kontatzeko. Henningsenek, berriz, idazlan landuago bat utzi zigun, non teoria historiko moduko zerbait aditzera ematen baitu. Ideia arrotzak onartuz, Espainiako eliteak frantsestu egin ziren,; herri xumeak, berriz, betiko izaerari eutsi zion eta, ondorioz, monarkiko izaten

²⁴ “[B]ut beyond the limits of this tiny kingdom, the Navarrese looks rather on the other Spaniards as his fellow-subjects than his fellow-countrymen”, dio jatorrizko testuak.

jarraitzen zuen; herri xehe horrek, azkenik, behar zuen buruzagia Zumalakarregirengan aurkitu zuen. Horrenbestez, karlistak erlijio eta erregearen alde ari ziren borrokatzen, ez foruen alde. Ikuspegi orokor horretan, Henningsenek badu gaitasuna euskaldunei buruzko zenbait hitz eskaintzeko, foruak direla edo hizkuntza dela. Dagoeneko ikusi dugu zer nolako irudi eskaintzen duen: ipar eta hegoaldeko euskaldunen arteko elkartasunaz hitz bat, bertze hitz bat nafarren jarreraz Nafarroatik kanpokoekiko, hizkuntzaren garrantziaz bertze bat, “benetako” euskaldunez hondarreko bat... Helburu nagusia izan gabe, Zumalakarregiren itzalpean euskal gauzak ia ohartu gabe agertzen dira liburuaren orrialdeetan. Eta hurrengo bidaiariengan are toki handiagoa hartuko dute.

3. Euskaldunak, irlandarrak eta indioak.

John Francis Baconek alde liberaleko libururik beharbada famatuena idatzi zuen. Bilbon bizi zen merkatari ingelesa izaki, Baconek ez zuen armarik hartu baina gerla pairatu behar izan zuen. Bilboko bi setioak bizi zituen, 1835eko ekainekoa eta 1836. urtearen bukaerakoa, eta bien berri emateaz gain, gerla ia osoaren erretratu bat utzi zuen *Six Years in Biscay* izeneko liburuan. Liburuaren lehen bi kapituluak segidan itzuli ziren gaztelaniara, 1838an hain justu, baina bizkaitar batek egindako itzulpen goiztiar horrek gobernu liberalaren kontrako kritikak bazterrean utzi zituen. Zatikako eta zentsuraturiko bertsio hori Txertoa argitaletxeak berriz eman zuen argitara 1973an. Gaur egun itzulpen berri bat, liburu osokoa oraingo honetan, eskura dugu, José Ramón eta Mikel Urquijok prestatua eta Zumalakarregi museoak kaleratua (Bacon 1994). Bertzalde, itzulpen horri José Ramón Urquijok sarrera luze bat paratu dio (Urquijo 1994).

Bere ikuspegi liberaletik, Baconek uste zuen Isabel II.arekin Espainiak aurrera egingo zuela askatasun politikoaren bidean; hala ere, bide hori jada ibilia zen probintzia batzuetan, hain zuzen ere Euskal Herrian. 18. mendeaz geroztik ohikoa zenez, Baconen ustetan Foruek euskal eskualdetako askatasunak babesten zituzten, eta horregatik ez zezakeen ulertu euskaldun gehienek Don Carlosen alde aukeratu izana. Bereko irizten zion hautu horri, jada aske zirenek libre izateko bidea oztopatzen zirela penintsulako gainerako biztanleei:

“Hitz batean, euskal probintzietan biztanleak hiritar libreak diren bitartean, gainerako Espainian artalde bat baino ez, estututa eta jipoituta bere jabeen nahiaren arabera. Egoera horretaz unatuta,

Ebroz haratagoko probintziak saiatzen dira pixka bat igotzen nazioen mailan eta hara non euskal probintzietako beren anaiek bat egiten baitute beren zapaltzaileekin, klase pribilegiatuekin alegia, beren egoera hobetzeko ahalegin guztiak zanpatzeko – eta hori ez da, ez bidezkoa, ez eskuzabala” (Bacon 1838: 65)

[“[I]n a word, in the Basque provinces the inhabitants are free citizens, in the rest of Spain they are a mere flock, who are squeezed and beaten at the will of their masters. Tired of this state of things, the provinces beyond the Ebro attempt to raise themselves somewhat in the scale of nations, when behold! they find their favoured brethren of the Basque provinces joining their own oppressors, the privileged classes, to crush all their efforts to ameliorate their social state – which is neither just nor generous” (Bacon 1838: 65)].

Aurreko azpiatalean komentatu dut karlismoaren aldeko hainbat bidaiarik ukatzen zutela foruak Euskal Herrian gerlaren sorburuan zeudenik. Baconen aipamenaren azken esaldiak laguntzen digu ulertzen iritzi honen zergatikoa. Soilik eskubide foralak defendatzeko asmoarekin gerlan sartzea jarrera berekoitzat jotzen da; horren arabera, euskaldunak foruak aldeztera atera zirenekoa, “iraultzaileek”, hau da liberalek, zabalduko ideia dela baieztatuko zuten zenbait idazle karlistak. Honela adierazten du, adibidez, Alphonse Barrès du Molardek:

“Espainiako iraultzaileek erran dute, eta haien ondoren bertze herrietakoek errepikatu, nafarrek eta baskoek beren foruen defentsarako baino ez zituztela armak hartu. Gertaerak eta haien datak nahikoak dira baieztapen hori gezurtatzeko” (Barrès du Molard 1842: 5).

“Les révolutionnaires d'Espagne ont dit, et ceux des autres pays l'ont répété après eux, que les Navarrais et les Basques n'avaient pris les armes que pour la défense de leurs fuéros. Il suffit des faits et de leur date pour détruire cette assertion” (Barrès du Molard 1842: 5).

Bereizketa, hala ere, ez da hain erraza. Kontua ez baita, alde batetik, liberalek defendatzen zutela foruek gerlan pisu handia izan zuten tesia eta, bertze aldetik, karlistek foruei garrantzi osoa ukatzen zutela; alderantziz, jarrera karlista zuten bidaiarien artean bazen euskal foruen eragina aitortzen zuenik. Adolf Loning bidaiari alemaniarrek argi adierazten du: euskaldunak guda zelaietan erori dira “beren antzinako pribilegioen, foruen, erlijioaren eta erregearen defentsarako” (Loning 1844: 266). Ildo beretik, Michael Burke Honan *Morning Herald* egunkariko kazetariak dio euskaldunak lasterka joan zirela lerro karlistetara, “sinetsita zeudelako alderdi liberala beren foruen

edo pribilegioen etsai amorratua zela” (Honan 1836: 125). Haratago joanez, aipatutako azken kazetariak gaineratzen du “Rodil, Mina eta Quesada jeneralen ankerkeriek eta foruak ezereztatzeko saioak piztu duten gorrotoa hain dela sakona, ezen herria ez baita inoiz erreginareen gobernura makurtuko; eta bihar Don Carlosek bakarrik utziko balitu, orduan beren independentziaren alde jarraituko lukete borrokan” (Honan 1836: 259-260)²⁵. Bertze kazetari batek, *Morning Post*-ekoa oraingo honetan, gerlaren zergatikoak aipatzerakoan, eredugarritzat jotzen zuen Euskal Herrian garatzen ari zen guda:

“Bertan ikuskizun gozagarri bat ikusten ahal da: herri bat borrokan aldi berean leialtasun eta libertatearen alde, zilegitasun printzipioaren alde eta askatasun praktikoa baliatu ahal izateko; bere subiranoaren eskubideen alde eta bere-berezkoak diren pribilegio konstituzionalen alde” (Stephens 1837: I, 15).

[“There may be seen the gratifying spectacle of a people fighting at once for loyalty and liberty, for the principle of legitimacy and the exercise of practical freedom; for the rights of their sovereign and their own constitutional privileges” (Stephens 1837: I, 15)].

Ikus daitekeenez, beraz, Bacon merkatari liberalak eta Stephens kazetari karlistazaleak bat egiten dute beren analisisian (foruak garrantzitsuak izan ziren euskal altxamenduan), baina ez beren balorazioan (ikuskizun gozagarria Stephensendako, berekoitasun erakuspena Baconendako). Analisisian bat-etortze eta balioestean elkarrengandik bereizte hori behin baino gehiagotan gertatzen da Bacon eta Stephens artean. Askotan iduri du solasean ari direla, iritziak elkarri kritikatu. Irudipen hori ez da hain arraroa; izan ere Baconek, izen zehatzik aipatu gabe baina horren barru Henningsen eta Stephens sarturik daudela, behin baino gehiagotan kritika gogorak egiten dizkio “*Anglo-Carlists*” deitzen dion ingeles bidaiari talde bati.

Espero zitekeenez, Zumalakarregiri buruz ere, adibidez, iritzi kontrajarrita zituzten Baconek eta Stephensek. Henningsenek egindako erretratua gogoan, kazetariak miresten zuen, jenio bat zelakoan (Stephens 1837: I, 104-105); Baconek, ordea, uste zuen haren merituak sobera baloratu zituztela bai aldekoek, bai kontrakoek:

“Zumalakarregiren trebetasuna benetan neurritz kanpo balioztatu dute bai bere lagunek, bai bere etsaiek. Guztiz normala zen jarraitzaileek beren buruzagi zorionsua goraiatzeari; eta aurkariak agian

²⁵ Jatorrizko testuak dio: “and so deep a hatred to the Queen has been engendered by the atrocities of Rodil, Mina, and Quesada, and the attempt to extinguish their *fueros*, that the people will never submit to her rule; and if Don Carlos were to abandon them to-morrow, they would still maintain the struggle for their own independence”.

espero zuten jasotako apalkuntza txikiago bihurtuko zela, Zumalakarregiri adimen militar handia aitortzen bazuten. Horrek ez du, ez hurrik eman ere, guda ertia berrantolatu; bere aurretik Minak egin zuena bertzerik ez du egin berak ere, eta erabili duen sistema taktiko hori euskal probintzietakoa da berez” (Bacon 1838: 225).

[“The abilities of Zumalacarreguy have been greatly over-rated, by both his friends and opponents. It was highly natural for his followers to praise their fortunate leader; and his antagonists thought, probably, by giving him the credit of great military talents, to lessen their own humiliation. So far from Zumalacarreguy having recast the art of war, he simply did what Mina had done before, which system of tactics is indigenous to the Basque provinces” (Bacon 1838: 225)].

Beraz, zorte ona izan zuen gerrillari azkarra, Baconen iritziz; militar adimentsu eta paregabea Stephensen ikuspuntutik. Baina ez batarendako ez bertzearendako Zumalakarregi ez da protagonista erabatekoa; orain herria pasatu da gakoa izatera. Eta aldaketa hori, Henningsen eta Sabatierren kasuetan bezala, Baconen eta Stephensen liburuen tituluetan islatzen da. Arestian aipatu bezala, *Sei urte Bizkaian* izena du Bilbon bizi zen merkatariak idatzi zuen liburuak; *Morning Post*-eko korresponentsalarenak *The Basque provinces* du izenburu. Gerlako tokiak, Euskal Herriak, hartzen du orain nagusitasuna, eta tokiarekin batera bertako biztanleek. Hau bereziki nabaria da Stephensen liburuan, zeinean tituluaren ondoren honako azpтитulu hau baitugu: *their political state, scenery, and inhabitants; with adventures among the Carlists and Christinos, alegia, beren egoera politikoa, paisajea, eta biztanleak; gehi abenturak karlisten eta giristinoen artean*. Stephensen liburuan, gerla bera ere hondarreko tokian baino ez da agertzen.

Stephensek egiten dituen konparazio batzuk oso interesgarriak dira. Zenbait alderditan, adibidez, euskaldunak Ameriketako indiarrek bezalakoak dira:

“Beren jarrera lasaia eta sosegatua dela medio, halako antzekotasun bat dute jatorrizko jaunekin, Ipar Ameriketako indiarrekin alegia, harridura edo haserrea erakustera inoiz ematen ez dutenak, eta zentzu horretan, moralari dagokionez, euskaldunak Pirinioez bestaldeko beren barrideen kontrako muturrean daude” (Stephens 1837: I, 152).

[“In their self-possessed dispassionate conduct they bear resemblance to those native gentlemen the North American Indians, who never allow themselves to betray surprise or vexation, and in this respect the Biscayans stand at the moral antipodes of their neighbours at the other side of the Pyrenees” (Stephens 1837: I, 152)].

Uste izatekoa da “Pirinioez bestaldeko barrideak” kritikatzean Stephensek ez zituela bertako euskaldunak buruan, frantziarrak baizik. Izan ere, frantses gobernua Isabel II.ari ematen ari zitzaion laguntzaren kariatz, oso kritiko agertzen da gure kazetaria Frantziarekiko (ikus, adibidez, bere liburuaren lehen kapitulua). Bere aldetik, John Francis Bacon bat dator Stephensekin euskaldunen eta indiarren parekatze honetan. Bilboko lehen setioan, dio Baconek, karlistek ez zuten inoiz beren miresleek hainbertze goraiatu duten ustezko ausardia erakutsi, “eta egia bertzerik ez diot adierazten dudanean hiriarren kontrako eraso Ameriketako Indiar tribu baten eran egin zutela, Europako armada baten eran baino gehiago” (Bacon 1838: 261). Indiar basakeriaren irudi horrekin bat egiten dute liburuan agertzen diren irrintziaren aipamen ugariak: “karlistek garaipena ospatzen dute oihu biziak botaz eta keinu arraro batzuk eginez” (Bacon 1838: 178); “eta karlistak, beren garaipenaz harro, kaskoetan bildu ziren, eta han dantzatu, oihukatu eta keinu mota guztiak antzestu zituzten ilunabarra arte” (316), eta abar (241-242, 380). Euskaldunak mendi tontorretan dantzan: irudi horrek ez al dakartza berehala indiarrek burura? Beraz, Stephensi euskaldunen eite noble eta pausatua goraiatzeko balio zion irudiak Baconi euskal soldadu karlistak jende basati gisa aurkezteko balio dio. Basakeriarantz hurbildu nahi izate horrek gailurra du irrintziaren deskripzioan, oraingo honetan Ameriketatik Afrikaraino jauzi eginez:

“Euskal auriak edo oihuak hasieran zaldi baten irrintzia iduri du, gero otso baten auriara aldatzen da, eta azkenik asto baten arrantzaren hondarreko notak bezalako dar-dar batez bukatzen da. Guda lorpen honetaz gainera, haserrezko keinu eta imintzioak eginez libertitzen dira, guztiz imitaezinak; halako moldez, non Afrikatik berri iritsitako tximu bat ere amorrus hilko bailitzateke, hobetu edo behintzat berdindu ezinean” (Bacon 1838: 380, oharra).

[“The Basque howl or whoop, resembles at first the neighing of a horse, then changes to a wolf’s howl, and finally terminates with a shake like the expiring notes of a jackass’s bray. In addition to this warlike accomplishment, they usually divert themselves with making sundry antics and grimaces, perfectly inimitable; such, that an ape, fresh from an African forest, would die of despair at being able to excel or even equal” (Bacon 1838: 380, oharra)].

Indioekin ez ezik, Baconek irlandarrekin ere alderatzen ditu euskaldunak, ingelesten artean ia-ia tradizio bat zenari jarraituz. Berarendako ukaezina zen euskaldunak “nazio zelta handiaren adar bat zirela”; “egia da”, aitortzen zuen, “euskara oso ezberdina dela gaeliko, galesera edo irlanderatik, baina horrek ez du gezurtatzen jatorriz herri bat eta

bera direnik: fisiologian eta portaeran antzekotasun handia dute eta tradizioak berdin-berdinak dira”:

“Guyanako tribuen hizkuntzak elkartetik gehiago bereizten dira, euskara irlandetatik baino, eta hala ere inork ez du zalantzan jarri Orinokoko tribu horiek jatorri berberetik datozenik. Beharbada, etnografia aurreratu ahala, bakarturiko tribu txikiek beren jatorrizko hizkuntza usteltzeko eta aldatzeko joera daukatela ziurtatu ahal izanen dugu: horren froga agian Ameriketako edo Australiako basoek emanen digute; bertan aurki genitzake europarren ondorengoak: gizarte eta zibilizaziotik bereziak, basakeria egoera batera itzuliak, eta beren mintzaira ere ulertezina litzateke; prozesu hori belaunaldi gutxi batzuetako epean bete liteke” (Bacon 1838: 54-55).

[“The languages of the tribes in Guayana are more unlike each other by far, than the Basquence and Irish, and yet few or none have ever entertained the idea, that the tribes of the Orinoco are not descended from the same stock. Perhaps, when the science of ethnography is more known, it may be ascertained that there is a tendency in small secluded tribes to corrupt and change their original language: and the wilds of America or Australia may one day furnish the proof, in the discovery of the descendants of Europeans, who, separated from society and civilization, have relapsed into the savage state, so that even their speech shall be unintelligible, a result which might possibly be accomplished in a few generations” (Bacon 1838: 54-55)].

Gaelikoa gora, Orinokoko tribuak beheara, euskaldunen inguruko teoria ia oso bat eratzen du hemen Baconek, horrela laburbil litekeen teoria hain zuzen ere: zelden herria Europa osoan hedaturik egon zen duela asko (bi mila urte dio Baconek), eta herri horretatik gelditu diren aztarnetako bat da euskal herria. Baina garai loriotsu (eta urrun) horiez geroztik, euskaldunak (pentsatzekoa da gainerako herri zeltak bezala) gainbehera prozesu batean murgildurik egon dira, “gizartetik eta zibilizaziotik bereizita” (balizko europar horien antzera), beren hizkuntzatik ustezko “jatorrizko” hizkuntzarekiko (gaelikoarekiko, alegia) antzekotasun guztiak ezabatzeraino. Azken batean, Baconen metafora-multzoak agerian uzten du, nik uste, euskaldunei buruzko irudia.

Espero zitekeenez, Edward Bell Stephensek ere erkatzen ditu euskaldunak eta irlandarrak. Hala dio kazetariak: “Ezein hizkuntzatan (irlanderan izan ezik) ez nuen entzun hitzak hain agudo ahoskatzen” (Stephens 1837: II, 125). Euskaldunak, irlandar nekazariak bezala, abegikorak dira baina hauen koipekeriarik gabe; eskoziarrak bezala, buruargiak dira, baina azkarrenak direnik sinetsi gabe; Ingalaterrako goi mailako klaseko jendeak bezala, badakite beren burua errespetatzen, baina ez dute saxoien ergelkeria (I, 151).

Behin eta berriz, Baconek eta Stephensek konparazio berberak egiten dituzte, kontrako ondorioetara ailegatzeko. Indioekin edo irlandarrekin parekatzea armada karlista arbuiatzeko modu bat da Baconentzat; Stephensentzat, ordea, armada hori goraiatzeko era bat. Azken bat-etortze bat bi idazleen artean: biendako karlistak dira euskaldunak. Baconek, karlistaldia Bilbon pasatu arren, soilik (oker ez banago) karlistei aplikatzen die “*Basque*” hitza. Antzeko zerbait gertatzen da Stephensen kasuan. Berak badaki, ongi jakin ere, Espainiako leku anitzetako jendeak osatzen zuela Don Carlosen armada, baina bere begietan euskal soldaduek merezi zituzten laudorio handienak. Bataila baten ondoren, adibidez, Stephensek kontatzen du lapurreta batzuk gertatu zirela; erantzuleak Frantziako atzerriko legioaren desertoreak eta Aragoi, Gaztela eta Nafarroako soldaduak izan ziren, dena den pertsonen aurkako bortizkeria gertatu gabe. Eta honako hau gaineratzen du:

“Euskal (hau da, bizkaitar, arabar edo gipuzkoar) nekazarien batailoiak bertan egon izan balira, ziur nago ondasun mota guztia errespetatua izanen zatekeela, ordura arte bezala” (Stephens 1837: I, 236).

[“Had the Basque peasant battalions, (i. e., Biscayans, Alavese, or, Guipuscoans), only been there, I am confident every description of property would, as heretofore, have been respected” (Stephens 1837: I, 236)].

Irakurleak nabaritu izanen du naski Stephensek, arestiko paragrafoan, nafarrak euskal taldetik at utzi dituela. Aipaturikoa ez da konparazioa nafarren kaltera suertatzen den aldi bakarra. Bertze toki batean gure bidaiariak dio lapurretak ezohikoak zirela karlisten artean. Hala adierazten du, britainiar ironiaz: “Lizarran jazotako lapurreta saio baten berri izan nuen, eta benetan egindako lapurreta baten berri izan zuen gizona ikusi zuen gizona ikusi nuen”; gainera, ebaste ia-ia leiendazko horren saria norbaiten txapela izan zen. Interesatzen zaiguna, dena den, hondarreko oharra da:

“Halako gauza bat gertatzen ahal da Nafarroan (bertan ezproi pare bat galdu bainuen), baina uste dut ezinezkoa dela Bizkaiko mendietan” (Stephens 1837: I, 213).

[“Such a thing might occur in Navarre (for I lost a pair of spurs there), but I believe it to be impossible in the mountains of Biscay” (Stephens 1837: I, 213)].

Baina baskoen eta nafarren artean ezberdintasunak ez ezik, antzekotasunak ere badira. Izan ere, bidaiari honen liburuan nafarrak dantzan dabilta, eta zer kapitulutan begiratzen den badira edo ez dira euskal herrikoak. Gogora dezagun Henningsenek zioela Nafarroako hegoalderantz joan ahala euskal ezaugarriak ezabatzen zirela; halako zerbait, antza, uste zuen Stephensek ere:

“Nafarrek arraza nahasia dirudite. Ez dira, ez hurrik eman ere, euskaldunak bezain ederrak, atseginak edo buruargiak, eta, Zumalakarregik gerla haien haranetan egin nahiago bazuen ere, ziurtatu didate gipuzkoarrak soldadu hobeak direla. Bilboko azken setio arte, bizkaitarrei ez zaie beren burua nabarmentzeko bertzeei adina aukera eman, bakarrik Arlabanen Westminsterreko Legioarekin borrokatu behar izan dute eta Bermeo, Getaria, Plentzia eta Lekeitioko konkistak bezalako kontu batzuk bete behar izan dituzte” (Stephens 1837: I, 153).

[“The Navarrese appear to be a mixed race. They are not nearly so well looking, amiable, or intelligent as the Basques, and, although Zumalacarregui preferred making their valleys the seat of war, yet I am assured the Guipuscoans make better soldiers. The Biscayans had not until the last siege of Bilbao, been afforded similar opportunities to distinguish themselves, having only had the Westminster legion to beat at Arlaban, and a few other affairs such as the capture of Bermeo, Guetaria, Plencia and Lequetio to accomplish” (Stephens 1837: I, 153)].

Bertze testuinguru batzuetan, *Basques* eta *Navarrese* eskutik helduta agertzen zaizkigu. Zenbaitetan, kontu txikietan: “iduri du andre nafarrak eta baskoak oso erizain onak direla” (Stephens 1837: I, 74), printzipioz garrantzirik gabeko oharra dena, baina ez genuke ahanzi behar bidaiari askori andreei buruzko komentarioek maiz balio izaten zietela “izaera” nazionala deskribatzeko. Hori kontuan hartuta, nafar eta “euskal” andreen bertuteen elkartze hori esanguratsua izan daiteke²⁶. Bertze ohar bat, testuinguru guztiz ezberdin batean: euskal haurrek (“the Basque children”) ura gustukoa dute gazte-gaztetik, dio kazetariak, eta horren frogagarri segidan hogeiren bat nafar alai (“twenty merry Navarrese”) jostetan ibaian deskribatzen digu (Stephens 1837: II, 242-243). Lurrean basko eta nafarretan antzekoak dira herriak eta etxeak ere, deskripzio berean sartzeko modukoak (Stephens 1837: I, 42). Eta horretaz gain, karlismoak eta foruen aldeko borroka batzen zituen probintzietako eta Nafarroako biztanleak. Ziur aski, Stephensen begietan, lehenago Henningsenenetan bezala, “euskalduntasuna” Euskal Herriko bazterretan barreiatzen zen zerbait zen.

²⁶ Bertze ohar baterako, oraingo honetan emakumeen eraginaz “in the Basque provinces and Navarre”, ikus Stephens 1837: II, 237.

Lehen ere aipatu dut zenbait bidaiarik Euskal Herri osoa kontuan hartzen dutela, bertze batzuek bakarrik Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, eta bertze batzuek, azkenik, Hegoaldeko lurraldeak. Humboldtten beraren kasuan ere Nafarroaren egoera zein zen ez zegoela oso garbi ohartarazi dut. Gauza bera gertatzen da lehen karlistaldiko idazleekin. Stephens, Henningsen legez, zalantzan dabil Nafarroari dagokionez; Michael Burke Honan-ek, berriz, Sabatierrek bezala, “*the four Basque provinces*”, “lau euskal probintziak” alegia, ditu mintzagai (Honan 1836: 225). Are argiago agertzen da Ch. J. E. Sain de Bois-le-Comte-ren liburuaren tituluan: *Essai historique sur les Provinces Basques*, eta, parentesi artean, *Alava, Guipuzcoa, Biscaye et Navarre* (Bois-le-Comte 1836). Dena den, arras egokia deritzot definizio ugaritasun horri eta berarekin datorren zehaztasun eskasiari. Edo agian egokia baino gehiago, saihestezina, bidaiari hauek guztiak –sarreran ukitutako gai batera bueltatuz– ez baitziren euskal ohiturak ikertzera etorri, beren helburua ez baitzen euskaldunen berri ematea. Beren xede nagusia, hitz batean, ez baitzen etnografiara ekarpen bat egitea, herri ezezagun baten inguruko xehetasun guztiak bilduz eta ahalik eta zorrozatasun handienaz aurkeztuz. Baina egokia, orobat, muga ongi definiturik ez izate horrek erakusten baitigu, nire aburuz, Euskal Herria, behaketa gauzaki gisa, azalera ateratzen ari dela. Asmatze prozesua, azken batean, abian dagoela agerian uzten du.

Liburuaren bukaera aldera honela deskribatzen ditu Stephensek euskaldunak:

“Antzinako herri independente bat, zurea [Ingalaterraz ari da] gutxienez bezain konstituzio ona, librea eta zaharra duena – eta legetan eta hizkuntzan, izaeran, itxuran, helburuetan eta sentimendu nazionalen Espainiatik ezberdina dena, Espainia Ingalaterratik den bezain ezberdina. [...]” (Stephens 1837: II, 253-254).

“An independent primitive people, with a constitution at least as good, and free and ancient as your own – as distinct in laws and language, character, form, pursuits and national feeling, from Spain, as Spain is from England [...]”

Morning Post egunkari *kontserbadoreko* Stephens kazetariaren azken lerro hauek Ingalaterrako gobernu *liberalari* kritika bezala ulertu behar dira. Ezaguna denez, Britainia Handiak Espainiako liberalei lagundu zien soldadu batzuk, *the British Legion* zelakoa, bidaliz. Hura eta haren buruzagia, General Evans, karlista guzien kritikaren jomuga bihurtu zen. Euskal antzinako bertute konstituzionalak seinalatuz, ingeles gobernuaren zurikeria (askatasunaren izenean herri aske bat erasotzea) agerian utzi nahi

zuen Stephensek. Ildo honetatik, euskaldunen ezaugarri positibo guztiak azpimarratu ez ezik, batzuetan modurik gordinenean ere idealizatu egin zituen:

“Berezkoa duten Arkadia primitibo batean bizi dira, eta oraindik gozagarri dituzte xalotasun eta inozentziaren urrezko arotik iritsitako plazer naturaletako batzuk, legeak baino indartsuagoak eta historia baino zaharragoak diren ohituren gordetze zorrotzari esker iraun ahal izan dutenak” (Stephens 1837: I, 173).

[“They live in a primitive Arcadia of their own and still enjoy some of the natural pleasures derived from the golden age of innocence and ignorance, perpetuated as it is by the religious observance of customs stronger than laws and older than history” (Stephens 1837: I, 173)].

Stephensen *The Basque provinces* agertu zen urte berean, Thomas Roscoe bidaiari eta gidagileak “aurreko bidaiariek berotasun sineskorraz goretsi zuten Arkadiako tolesgabetasun eta inozentziaren garai hura” amaitutzat jotzen zuen, eta horren errua gerlari bota zion (Roscoe 1837: 38). Stephensen laudorioak, naski, neurritz kanpokoak ziren gerla zibileko garai baterako, Baconen irainak soberazkoak ziren bezala. Baina aitzineko ataletan bezala, begirada da hemen ere interesatzen zaiguna, euskaldunak harrapatzeko gauza den begirada, hain zuzen ere.

LEHEN KARTISTALDIAREN ONDORENGO ZENBAIT GOGOETA.

1. 1840ko hamarkadako bidaiariak.

Gerla garaiak liburu sorta eder bat utzi bazigun, gerlaren ondorengo urteetan ere ez dira gutxi aurkitzen ditugun testuak. 1840ko hamarraldikoak, gatazkaren zioak eta ondorioak eztabaidagai hartzen dituztelarik, gerlari lotuak agertzen zaizkigu oraindik. Baina karlistaldiari buruzko gogoeta hauek ñabardura berriak gaineratzen dituzte, eta gudan parte hartu ez izanak alderdi berriak ikustea erraztu egiten du. Bake garaiko liburuak dira hauek, gerlak zirauen bitartean naski ezinezkoak ziren hausnarketak eskaintzen dituztenak. Bake garaiko testu hauek bidaia-liburuak hobeki balioesteko aukera ere ematen digute, pentsatzen ahal baita, Espainian, gerla bukatuta ere, hausnarketa horietako batzuek ezinezko izaten jarraitzen zutela. Gatazka zibil batek normalean uzten dituen gorrotoek eta arrangurek zailago egiten dute analisi hotzak egitea; horren kariaz, atzerrian pentsatu eta erran zitekeena ez zegoen beti hemen pentsatzerik edota erraterik (ikus honetaz Sánchez-Prieto 2004).

19. mendeko 40ko hamarkadan oso liburu erakargarriak aurkitzen ditugu, bertzeak bertze Victor Hugo frantses poetaren bidaia-egunkaria, goitian errandakoaren adibiderik beharbada argiena. Bere mailara iritsi gabe, badira bertze batzuk ere. Datozen orrialdeetan bost egile izanen ditut aztergai: Ingalaterrako bi, Frantziako bi eta Alemaniako bat. Gerlari dagokionez guztiek antzeko gogoetak eskaintzen dituzte, baina funtsezko adostasunekin batera badira garrantzizko ñabardurak. Bat etortzeak zein ezadostasunak agerian uzten saiatuko naiz.

2. Biblien saltzailea eta turista inperiala: George Borrow eta Richard Ford.

2.1. Don Jorgito el Inglés: George Borrow.

George Borrowek heterodoxoen edozein zerrendatan egotea merezi du. Bibliak saltzera joan zen Espainiara, Biblia protestanteak, erran nahi da. Izan ere, haren

egonaldia Londreseko *British and Foreign Bible Society* elkarte boteretsuak finantzatu zion, hemengo gizarte katolikoan fede protestante zabal zezan. Hala eta guztiz ere, Borrowen harremana Bibliako Elkarte horrekin gaizki bukatu zen, eta aski zilegi da pentsatzea lanpostua onartu zuela, bidaiari ordainduta, mundua ikusteko asmoz. Espainian bost urte pasatu zituen *Bible Society* haren kontura, ongi pasatu ere: “Espainian bost urte eman nituen, gertakariz ez bazen, zorionez beteak izan zirenak” (Borrow 1938: 2).

Ingalaterran *eccentricity* tradizio bat badago, eta George Borrow tradizio horri dagokio bete-betean. Ijitoen laguna izan zen (“*the Gipsy*” deitzen omen zion Richard Ford adiskideak), eta haien hizkuntzaz ederki egitea ere lortu omen zuen. Hori ez da hain harrigarria, batez ere kontuan hartzen badugu italiara, gaelikoa, alemana, hebreera, daniera eta arabiarra zekizkiela, eta euskara apur bat ere ikasi zuela; horren lekuko, berriz ere, Richard Ford dugu, Borrowi “gaurko poliglotetako bat” deitu ziona (Ford 1845: 927).

Borrowek bere Espainiako egonaldia, 1836-1840 tartekoa, *The Bible in Spain* izeneko liburuan kontatu zuen, Fordek emandako aholku bati jarraituz. Lehen edizioa 1843an atera zen kalera, eta urte hartan bertan mila aleko sei edizio eta hamar mila aleko bertze edizio bat agortu egin ziren. Egiazko *best-sellerra*, beraz (Burns 2000: 5. kapitulua). Orri hauetan agertzen diren bidaiariak egindako liburuetan salduena izan zen, inolako zalantzarik gabe.

Horrenbestez, bai Espainian, bai Ingalaterran, ospe handia lortu zuela pentsa daiteke. Espainian *don Jorgito el inglés* deitzen omen zion jendeak, baina horrek ez du erran nahi geroko historian guztien gustukoa izan denik: Marcelino Menéndez Pelayok gogor epaitu zuen bere *Historia de los Heterodoxos* lanean; Manuel Azañak, berriz, haren liburua ikertu eta itzuli egin zuen. Ingalaterran izan dituen argitalpen eta berrargitalpen ugari ongi frogatzen dute arrakasta handia izan duela (nik erabili dudana edizioa, bidenabar, 1938koa da, Cambridgeko barazkien merkatuan erositakoa). Harira joanez, Espainiako gauzen ikasle hark Euskal Herriari buruzko ohar batzuk ere egin zituen. Lehendabizikoarekin aitzin-solasean egiten dugu topo; idazlea euskaldunez eta karlismoaz ari da bertan, eta ikusten ahal dugu ez zuela inongo arazorik pentsatzen zuena errateko:

“Uste zabaldua zen Euskal Herria karlismoaren gotorlekua zela, eta bertako biztanleak kartsuki atxikiak zirela beren erlijioari, hura arriskuan zegoelakoan. Egia da euskaldunei ez zitzaizela axola

Carlos edo Erroma, eta armak bakarrik beren eskubide eta pribilegio batzuk defendatzeko hartu zituztela. Fernandoren anaia zen ipotx harenganako mespretxurik gordinena erakutsi zuten beti, eta mespretxu hori ongi irabazia zuen, ergelkeria, koldarkeria eta ankerkeria biltzen zituen bere izaeragatik. Haren izena erabili bazuten, *cri de guerre* hutsa bezala izan zen” (Borrow 1938: 5).

[“It was generally supposed that Biscay was the stronghold of Carlism, and that the inhabitants were fanatically attached to their religion, which they apprehended was in danger. The truth is, that the Basques cared nothing for Carlos or Rome, and merely took up arms to defend certain rights and privileges of their own. For the dwarfish brother of Ferdinand they always exhibited supreme contempt, which his character, a compound of imbecility, cowardice, and cruelty, well merited. If they made use of his name, it was merely as a *cri de guerre*” (Borrow 1938: 5)].

Horrek ez du erran nahi gainerako karlistek Don Carlosi begirune handiagoz begiratzen zionik. Ez, haiek ere beren interesen alde egiten ari ziren, baina ñabardura txiki batekin:

“Haiek, ordea, izaeraz oso ezberdinak ziren euskaldunengandik, soldadu ausartak eta gizon ondraduak zirenengandik. Don Carlosen espainiar armadak soil-soilik lapurrek eta hiltzaileek, nagusiki Valentziarrek eta Mantxakoek, osatzen zituzten eta, Cabrera eta Palillos odolisurean agintzapean, dena hankaz gora zegoela baliatu ziren komunitatearen jende onesta arpilatzeke eta sarraskitzeke” (Borrow 1938: 5).

[“These, however, were of a widely different character from the Basques, who were brave soldiers and honest men. The Spanish armies of Don Carlos were composed entirely of thieves and assassins, chiefly Valencians and Manchegans, who, marshalled under two cut-throats, Cabrera and Palillos, took advantage of the distracted state of the country to plunder and massacre the honest part of the community” (Borrow 1938: 5)].

Helburu nagusia ez da euskaldunak gorestea eta espainiarrak iraintzea, baizik eta ukatzea gerla karlistaren sorburuan erlijioa egon zitekeenik. Erregea eta Jaungoikoa lelopean Don Carlos katolikoaren alde borrokatu zirenak, beraz, benetan foruen alde edo bakarrik hil eta lapurtzeagatik aritu ziren borrokan. Hala ere, Borrowen arrazoibide zein izan zen alde batera utzita, nabaria da aldaketa. Gerla garaian, bidaiari batzuek defendatzen zuten foruek ere, bertze osagai batzuekin batera, inportantzia (txikia edo handia) izan zutela euskaldunek karlismoari emandako sostengu egoskorrean; orain Borrowek dio foruak izan zirela faktore erabakigarri bakarra. Finezia eskuarki

handiagoz (eta normalean inor arbuiatu gabe), 1840ko hamarkadako bidaiari asko ildo horretatik joango dira.

Biblia Espainian liburura berriz bihurtuz, euskaldunen inguruko berri gehiago aurkitzeko 37. kapitulura jo behar dugu. Hara iritsita, Borrowen kezka etnografikoak dira, politikoak baino gehiago, hizkuntza eta arraza baititu mintzagai. Hizkuntzari dagokionez zer erraten duen ikusita, uste dut arrazoizkoa dela pentsatzea Humboldt lanen bat, ziurrenik *Prüfung* izenekoa, irakurria zuela. Euskara (“*euskarra*” idazten du berak) aspaldian Espainia osoan nagusi izan zela uste izaten dela dio. Horrekin batera, badaki egon badaudela bertze teoria batzuk ere, euskaldunek berek asmatuak:

“Euskaldunek baieztatzen dute euskara Espainiako jatorrizko hizkuntza ez ezik, mundukoa ere bazela, eta euskaratik gainerako hizkuntza guztiak datozela; baina euskaldunak oso jende ezjakinak dira eta ez dakite deus ere hizkuntza filosofiaz. Hortaz, oso garrantzi txikia eman behar zaio gai horri buruzko haien edozein iritziri” (Borrow 1938: 337).

[“The Basques assert that it was not only the original language of Spain, but also of the world, and that from it all other languages are derived; but the Basques are a very ignorant people, and know nothing of the philosophy of language. Very little importance, therefore, need be attached to any opinion of theirs on such a subject” (Borrow 1938: 337)].

Teoria gehiago ere aipatzen du: euskara Feniziatik etorri eta Pirinioetako altzoetan kokatu zen kolonia baten dialektoa zela, euskara hebreeraren dialekto bat zela... Borrow bera ere ez da beti oso ongi ibiltzen hizkuntza kontuetan. Euskara “Basque” edo “Biscayan” –hau da, “vasco” edo “vizcaíno”– gaztelaniazko izenez ezaguna dela erran ondoren, gaineratzen du bi izen horiek “euskara” hitzaren bi aldaerak baino ez direla, eufoniarengatik hasieran “b-” hartu dutenak (Borrow 1938: 336-337).

Euskara irlandararen dialekto bat zelako teoria ere ekartzen du hizpidera, eta aitortzen du ingelesaren artean nahiko zabaldua zegoela. Borrowek, ordea, ez du bi hizkuntzen ahaidetasunik onartzen. Irlandako gaelikoa, Europako hizkuntza gehienak bezala, sanskritoaren dialekto (urrun) bat da, hau da, sanskritoaren dialekto bat da gaztelania edo frantsesa latinaren dialektotzat jo zitezkeen era berean. Bertze hitzez erranda, Borrowek dioena da Europako hizkuntzak “familia indoeuroparrean” kokatu behar direla (berak kakotxen arteko esapide hori erabili ez arren). Euskararen kasua, ordea, guztiz ezberdina da. Sanskritoarekin ez, baina Asiako bertze hizkuntza batekin lotzen ahal da euskara, hizkuntza tatariarrekin hain zuzen ere. Tatariako familia horri

Asian, bertzeak bertze, mantxuriar eta mongoliar mintzairak dagozkio, eta, Europan, hungariera eta euskara (Borrow 1938: 338). Eta hemen ere euskararen kasua berezia da, neurri batean bakarrik sailkatzen ahal baita tatariar familia horretan: “Hizkuntza hau benetan anormaltasun bat da, eta dena kontuan hartuta errazagoa da erratea zer ez den, zer den baino” (338). Dena den, bada tatariar multzoan sartzearen aldeko pisuzko argudio bat, hitz bat hain justu:

“Hitz hori *Jauna* da edo, ahoskatzen den bezala, *Khauna*, euskaldunek etengabe erabiltzen duten hitz bat, eta mongoliarren eta mantxuriarren *Khan* dena, hitz honen esanahi berberarekin – *Lord*” (Borrow 1938: 338).

“This word is *Jauna*, or as it is pronounced, *Khauna*, a word in constant use amongst the Basques, and which is the *Khan* of the Mongols and Mandchous, and of the same signification – *Lord*” (Borrow 1938: 338).

Testu labur horrek itzulpen zailtasun batzuk sortzen ditu. Ongi ulertuko bada, jakin behar da ingelesez (eta baita frantsesez ere), gaztelaniazko *j*-ren hotsa, idatziz *kh*-ordezkatu ohi dela (Txejov idazlearen izena, adibidez, Chekhov idatziko luke ingeles batek). *Khauna*, beraz, *jauna* eta ez *kauna* ahoskatu behar da (Borrowek ez du kontuan hartzen *jauna* hitza *yauna* ere ebakitzen ahal dela); orobat, *khan jan* ahoskatu beharko litzateke eta ez *kan*, gaztelaniadunok egiten dugun bezala. Kontua da hitz horrek aitzakia ematen dio Borrowi euskara mongoliar eta mantxuriar hizkuntzekin ahaidetzeko. Horren frogagarri ehunka hitz aurkeztu litzakeela gaineratzen du, baina, badaezpada, hori da komentatzen duen bakarra.

Ikuspuntu etnografiko batetik ere euskaldunak Tatarriako biztanleekin lotzen ditu. Baieztapen hori bi puntutan oinarritzen da. Lehenik, euskaldunek tatarriarren itxura fisikoa omen dute; bigarrenik, izaeraren aldetik, bi herriak borrokalari bikainak omen dira (Borrow 1938: 341).

Erraza da Borrowen ideia horietaz trufatzea eta ni neu ere horren erruduna naiz, beharbada ironiaz behar den baino gehiago baliatu bainaiz bere teoriak laburbiltzean. Gauzak beren onera itzul daitezten, aitortu behar da Borrowen hipotesia, bi aldiz begiratuta, ez dela batere lekuz kanpoko. Lehenik eta behin, argi eta garbi uzten du euskara ez dela indoeuropar hizkuntzen multzokoa; bigarrenik, multzo horretako ez diren bertze hizkuntzekin (hungarierarekin, kasu) biltzen saiatzen, eta horrela sortutako taldeari izena ere paratzen dio, tatarriar multzoa edo familia. Azken batean, ez

indoeuroparrak ez semitikoak ez ziren hizkuntzak biltzen eta sailkatzen ari da. Bitxia izan arren, Borrow ez zen tartariar familiaren teoriaren defendatzaile bakarra. Jatorrian Anders Retzius ikertzaile suediarrek bultzatutako teoria antropologikoa izanik, hizkuntzalaritza alorrera hedatu zen geroago; Nafarroan ere izan zuen jarraitzaile, Nicasio Landa medikua bertzeak bertze (ikus Landa 1878; Iriarte López 2000: 159-160). Egia da, horratik, herri edota hizkuntza talde hori deitzeko erabiltzen zen izena eskuarki “turaniar familia” zela, ez “tatarriar familia”. Nolanahi ere, eta gehiago sakondu gabe, azpimarratu nahi dudana da euskara Asiako mongoliar edota mantxuriarrekin elkartzea ez dela idazle xeble baten xeblekeria bat, baizik eta 19. mendeko Europan ikertzaile batzuen artean zabalduko eta onarturiko teoria bat. Ohar etnografikoei dagokienez, gogoratu behar da, 19. mendearen lehen erdian, maiz ustezko antzekotasun solte eta azalezkoetan oinarritzen zela herrien arteko ahaidetasunen ezartze edo asmatze hori. Borrowek gerrazaletasuna aipatzen zuen froga gisa Tatariako jendea eta euskaldunak elkartzeko; kontrako adibide bat emateagatik, 1853an Arthur de Gobineauk euskaldunak eslaviar herrietan sailkatzen zituen, *Essai sur l'inégalité des races humaines* liburu famatuan. Bi herrienak ziren ezaugarrien artean, bakezaletasuna aipatzen zuen ahaidetasun horren frogagarri (Gobineau 1983: V. liburua, II. kapitulua, 760 orr.).

Hala ere, euskarari buruzko ohar gehiago eskaintzen dizkigu Borrowek, euskara ikasteko zailtasun eta balizko motibazioarekin zerikusia dutenak. Euskararen ezaugarriek eta berezitasunek hain mintzaira zaila egiten dute, ezen oso ezohikoa baita atzerritar batek ongi hitz egitea lortzea. Borrowek berak penintsulara abiatu aurretik zerbait ikasi zuela adierazten du, eta hemen euskaldunekin noizean behin ibili izanari esker nahiko ongi ulertzen ahal zuela; mintzatu ere egiten omen zen, nahiz eta horretan ez zen hain ongi moldatzen (Borrow 1938: 340). Dena den, norbait euskara ikastera bultza dezaketen motiboak gutxi dira, Borrowen hitzetan:

“Lehenik eta behin, euskara ikatea ez da inola ere beharrezkoa, ezta mintzatzen den herrietan bizi direnendako; espainola ulertzen da oro har Espainian dauden euskal probintzietan, eta frantsesa, Frantzian daudenetan” (Borrow 1938: 340).

[“In the first place, the acquisition of it is by no means necessary even to those who reside in the countries where it is spoken; the Spanish being generally understood throughout the Basque provinces pertaining to Spain, and the French in those pertaining to France” (Borrow 1938: 340)].

Parentesi artean nabarmenduko dut iritzi guztiek ez dutela bat egiten erdara zenbateraino ulertzen zen ezartzeko orduan. Euskal Herrian barna 1845ean ibili eta gero, August Ludwig von Rochau bidaiari alemaniarrak kontrakoa adierazten du. Haren arabera, Irurtzundik hurbil dagoen Biaizpe harratea zen gaztelaniaren eta euskararen arteko muga; handik aurrera, “herri xumearen ahotan ez da gaztelaniazko hitz erdi bat ere aditzen, atzerritarrekin solasetan izan ezik”:

“Baina egiatan okerra da erratea euskaldun guztiak gauza direla gaztelaniaz solas egiteko. Bidean dauden herri handienetariko batean, Lizartzan, sei-zortzi pertsonari, gizon zein andreri, gazte zein zaharri, galdetu genion herriko izena zein zen. Jendeak begi zabal-zabalik begiratzen zigun eta, tutik ere erantzun gabe, bere bidetik joaten zen” (Rochau 1847: II, 257).

[“Aber es ist ein entschiedener Irrthum, wenn man behauptet, daß gegenwärtig jeder Baske im Stande sey, ein spanisches Gespräch zu führen. In einem der größten Dörfer an der Straße, in Lisarza, wandten wir uns mit der Frage nach dem Namen des Ortes vergebens an sechs bis acht Personen, Männer und Frauen, Junge und Alte. Die Leute sahen uns groß an und gingen, ohne ein Wort zu antworten, ihres Weges weiter” (Rochau 1847: II, 257)].

Pasaian antzeko gogoetak egiten ditu Rochauk (1847: II, 274-275). Tolosan, mutiko bat baino ez zen eskale batek “*un tshampon*” eskaerarekin hurbildu zitzaion; “txanpon” bat zer ote zen bueltaka ibili ondoren, dirua zela mutikoak nahi zuena ulertu zuen, eta eman ere eman zion, euskara klase labur horren truke (Rochau 1847: II, 258).

Baina itzul gaitzen Borrowengana eta bere arrazoiatar. Euskara ikastetik urruntzen duen bigarren arrazoa da literatura onik ez edukitzea. Euskalki bakar batek ere ez du literatura bat sortu, hizkuntza ikastearen lana ordaintzeko modukoa denik. Bertzalde, eskura dagoen literatura nagusiki itzulpenek osatzen dute, liburu katolikoek itzulpenek hain justu ere (argudio garrantzitsua Biblia protestante saltzaile batendako).

Borrowekin bukatzeko, hizpidera ekarri nahi nuke euskal poesiari buruz egin zuen ohar bat. Bere ustetan, euskaldunek ez zuten benetako poesia; bazekiten kantatzen eta eduki bazituzten kantak, baladak eta abar, baina horiek guztiek ez zuten poesia izena merezi (Borrow 1938: 340).

Borrowek liburu luze bat utzi zigun Espainian bizitako abenturak kontatzen zuena. Liburu horretan, euskaldunei buruz, ohar bat dago, aitzin-solasean, eta kapitulu bat, bertzerik ez. Hala eta guztiz ere, bete-betean asmatu zuen hautatu zituen gaietan. Euskara non kokatu behar den hizkuntzen sailkapen orokorrean; euskaldunak zer diren

ikuspuntu etnografikotik; euskal poesiarik ba ote zegoen; hiru horiek baitira mota guzietako ikertzaileak –historialariak, filologoak, antropologoak, hizkuntzalariak– 1840 urteaz geroztik arduratu zituzten gaiak, Europan eta Euskal Herrian bertan ere. Agian Borrowek ez zuen bere erantzunetan asmatu, ez edukian, ezta forman ere: ikusi dugu ez zuela bere iruzkinekin jendea mintzeko beldurrik. Baina bere liburuak ongi islatzen du karlistalditik bake garaietarako trantsizioa. Gerla karlistaren kontuak hor daude, eztabaidagai oraindik ere, baina bestelako kontuak –hizkuntza, arraza, literatura– agertzen dira. Eta gai berri horiek gerra aurreko kezken haria, adibidez Humboldten kezken haria, berriro hartzen dute.

2.2. *Wellington-en pausoen gibeletik: Richard Ford.*

“Euskaldunek, herri *sui generis* batetik espero zitekeenez, badute berezko hizkuntza bat, beraiek kenduta jende gutxi uler dezakeena; eta ikastea ere ez du merezi, literatura idatzirik ez baitu, eta natiboen solasak ez dauka ikastearen lana saritzen duen maila intelektualik. Ebakera ez da erraza, bederen andaluziar errana egia izatekotan, zeinaren arabera ‘euskaldunak Salomon idazten eta Nabukodonosor ahoskatzen duen’” (Ford 1845: 927).

[“The Basques, as becomes a people *sui generis*, have a language of their own, which few but themselves can understand; nor is it worth the trouble of learning, as it is without a written literature, while the conversation of the natives is scarcely of that high intellectual quality which repays the study. The enunciation is not easy, at least, if the Andalusian’s joke be true, who says ‘that the Basque writes Solomon and pronounces Nebuchadnezzor’” (Ford 1845: 927)].

Lehenik eta behin, aitortu behar dut Salomon eta Nabukodonosor kontua nork eta ingeles batek bota izanak betidanik harritu nauela. Gauza bat idatzi eta bertze bat ahoskatzen duen jende bat bada munduan, ingelesak baitira. Ford, dena den, ez zen balizko euskal filologia baten uretan murgildu eta aski izan zuen Borrowen eta Humboldten zenbait iritzi kopiatzea. Goiko paragrafoa hona aldatu badut, Forden estiloa nahiko ongi irudikatzen duelako da. Alde batetik, latinezko esapide bat dugu; erraza da, hala ere, eta, beraz, zorte ona izan dugu. Izan ere Forden liburua latinezko eta grezierazko aipamenez bete dago, grezierazkoak grezierazko hizkietan –behar den bezala–, eta normalean itzulpenik gabe. Euskaldunak penintsulako “jatorrizko biztanleak dira, *αυτοχθονες*” (Ford 1845: 921); idazle klasikoan arabera, euskal hitzak “ez zitekeen ez idatzi ez ahoskatu beren *το ανηδσο της γραφης* zela kausa” (927). Eta

hauek ez dira erudizio zabal baten erakusgarri bakarrak. Askotan, antropologia konparatuaren ikerketa baten itxura hartzen du liburua. Gernikan, errate baterako, honako xehetasun hauek ematen dizkio balizko irakurleari:

“Gernikan euskal senadoreen Parlamentua biltzen zen. Jatorrian *Witenagemote* hura haritz zahar baten adar zabalen azpian elkartzen zen, eta hiriak oraindik bere armarrian darama haritz hori. Jende zakar primitiboaren artean, gizakiaren eskuak tenpluak eraiki baino lehen, zuhaitz noble batek begirunezko espantua pizten zuen, eta Jainkoari dedikatzen zitzaion (Plinio, N. H., xii. 1). Geroago arboladiak ere landatzen ziren, biltzeko eta gurtzeko balio zuten tokiak markatzeko (Gen. xxi. 33). Josuek (xxiv. 26) legearen liburua haritz baten azpian kokatu zuen, ‘santutegiaren ondoan’. Horrelakoa zen druiden Δρυς sakratua ere; horrelakoa ziren *Ygdraisel*-ak edo zuhaitz sagaratuak, zeinen azpian norvegiarren jainkoturiko hamabi epaileak esertzen baitziren” (Ford 1845: 939).

[“At Guernica was held the Parliament of Basque senators. This *Witenagemote* originally sat under the overspreading canopy of an ancient oak, which the town still bears on its shield. Among rude primitive people, before temples were raised by the hand, a noble tree inspired a reverential awe, and was dedicated to the Deity (Pliny, N. H. xii. 1). Groves also were afterwards planted as marks of sites dedicated to worship and covenant (Gen. xxi. 33). Joshua (xxiv. 26) placed the book of the law under an oak, ‘by the sanctuary’. Such, again, was the sacred Δρυς of the Druids; such were the *Ygdraisel* or consecrated trees, under which were seated the twelve deified judges of the Norwegians” (Ford 1845: 939)].

Goi mailako gida turistikoa da, beraz, Fordena. Bertze aldetik, ironia da hasierako paragrafoaren, eta liburu osoaren tropo nagusia. Gauzak urrundik edo, hobeki erranda, altuera batetik deskribatzen ditu Fordek, ezaxola eta hoztasun nahasketa batez: euskara ahoskatzea zaila dela adierazteko nahikoa da kontakizun irrigarri bat ekartzea, soberazko interes pertsonalik erakutsi gabe.

Forden liburua hainbat aldiz aipatu ondoren, irakurleak jakin nahiko du zein den liburu famatu hori. Teorian gida turistikoa izan arren, Espainiari buruzko entziklopedia bat da Richard Fordek idatzi eta 1845ean argitaratu zuena. *Esku-liburu bat bidaiariendako Espainian eta irakurleendako etxean*, etxea Ingalaterra izanik. Lan honetarako erabili ditudan liburu guztietan hizki motarik txikiena baliatuta, mila orri baino gehiago bete zuen Fordek, obra itzela idazteko. Probintziaz probintzia egituratuta, Euskal Herriari begira bi dira interesatzen zaizkigun kapituluak: 12.a, “*the Basque provinces*” mintzagai dituen, eta 14.a, “*the Kingdom of Navarre*” aztergai duena.

Bidaiarien zerbitzurako esku-liburua dela dio izenburuak, eta funtzio hori ongi betetzen du liburua. Kapitulu bakoitzak hainbat ibilbide proposatzen ditu, eta ibilbide bakoitzean azaltzen non dauden ostanak eta txarrak, zer dagoen ikusteko edo nora joateko zer kotxe den egokiena. Baina badu bigarren funtzio bat, garrantzi handikoa hau ere. Wellingtongo Dukeak Espainiako Independentzia Gerran lortutako garaipen oroigarri da Forden gida. Wellingtonenganako miresmena norainokoa den konturazteko, bakarrik erranen dut “Wellington” hitza ez dela inoiz agertzen orrialdeetan. Forden liburuan, militar hori beti “*the Duke*” da, munduan bertze Duke bat ez balego bezala. Dukearekin batera, penintsulako biztanleak zein esker txarrekoak izan diren ingelesekin behin eta berriz agertzen da. Adibide bat bertzerik ez dut emanen:

“Penintsulako Gerran, Tolosako agintariek gure soldaduei laguntza ukatzeaz gain, ‘laguntza hori diruaren truke ere ez emateko agindu egin zien biztanleei’; gure biltegiak arpilatu zituzten eta, harrapatu genituenean, arpilatzeari uzteari uko egin zioten” (Ford 1845: 930).

[“During the Peninsular war, the authorities of Tolosa not only refused assistance to our soldiers, but ‘positively ordered the inhabitants not to give it for payment’; they plundered even our magazines, and refused to give up their pillage when discovered” (Ford 1845: 930)].

Izan ere, Wellingtongo Dukearen aitzakiaz, Richard Forden begirada inperiala zabaltzen da: Forden ustez, historian, ingelesek penintsulan gertatu diren bataila guztiak, Espainiakoak nahiz Euskal Herrikoak, bertako biztanleen ordean borrokatu behar izan dute. Errua, haatik, ez zaio herri xumeari bota behar, agintariei baizik. *The Duke* bezalako buruzagi on bat izan dutenean, Iberiar penintsulako biztanleek jakin izan dute beren kemena erakusten. Azken buruan, ikuspuntu koloniala da Fordek erabiltzen duena: bertutez beteriko herri bat, bere burua ongi gobernatzeko gauza ez dena eta beti kanpoko laguntzaren esperoan dagoena.

Ikuspuntu orokor horretaz gainera, euskaldunei buruzko zertzelada batzuk ere eskaintzen ditu. Karlismaldia dela kontua, Borrowek adierazitakoarekin bat egiten du Fordek ere: euskaldunak Don Carlosen alde “gehiago borrokatu ziren gehiago beren independentziarengatik, harekiko edo haren aldarrikapenarekiko amodioarengatik baino” (Ford 1845: 922). Hala ere, bidaiari ingelesak uste zuen foruak ezereztuak izanen zirela Madrilen gobernu benetan indartsu bat osatuz gero (923).

Gainerakoetan, ohar baikorrak ohar kritikoekin nahasten dira. Azken horien adibide bat honako hau dugu: “euskaldunen noblezia odolean nabaritzen da portaeran baino

aiseago” (Ford 1845: 924). Eta lehendabizikoen adibide gisa nekazariei buruzko hau har genezake: “nekazariak euskaldunen zatirik hoberena dira, eta ongi tratatuak direnean maitagarriak eta abegikorrak dira [...]” (925). Frantziako euskaldunen inguruan bada komentario interesgarri bat:

“Bidarten Euskal Herrian sartzen da, eta nekazariak Bidasoaz bestaldekoen gutxienez lehengusuak dira, baina haiena lur neutrala da, eta haiek, euskaldunak, hau da, ez frantziarrak, ezta espainiarrak ere” (Ford 1845: 941)

[“At Bidart the Basque country is entered, and the peasantry are at least cognate with those on each side of the Bidasoa, but theirs is a neutral ground, and they are Basques, that is, neither French nor Spaniards” (Ford 1845: 941)].

Aurreko paragrafoan Espainiaren eta Frantziaren arteko ezberdintasunez aritu zen, hortik Euskal Herria “lur neutrala” izatearen kontua. Bertze pasarteetan gertatzen den bezala, ezin jakin Ford ironiaz edo egiaz ari ote den, bere ikuspuntua ematen ari zaigun edo euskaldunen ikuspuntuaz trufatu nahi duen. Nolanahi ere, atal hau itxi dezagun bere aipamen batekin : “The Basques call themselves *Euscaldunac*, their country *Euscaleria*, and their language *Euscara*” (Ford 1845: 927).

3. *Bi frantses Euskal Herrian: Charles Dembowski eta Victor Hugo.*

3.1. *Victor Hugoren aurrekaria: Charles Dembowski.*

1843an egon zen Victor Hugo Euskal Herrian: Baionan, Donostian, Pasaian, Iruñean... Bere irudipenak egunkari pribatu batean paratu zituen. Egunkari horrek euskal ikerlarien interesa piztu du, inongo bidaia-liburuk piztu ez duen bezala; ondorioz, hari buruzko artikuluak (Azurmendi 1985, 2002 eta 2003; Aulestia 1996) ez ezik, euskarazko itzulpen bat ere (Hugo 2002b), Koldo Izagirrek egina, eskura dugu. Interes zabal hori ez da harritzekoa, Hugok utzitako oharrak biziki zirrargarriak baitira; baina Humboldtekin gertatzen zen bezala, 19. mendeko irakurle gehienek ez zuten frantses poetaren gogoetak ezagutzeko aukerarik izan. 1890an argitaratu ziren estreinako aldiz, Victor Hugo hil eta gero (Azurmendi 2002: 16).

1840ko hamarraldian bertze bidaiari anitzek, Borrowek kasu, egin zuten bezala, Hugok ere karlistaldiaren inguruko hausnarketa batzuk eskaintzen dizkigu. Euskarazko itzulpenaren sarreran, Joxe Azurmendik dio, gutti goiti-beheiti, karlistak egiazko liberalak gisa aurkeztu nahian zebilela Hugo, eta modu horretan gerla karlistaren irakurketa berri bat, gaur egun ere ohikoa denaren kontrakoa, proposatu zuela (Azurmendi 2002: 7 eta 39-40). Neurri batean, ados nago. Baina ez dut uste Hugoren originaltasuna ikuspuntu horretan datzanik. Alderantziz, irudipena dut –hori baita, azken batean, atal honen hipotesietako bat– euskaldunak askatasunaren alde aritu zirelako gogoeta hori aski zabaldua zela Europan, hainbat idazleren artean. Arestian ikusi dugunez, bai George Borrowen iritziak, bai Richard Fordenak, bide horretatik zihoazen, eta bi ingelesak ez dira adibide bakarra. Charles Dembowski izeneko frantses bidaiariak balio diezaguke, ez Victor Hugoren originaltasuna ukatzeko, baizik eta hari dagokion testuingurura eramateko.

John Bramsenen antzera, Charles Dembowskik bazuen exotismo kutsu bat. Italiarra zen baina, bere deiturak aditzera ematen duenez, poloniar jatorrikoa. Eta John Bramsenek bezala, Dembowskik ere aitzin-solasean irakurleari eskatzen dio kontuan izan dezan berea ez den hizkuntza batean ari dela idazten (Dembowski 1841: aitzin-solasa). 1838-1840 tartean ibili zen Dembowski Espainian eta Portugalen, eta bidaian zehar moldatutako gutunek osatzen dute haren liburua, 1841ean kaleratu zena, *Bi urte Espainian eta Portugalen* titulupean. Gutun guztietatik hondarreko zortzietan Euskal Herria hartzen du mintzagai. Lehen euskal gutuna Hernanin dago sinatua, 1840ko irailaren 2an, eta azkenekoa Iruñean, 1840ko urriaren 10ean. Tartean hiru eskutitz ditugu Bilbon (1840ko irailaren 22, 25 eta 27koak), bat Agurainen (urriaren 3koa), bertze bat Erizen (urriaren 5koa) eta, azkenik, Iruñeko bertze bat, 1840ko urriaren 10ekoa.

Charles Dembowski Espainian ibili bitartean, gerra karlista bukatu egin zen, 1839ko Bergarako hitzarmenaren bitartez. Euskal Herrira iritsi orduko, beraz, bakea hasia zen, nahiz eta gerrako aztarnek beren horretan jarraitzen zuten. Espero zitekeenez, Dembowski ere karlistaldiaz eta bertan euskaldunek parte hartzeko arrazoiez galdetu zion bere buruari. Erantzuna ohiko bihurtzen ari zaigun ildotik etorri zen: foruak izan ziren zio nagusia. Baina frantziar bidaiariak erradikaltasun puntu berri bat ematen dio ihardespen horri. 1838ko otsailean, Espainiako mugarantz zihoalarik, topo egin zuen kotxean gatazkan ibilitako militar frantses batekin. Hark karlistak zein liberalak gerraz nekatuak eta nazkatuak zeudela erran zion Dembowskiri, honako hau gaineratuz:

“Begi-bistakoa da borroka irauten duela soil-soilik nafar eta baskoen ezaugarritzen duen egoskortasun miregarriari esker, eta jabe arrotzat jotzen dituzten espainiarren aurkako beren jaiotzetiko gorrotoari esker” (Dembowski 1841: 6).

[“Il est évident que la lutte ne se soutient plus que grâce à l'admirable ténacité qui caractérise les Navarrais et les Basques, et à leur haine innée contre les Espagnols, qu'ils considèrent comme des maîtres étrangers” (Dembowski 1841: 6)].

Borrowez aritzean ohartarazten nuen legez, hemen ere kontua ez da foruek borrokarako arrazoi bat eskaintzen zutela erlijio eta erregearekin batera; kontua da foruak direla arrazoi nagusia, arrazoi bakarra ez errateagatik. Euskaldunen borroka, Dembowskiren ikuspuntutik²⁷, askatasunaren borroka zen, jabe arrotzen kontra. Nire ustez, “arrotz” hitza nahiko esanguratsua da testuinguru honetan, euskaldunak espainiarrengandik erabat ezberdinak izateak ematen baitu lehen giltzarria (beti Dembowskiren arabera) karlistaldia ulertzen hasteko:

“Erran genezake *hiru euskal ahizpek* familia arrotz bat osatzen dutela espainiar familia handiaren barnean. Hizkuntza, ohiturak, tradizioak, instituzioak, gauza hauek guztiek ezberdintasun horretara, aparte egote horretara garamatzate” (Dembowski 1841: 329, jatorrizko testuan azpimarratua).

[“On pourrait dire que les *trois soeurs basques* forment une famille étrangère dans la grande famille espagnole. Langue, mœurs, traditions, institutions, tout contribue à cette différence, à cet isolement” (Dembowski 1841: 329, jatorrizko testuan azpimarratua)].

“Hiru euskal ahizpak”, jakina, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia dira, baina bertze tokietan egileak Nafarroa ere euskal familian sartzen du. Goian erran bezala, liburuaren azken atalak “le pays basque” du izena, Nafarroatik egindako gutunak barne. Hala ere, goiko hiru lerro horiek hizpidera ekarri ditut bertze kontu bat dela kausa. Dembowskik euskaldunak familia bat bezala irudikatu eta gero, elkarrekin lotzen dituzten ezaugarriak edota berezitasunak (“hizkuntza, ohiturak, tradizioak, instituzioak”) zerrendatzen ditu. Victor Hugok, bere aldetik, azpimarratuko du gauza anitzek batzen dutela “euskal familia”:

²⁷ Egia da aipaturiko hitzak ez direla Dembowskirenak, berak ezagutu zuen militar batenak baizik; hala ere, Dembowskik ez ditu ondorengo lerroetan gezurtatzen, eta uste izatekoa da argigarritzat jotzen zituelako aldatu zituela bere liburura.

“Erantsiko nuke hemen ezerk, ez hitzarmenek, muga diplomatiko horiek, ez Pirinioek, muga natural horiek, hautsi ahal izan ez duten lotura sekretu eta sakon batek batzen dituela euskal familia misteriotsuaren haurride guztiak” (Hugo 2002a: 781; Koldo Izagirreraren itzulpena, Hugo 2002b: 90).

[“J’ajoute qu’ici un lien secret et profond et que rien n’a pu rompre unit, même en dépit des traités, ces frontières diplomatiques, même en dépit des Pyrénées, ces frontières naturelles, tous les membres de la mystérieuse famille basque” (Hugo 2002a: 781)].

Ezberdintasuna giltzarri bat da, baina gehiago ere badira. Nola liteke askatasuna maite duen herri batek absolutismoaren defendatzaileei jarraitu izana? Hauxe da Dembowskik bere buruari egiten dion bertze galdera bat. Euskaldunek susmoa zuten “konstituzionalek ezarritako askatasun berriak inoiz ez lezakeela indarrean zegoena berdindu” (Dembowski 1841: 331). Askatasun zaharra askatasun berria baino nahiago zuten, beraz. Bitxia, berriz ere, hori izanen baita Hugoren erantzuna ere:

“Ikusi batean badirudi halako nazioak ezin hobeki prestatua egon behar lukeela berrikuntza frantsesak hartzeko. Utikan. Askatasun zaharrek beldur diote askatasun berriari. Euskaldunek ongi frogatua dute” (Hugo 2002a: 781; Koldo Izagirreraren itzulpena, Hugo 2002b: 91-92).

[“Au premier abord, il semblerait qu’une nation pareille étaient admirablement préparé pour recevoir les nouveautés françaises. Erreur. Les vieilles libertés craignent la liberté nouvelle. Le peuple basque l’a bien prouvé” (Hugo 2002a: 781)].

Askatasun berria eta askatasun zaharra, Frantses Iraultzak ekarri duena eta Frantses Iraultza piztu aurretik zegoena. Hugoren egunkariaren gai nagusia hori dela erratera ausartuko nintzateke. Baina Hugorekin hasi baino lehen, har dezagun hondarreko aipamen bat Dembowskiren liburutik. Bergarako besarkada gertatu zeneko zelaia begiraturaz, gogorarazten du lehen harria paratu zutela bakeari oroigarri bat eraikitzeke asmoz, eta gertakizun hori ikusi zuen norbaitek oihu egin zuela: “hemendik aurrera gerra zibila harri horren azpian geldidadila!”. Oihu horri gogoeta hau gaineratzen dio orain Dembowskik:

“Jaungoikoak nahi izango ahal du Madrileko agintariak ez izatea gerra hobitik ateratzeko lehenak, Frantziako soberazko zentralismoaren bide okerretatik itsuki joanez” (Dembowski 1841: 352).

“Fasse Dieu maintenant que les gouvernants de Madrid ne soient pas les premiers à l’en exhumer, en marchant en aveugles sur les errements de l’excessive centralisation française!” (Dembowski 1841: 352).

Hugok ere zentralismoa aipatuko du. Karlistaldia euskaldunek egindako bertze altxamenduekin lotuz, Hugok dio “mende honen hasieran”, “Gorteen espainiar batasuna ezarri” zutenean, “euskal batasuna oldartu egin zen” (Hugo 2002a: 781; Koldo Izagirrereren itzulpena, Hugo 2002b: 92). Gorte horiek, bertzalde, Frantziako konstituzioaren itzulpenak egiten zituzten. Dembowskik Frantziako zentralismoa jarri du, ez dezagun ahantzi, segitu behar ez den adibide.

Antzeko gaiak lantzen dituzte Dembowskik eta Hugok: “euskal familia”, libertate berriaren eta zaharren arteko kontrajarritasuna, zentralismoa... Ez dut erran nahi Hugok Dembowski plagiatu zuenik (benetako plagioak gero ikusiko ditugu), baizik eta Dembowskiren liburua inspirazio iturria izan zuela²⁸. Erran nahi dut Hugo ibili zituen hainbat ideia, alde batetik, oro har aski hedatuak zirela Europa osoan (intelektualen artean, noski), eta, bertzetik, gutxienez eredu hurbil bat izan bazuela. Hugoren galderak egiten zituen jada Dembowskik, eta haiei erantzunak emanda ere bai. Hugoren erantzunak ildo berdin batetik joan ziren. Horrek guztiak ez du Hugoren figura txikiago egiten. Izan ere, nire ustez, Hugo bereizten duena da euskaldunei buruz labur baina inork baino sakonago pentsatu izana eta gogoeta hori Europako mailara eramana izana. Euskal Herriaz ari zaigu poeta frantsesa, baina baita ere Frantziatik eta Frantses Iraultzaren ondorioez. Esku artean zuen langaia 40ko urteetan ohiko samarra izanik, intelektualki lehen mailako hausnarketa eskaintzen digu Hugok eta bertan datza, nire iduriko, bere meritua. Goazen, bada, hausnarketa hori aztertzerara.

3.2. Askatasun zaharrak eta askatasun berria: Victor Hugo.

Azpiatal honi iruzkin kritiko baten bitartez hasiera emanen diot. Victor Hugoren egunkaria euskaratu izana meritu handiko lana da, zer erranik ez dago, eta nik ez dut egindakoa kritikatzeko asmorik. Izan ere, itzulpena primerakoa da (dudarik gabe irakurleak atseginez nabarituko du nire itzulpen traketsetatik Izagirrerenerako jauzia), eta aukeratutako titulua bera ere, *Idi orgaren karranka*, ezin egokiagoa. Gauza batean baizik ez bada ere, irudipena dut 19. mendeko

²⁸ Uste dut Hugok Dembowskiren testua irakurri zuela, baina horren frogarik ez dudala aitortu behar dut.

bidaiari guztiak ados jarri zirela idi orgek ateratzen ahots jasangaitza aipatzeko (luzea litzateke zerrenda osoa ematea, baina adibide batzuk ekartzen ahal dira: Humboldt 1843: 234-235; Bramsen 1823: 87; Inglis 1831: I, 37; Dembowski 1841: 333; Rochau 1847: 282; Furley 1876: 37-38; Blanc Saint-Hilaire 1894: 390-391). Egindakoa ongi egina dago, beraz; nire kritika egiteke utzitakoari buruzkoa da.

Euskal Herrian barnako bidaia biltzen duen testuak *Pirinioak, Les Pyrénées*, du izena; testu hori, ordea, Bordelen hasten da, ez Baionan. Itzulpena prestatzaileek, berriz, Bordele eta Baiona tarteko orriak baztertzea erabaki zuten, agian zati hau euskal irakurleari interesatuko ez zitzaiolakoan. Haatik, nire hipotesia da Hugoren gogoetak, Euskal Herriari buruzko gogoetak, hobeki ulertzen direla testua bere osotasunean hartzen bada, alegia Bordeletik Baionarako zatia ere kontuan hartuz.

Banaketa bikoitzez betea dago *Pirinioak* egunkaria; osagaiak behin eta berriz binaka kontrajartzen ditu Hugok. Tankera horretako lehen dikotomia Bordelen bertan kausitzen dugu. Arkitekturaren aldetik, bi hiri bizi dira elkarrekin Bordelen: Bordele herrikoa eta erregezko Bordele, edo Hugoren izendapenak erabiliz, Bordele-Anberes eta Bordele-Versailles, baina hirigintza berria dela eta, azken hau bertzeari gailentzen ari zaio. Prozesu horri, Bordele herrikoia kalterako Bordele-Versaillesen zabaltze horri gaizki deritzo Hugok:

“Anberes, dena kontuan hartuta, Versailles baino interesgarriagoa da artearen, historiaren eta pentsamenduaren ikuspuntutik. Versaillesek ez du gizon bat eta erregealdi bat baizik irudikatzen; Anberesek herri oso bat eta zenbait mende irudikatzen du” (Hugo 2002a: 754).

[“Anvers, à tout prendre, est plus intéressant pour l’art, l’histoire et la pensée que Versailles. Versailles ne représente qu’un homme et un règne; Anvers représente tout un peuple, et plusieurs siècles” (Hugo 2002a: 754)].

Modu horretan, Hugoren egunkariko ardatz nagusietako bat aurkitu dugu: nazioen iraganaren garrantzia (“zer da iraganik gabeko herri bat?”, galdetuko du geroxeago), kasu honetan hiri baten arkitekturan gorpuztua. Bi ohar egin behar dira. Lehenik, aipamen horretan Bordelen gaude, ondorioz, nazio frantsesaren iraganaz ari da. Bigarrenik, nazioa Versaillesen bitartez irudikatutako erregeari kontrajartzen dio; ulertzen ahal da nazioa eta estatua alderatu nahi dituela, baina nik uste dut nazioa eta

politika ere kontrajartzen ari dela. Horren baieztapena bertze sinbolo baten bidez eskainiko digu Hugok.

Baionako katedrala bisitatzera joan zelarik, Bordeleko St Michel elizan bizitakoa, erromantizismo benetan beltzaren eszena izugarria, etorri zitzaion burura. Bordeleko eliza hartako hezurtegia ikustera jaitsi zen eta bertako ikuskizunaren deskripzioa egin zuen, estilo dotore eta poetiko batean. 70 bat gorpuren momiak zeuden ikusgai, zaharrena duela 800 urtekoa, eta 70 urtekoa berriena. Deskripzioari hausnarketak jarraitzen dio:

“Pentsamenduen kaos batean murgilduta nengoen. Elkar zaintzen zuten hildako haiek ez ninduten jada ikaratzen; ia-ia gustura sentitzen nintzen haien artean. Bat-batean, ez dakit nola, gogora etorri zitzaidan ezen memento horretan bertan, St Micheleko dorre haren gailurrean, nire burutik berrehun oinetara eta gauaz ez dakit zer solas misterioitsu egiten duten espektro haien gainetik, telegrafo bat astintzen ari zela eta berak ere daukan hizkuntza misterioitsu etengabe igortzen ari zela biharko egunkaria osatuko zuten txikikeria horiek guztiak. Ez naiz inoiz memento horretan bezain ongi ohartu zirrara pizten digun guztiaren hutsaltasunaz. Zer poema St Micheleko dorre hura! Zer kontrastea eta zer irakaspena! Dorre puntaren gainean, argitan eta eguzkitan, zeru urdinaren erdian, karriketari lanpeturik dabilen jendetzaren begien aurrean, telegrafo batek xehetasun osoz erratan eta zerrendatzen ditu eguneko historiaren eta ordu laurdeneko politikaren huskeria guztiak. Espartero erori berria, Narvaez berriz etorria, Mendizabal, Lopezek uxatua, gertakizun mikroskopiko handiak, diktadore bihurtzen diren ipotxak, tirano bihurtzen diren agitatzaileak, pasatzen den gizakia eta ihes egiten duen unea osatzen duten txikikeria guztiak; eta bitartean, dorrearen oinarrian, bere euskarriaren erdian, errainu batek eta hots batek ere ukitzen ez duten kripta hartan, iluntasunean, biribiletan eseritako espektro bilera batek hilobiaz eta betikotasunaz ahopeka solas egiten du” (Hugo 2002a: 773)

“J’étais plongé dans ce chaos de pensées. Ces morts qui s’entretenaient entre eux ne m’inspiraient plus d’effroi; je me sentais presque à l’aise parmi eux. Tout à coup, je ne sais comment il me revint à l’esprit qu’en ce moment-là même, au haut de cette tour de St Michel à deux cents pieds sur ma tête au dessus de ces spectres qui échangent dans la nuit je ne sais quelles communications mystérieuses, un télégraphe [...] s’agitait [...] et jetait l’une après l’autre à travers l’espace dans la langue mystérieuse qu’il a lui aussi, toutes ces choses imperceptibles qui demain seront le journal. Jamais je n’ai senti que dans ce moment-là la vanité tout ce qui nous passionne. Quel poème que cette tour de St Michel! Quel contraste et quel enseignement! Sur son faite, dans la lumière et dans le soleil, au milieu de l’azur du ciel, aux yeux de la foule affairée qui fourmille dans les rues, un télégraphe qui [...] dit et détaille minutieusement toutes les pauvretés de l’histoire du jour et de la politique du quart d’heure. Espartero qui tombe, Narvaez qui surgit, Lopez qui chasse Mendizabal, les grands événements microscopiques, les infusoires qui se font dictateurs, [...] les vibrions qui se font tyrans, toutes les petites choses dont se compose l’homme qui passe et l’instant qui

fuit, et pendant ce temps-là, à sa base, au milieu du massif sur lequel la tour s'appuie, dans une crypte où n'arrive ni un rayon ni un bruit, un concile de spectres assis en cercles dans les ténèbres parle tout bas de la tombe et de l'éternité" (Hugo 2002a: 773).

Hain aipamen luzea sartu izanagatik barkamena eskatu behar diot irakurleari, baina uste dut merezi duela. Berriz ere, binakako bereizketa baten aitzinean gaude. Alde batetik, elizaren azpiko momien isiltasuna, egoskortasuna, betikotasuna; bertze aldetik, goian, eguneroko politikaren bat-batekotasuna eta iragankortasuna. Lur gaineko iraultza politikoak, biziki ikusgarriak izan arren, agudo pasatzen dira; lur azpiko hildakoek, ikusezinak izaten badira ere, beren horretan jarraitzen dute. *Orainaldiko* azalean sortzen diren (ustezko) lurrikarek ez dute eraginik *iraganeko* sakontasunean.

St Micheleko dorrekoak laguntzen digu Bordeleko hiriar buruzko iruzkina ulertzen. Bordele-Versaillesek politikaren iragankortasuna irudikatzen du; Bordele-Anberesek, berriz, iraganeko sakontasuna. Kontrajarritako osagai horiek, nazioa estatuaren aldean, iraganaren betikotasuna iraultzaren bat-batekotasunaren aldean, horiek dira Victor Hugok Euskal Herrira eramán zituen tresna analitikoak.

"Iraultzek, beraz, gaizki darabilte iragana. Iragana daukan orok die beldur" (Hugo 2002a: 782; Koldo Izagirrereren itzulpena, Hugo 2002b: 93). Eta Euskal Herriak badauka iragana. "Iraultza ez da lorazaina: Jainkoaren hatsa da" (*ibid.*). Nire ustez, bi esaldi horiekin, pasarte gehiagorik hona aldatu gabe, nahikoa litzateke Victor Hugoren pentsamendua ulertzeko. Iraultzek, Frantziako Iraultzak zein Espainiako iraultza liberalak, askatasun berria ekarri dute, eta askatasun horretan oinarrituta, aro berri bat sortu nahi izan dute. Baina iraultzaileek ez dute jakin nahi izan nazioek ere badutela iragan bat. Iragana ezeztatu, ezabatu nahi zuten Frantziako iraultzaileek, iraultzaz aurretiko garaietan absolutismoa bertzerik ez zegoelakoan. Baina iragan horretan absolutismoa ez ezik, askatasun zaharrak ere baziren, errate baterako, Euskal Herriko foruak. Gogora dezagun orain zer zioen Dembowskik eta zer dioen Hugok berak ere: askatasun zaharrek beldur diote askatasun berriari, eta arrazoi osoz beldur diotela gainera genezake, iraultza ez baita lorazaina (ez da belar txarrak belar onetatik bereizten ibiltzen), Jainkoaren hatsa baizik (dena apurtu egiten du, bereizketa finik egin gabe). Horregatik Hugok erraten zuen akats bat zela pentsatzea euskaldunak bezalako herri batek Frantziako berrikuntzei harrera ona emango ziela. Askatasun berriak zer ekarriko zuen jakin ezinean, beren libertate foral zaharren alde aritu ziren euskaldunak, karlistekin bat eginda.

Frantziako Iraultzaren ondorioez ari da pentsatzen Hugo; gogoeta hori, bertzalde, Iraultzaren aldekoa da, ez aurkakoa, erran nahi baita, iraultza liberala nola hobetu, askatasunak nola sakondu da Hugok egiatan pentsagai duena. Iraultzak, Frantzian, iragana ahaztu eta baztertu nahi izan zuen, eta, ondorioz *la Vendée*-ko jazarraldia piztu zen; Espainiako liberalek akats berbera errepikatu dute, eta euskal karlisten erantzuna sortu dute. Ongi daude iraultzak ekarri dizkigun askatasunak –laburbil genezake Hugoren mezua– baina garaia da ulertzeko politika ikusgarriaren azpitik nazioen iragana dagoela, eta iragan hori, ikusezina izan arren, oso kontuan hartzekoa dela. Historia berreskuratzearen aldeko hausnarketa da Hugok egin duena.

Beraz, bere ohar laburretan, Victor Hugok europar mailara eramaten zuen Euskal Herriari buruzko eztabaida, Frantses Iraultzak Europa osoan irekia zuen aro berriaz eta hark sortzen zituen arazoez ari baitzen. Azken batean, bere pentsamenduek edozein herritarako balio lezakete. Baina, bertze aldetik, nazioen iraganaren inguruko bere arazoibidea garatzeko bi nazio hartzen zituen adibide: frantses nazioa (Bordelen bezala) eta euskal nazioa. Horrek euskaldunak nazio gisa aurkeztea eskatzen zuen, eta hori Hugok, lehen Dembowskik bezala, errotiko modu batean egin zuen. Donostiara ailegatuta, honako hauek ziren bere pentsamenduak:

“Badakizu non naizen? Hiri xarmagarri batean. Donostian. Eta zertako naizen hemen? Zergatik etorri naizen hona? Ez dakit egiazki. Gogoak eman dit Espainian sartzeko, eta horra. Baina Espainian ote naiz?”

“Donostia lotua da Espainiari, Espainia Europari lotua den gisan, lur-mihi batetik. Uhartea da abantzu. Eta beste hainbat gauzatan bezala hemen ere itxura fisikoa egoera moralaren iduria da. Oza izan liteke nehor espainiarra Donostian; euskaldunak dira bertakoak oro. Gipuzkoa da hau, foruen herri zaharra, euskal probintzia libre zaharrak. Ongi da gaztelera apur bat hitz egitea; baina *basquense* hitz egiten da hemen bereziki” (Hugo 2002a: 780; Koldo Izagirreraren itzulpena, Hugo 2002b: 89).

[“Savez-vous où je suis? Dans une charmante ville. À St Sébastien. Et pourquoi y suis-je? À quel propos y suis-je venu? Je ne le sais en vérité pas. L’idée m’a pris d’entrer en Espagne, et m’y voilà. Mais suis-je bien en Espagne?”

St Sébastien tient à l’Espagne comme l’Espagne tient à l’Europe, par une langue de terre. C’est une presque île. Et ici encore comme dans une foule d’autres choses, l’aspect physique est la figure de l’état moral. On est à peine espagnol à St Sébastien; on est basque. C’est ici le Guipuzcoa, c’est l’antique pays des fueros, ce sont les vieilles provinces libres vascongades. On parle bien un peu castillan; mais on parle surtout *basquense*” (Hugo 2002a: 780)].

Bascuence-ren azken aipamen hori egokia da, euskara hartzen baitu Hugok euskal izaeraren ikur nagusitzat. Horrela adierazten du:

“Euskaraz sortu, euskaraz mintza, euskaraz bizi eta euskaraz hil. Euskara aberri da hemen; erlijio, esanen nuke kasik. Esaiozu euskarazko hitz bat baseritarrari mendian; hitz horren aitzinetik, doi zinen gizon bat harendako; hitza esandakoan, anaia zaitu. Espainiera atzerriko da hemen, frantsesa bezala” (Hugo 2002a: 781; Koldo Izagirrearen itzulpena, Hugo 2002b: 90).

[“On naît basque, on parle basque, on vit basque et l’on meurt basque. La langue basque est une patrie, j’ai presque dit une religion. Dites un mot basque à un montagnard dans la montagne; avant ce mot, vous étiez à peine un homme pour lui; ce mot prononcé, vous voilà son frère. La langue espagnole est ici étrangère comme la langue française” (Hugo 2002a: 781)].

Euskal Herrira etorrira, Hugok bere buruari egin zizkion galderak ez ziren sobera originalak, erran dudan bezala. Eman zituen erantzunak, banan-banan hartuta, ezta ere. Izan ere, erantzun horietako asko agerian daude, nire ustez, Dembowskiren liburuan, eta Ingalaterran antzeko gogoetak aurkitzen ditugu. Nire iduriko, Hugoren originaltasuna eta garrantzia intentsitate kontua da. Arrazoibide maisuki eratu baten bidez euskal arazoa Europako testuinguruan –iraultzaren ondorengo testuinguruan, hain zuzen ere– kokatu zuen. Karlistaldia bukatu zela soilik lau urte zirenean, atzerrian bakarrik egin zitekeen pentsamendu ariketa sakon hori: Espainian, prentsa liberaleko orrialdeetan, 1840ko hamarkadan euskal karlistak odolaz goseturiko basatiak bertzerik ez ziren (ikus Sánchez-Prieto 2004). Hala ere, interesgarriak edo ez, 1890 arte Hugoren gogoeta mamitsuak ez ziren argitaratu.

4. Ikuspegi bat Alemaniatik: Adolf Loning.

Mémoires sur la guerre de la Navarre et des provinces basques liburuaren hondarreko orrietan, Alphonse Barrès du Molardek armada karlistako ofizial atzerritarren zerrenda ematen du. Horri esker jakin dezakegu Adolf Loning kapitaina izan zela eta *Baïonnette* goitizenez ezaguna zela (Barrès du Molard 1842: 427; zerrenda osorako, 421-427). Loningek berak dio jendeak *Don Adolfo* deitzen ziola (Loning 1844: 218).

Edonola ere, *Don Adolfo* liburu honetan sartzeak arazoren bat sor lezake. Bi libururen egile dugu, bata 1843koa, euskal foruei buruzkoa, eta bigarrena, *Espainiar*

herria –Das spanische Volk– izena duena, karlistaldiari buruzkoa. Loningek ere foruak ikusten zituen euskaldunak karlismoaren alde agertu izanaren sorburuan; izan ere, horregatik erabaki zuen lehen liburua idaztea, foruak zer diren azaltzeko hain justu. Azalpen horri behar-beharrezkoa zeritzon, are gehiago kontuan hartuta “zatika gerlaren berri eman duten nire aurrekarietako inork ez duela foruak zehatz-mehatz deskribatzeko lana hartu” (Loning 1843: 36). Asmo zinez gogoangarria Loningek hor adierazi duena, baina beldur naiz *Baïonnette*-k ez digun egia osoa kontatu. Bere “aurrekarien” artean bada foruen xehetasunak aztertu dituenik, eta Loningek bazeukan horren berri. Arras berri zehatza, erantsiko nuke, aurrekari horren liburua lotsagabeki plagiatu baitzuen gure bidaiari alemaniarrak. Charles Joseph Edmond Sain de Bois-le-Comtek *Euskal probintzien gaineko saiakera historiko*-aren lehen orrialdeetan, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako foruen ezaugarriak zeint ziren aditzera eman zuen, gerla karlista hobeki ulertarazteko asmoz (Bois-le-Comte, 1836). Loningek 1843an argitaratu zuen liburua Bois-le-Comterenaren hitzez hitzeko itzulpena da gehienbat.

Tomas Zumalakarregiren bizitza gogorra izan zen askotan. Hirurteko liberala deitzen den epean gobernuaren kontrako jazarraldietan parte hartu zuenetik, geroago etorriko ziren gobernu liberal guztien aitzinean susmagarri bihurtu zen. Baina 1820-1823 tarteko denboraldian berak bezala jokatu zuten batzuk goi mailako postuetan ikustea zen benetan haserrea pizten ziona. Quesada jenerala zen horietako bat, eta behin Zumalakarregik haren jarrera aldakorra aurpegiratu zion. Pasadizoa 1844ko *Das spanische Volk* izeneko liburuan kontatzen du Loningek: “behin baino gehiagotan Zumalakarregirengandik berarengandik aditzeko aukera izan dut, eta horregatik ezin izan dut aipatu gabe utzi” (Loning 1844: 129).

Anekdotek bizitasuna ematen diote narrazioari eta haren interesa handiagotu egiten dute, are gehiago lehen eskukoak direlarik, narratzaileak berak bizitakoak. Zoritxarrez, hori ez da Loningen kasua. Quesadarekin gertaturiko pasadizoa ez dakit behin baino gehiagotan Zumalakarregiren beraren ahotik entzuteko parada izan zuen, baina horren narrazioa, berriro ere, hitzez hitz kopiatu zuen bertze liburu frantses batetik, Alexis Sabatierren liburutik hain zuzen ere. Hark jeneral karlistaren biografia labur bat eskaintzen du liburuaren hasieran, eta biografia hori oso-osoa itzuli zuen Loningek frantsesetik alemanera, iturria aipatu gabe, noski (konpara Sabatier 1836: XXII eta ondorengo orriak, eta Loning 1844: 124 eta ondorengo orriak). Loningen bigarren liburuan ez dut plagio gehiagorik atzeman, baina gehiago egoteak ez ninduke batere harrituko.

Orain, zilegitasun osoz, irakurleak galde lezake zergatik erabaki dudan Loning bezalako plagiogile bat aztertzea. Bertzeen ideiak ebasten zituen norbaitek ezin baitu gauza berririk ekarri eztabaidara, bereak ez diren iritziak saldu nahian dabil eta. Alde batetik, dagoeneko erran dut Loningek ez zuela den-dena plagiatu (nik dakidala, behinik behin); eta, bertze aldetik, are garrantzitsuagoa dena, ez dut uste plagioak sormen lana modu erabatekoan baztertzen duenik, zer plagiatu eta nondik kopiatu aukeratu behar baita. Zenbait liburu edo zenbait libururen zenbait pasarte lapurtzera deliberatu bazuen, uste izatekoa da liburu edota pasarte horiek interesgarriztat joko zituela. Interesgarri, ikuspuntu komertzial batetik, haiekin Alemaniako merkatuari begira liburu duin eta saltzeko moduko bat egiten ahal zelakoan; eta interesgarri, ikuspuntu intelektual batetik, liburu edota pasarte horiek iruzkin mamitsuak egiten zituztelakoan. Nire ustez, beraz, Loningek bertzeen materialak ostu eta haiekin bere ikuspuntua osatu zuela.

Izan ere, Loningen testuek kontrapuntu interesgarri bat eskaintzen dute Victor Hugorenekin alderatuta. Loningenak, erran beharrik ez dago, askoz sinpleagoak dira. *Espainiar herria* liburuan Espainia –titulutik espero zitekeenez– dauka aztergai; testuinguru horretan, euskaldunak penintsula osoan gertatzen den fenomeno baten aldaera bat bertzerik ez dira:

“Estatu batean bilduta, zetro baten azpian egonik eta nazio baten izena daramalarik, munduan ez dago Espainiak adina barneko ezberdintasun duen herririk. Galiziarra guztiz arrotza da nafarrarendako, eta andaluziarra katalanarendako. Arropaz ez ezik, etxegintzaz eta baita hizkuntzaz ere zeharo ezberdinak dira elkarrengandik” (Loning 1844: 201).

“Wohl kein Land der Welt, welches einen zusammenhängenden Staat bildet, unter einem Scepter steht und eine Nation mit demselben Namen in sich enthält, ist mehr unter sich verschieden, als Spanien. Ganz fremd ist dem Navarresen der Galizier, der Andalusier dem Catalanier. Nicht allein durch ihre Kleidung, sondern auch im ganzen häuslichen Wesen, ja sogar in der Sprache sind sie gänzlich verschieden” (Loning 1844: 201).

Ikuspuntu orokor horrekin bat eginez, geroago euskaldunen pilotazaletasunaz mintzaten da Espainiako joko eta apustuekiko zaletasunaz ari delarik (Loning 1844: 264-265).

1840ko hamarraldiko hainbat idazleren antzera, Loningek ere garrantzia handia eman zien foruei gerla karlistan. Hala ere, 19. mendeko Espainian piztutako gerla zibilen sorburuan Frantziako berrikuntzak ekarri nahi izana kokatzen du Loningek.

Espainiarrek Napoleon garaitu bazuten ere, Espainiako inbasioak “mundu-konkistatzaile horri onurarik ekarri ez bazion ere”, Frantses Iraultzaren ideiak zabaldu ziren penintsulan; ondorioz, espainiarrek berek konstituzio berri bat egitea beharrezkotzat jo zuten (Loning 1843: 4). Hugok bezala, Loningek ere Europako testuinguru orokor batean kokatzen du bere hausnarketa, Hugoren kontrako bidetik jotzeko.

Bertze modu batean erranda, Loningek ez du iraultzak ekarritako askatasuna sakondu nahi, baizik eta askatasun hori ahalik eta gehien mugatu. Idazle alemaniarrarentzat, euskaldunek karlismoaren alde egin izana erabat normala zen, ez zegoen deus azaldu beharrik. Egia da karlismoak erregezko absolutismoa defendatzen zuela eta euskaldunek, beren aldetik, erregearen boterea mugatzen zuten foruak zituztela; baina gerlan biek bat egin izana, hainbertze idazle harritu zuena, ez omen zitzaion arraro iduritu *Don Adolfori*. Alderantziz, ziurrenik logikoentzat hartu zuen, bere ikuspuntutik foruak Espainiako libertate tradizionalak baitziren.

Victor Hugoren iritziz, iraultzaren gehiegikeriak zirela kausa, horren kontra aritu ziren askatasun zaharren zaintzaileak (eta bakarrik horregatik elkartu ziren karlistekin). Gehiegikeria horiek zuzenduz gero, iraultzaren aurreko eta ondorengo libertateek bat egin lezakete. Adolf Loningen ustez, iraultza liberala berez txarra zen, eta Espainiak tradizioari eutsi behar zion (eta foruek berezko tokia zuten espainiar tradizio horren barnean), Frantziatik zabaltzen ari ziren ideia berriei aurre egiteko. Horren frogagarri, hauxe da Loningen proposamena, liberalen eta karlisten arteko etsaitasuna bukatzeko:

“Gaurko egoera noiz akituko den, hori Jaungoikoak daki! Baina nire iritziaz galdetuko balitzait, honako erantzun hau emanen nuke: Konstituzioa ken dadila, Erregezko Estatutua berriz indarrean jar dadila, karlistak eta moderatuak elkar daitezela, eta *exaltados* direlakoak herritik uxa ditzatela, Isabel Asturiaseko printzearekin²⁹ ezkon dadila eta euskaldunei beren foruak, eskubide ororen kontra kendu zizkietenak, itzul dakizkiela; orduan Espainia baketsu eta zoriontsu izanen da. Bake iraunkor batek segidan sendatuko lituzke hamar urteko gerra zibilak eragindako zauriak” (Loning 1843: 33-34).

“Wann aber die jetzige Zustand aufhören wird, das weiß Gott allein! Würde ich um meine Meinung gefragt, wo würde ich zur Antwort geben: Man hebe die Constitution auf, stelle das Estatuto Real wieder her, vereinige Carlisten und Moderados, und jage die Exaltados aus dem Lande, verheirathe Ysabel mit dem Prinzen von Asturien und gebe den Basken die Fueros wieder, die gegen alles Recht ihnen genommen worden; alsdann wird Spanien ruhig und glücklich sein. Ein dauerhafter

²⁹ Karlista zen aldetik, Loningendako Asturiaseko Printzea Don Carlosen semea zen.

Friede würde bald die Wunden heilen, die ein zehnjähriger Bürgerkrieg geschlagen hat” (Loning 1843: 33-34)].

Hitz ximpleetan laburbilduta, Loning tradizionalista zen, Hugo liberala. Jarrera politikoez haratago (eta bakoitzaren lanaren kalitatea kontuan hartu gabe), uste dut bereziki argigarria dela biak alderatzea. Antzeko abiapuntu batetik hasi, osagai berdinak aztertu eta ondorio guztiz kontrajarrietara ailegatu ziren. Bidaia-literaturaren irakaspena da: bidaiariak barnean zer daraman, aurrean dagoena hainbat modutan ikusten ahal da.

EUSKALDUNAK, ETXETIK ETA KANPOTIK IKUSIAK.

1. *Emakume baten bizitza karlisten artean.*

Egia da 19. mendeko bidaiari gehienak gizonak zirela; horrek, nire ustez, are liluragarriago bihurtzen du emakume baten bidaia-narrazioa. Euskal Herrira etorritako emakume-bidaiariak gutxi izan ziren. Hasieran Van Eyss andrearen pasadizo bat aipatu dut, hemengo sukaldaritzara moldatu ezinean, euskaraz “baratxuri gabe” erraten ikasi zueneko hain zuzen. 1866an penintsulan zehar ibili zen Elisabeth Herbert ingelesa eta euskaldunen inguruko zenbait iruzkin egin zituen *Impressions of Spain* liburuan; haiek, dena den, Richard Forden urratsen atzetik eginak dirudite (bertzeak bertze, Salomon eta Nabukodonosor kontua errepikatzen du Herbertek – aipatua in Sánchez-Prieto 2004). Van Eyss baino mamitsuagoa eta Herbert baino originalagoa, bigarren karlistaldiaren hasieran, Bizkaian, Portugaleten, Ellen Burges bizi zen (“1872 urteko udazken eta neguan”, zehazten digu berak – Burges 1874: v). Bilbo inguruko meategietan lan egiten zuen familia ingeles bat bisitatzera etorri zen (familia honekiko harremana zein zen ez du inoiz argitzen, eta bertzalde, izenak eman ez eta hizki batez izendatzen du familiako jendea; ezin jakin, beraz, ahaide edo soilik adiskide ote zituen), karlisten altxamendua Bizkaian indarra hartzen ari zen unean. Izan ere, liburuan nabaria da bilakaera bat, hasierako lasaitasunetik egoera gero eta larriago batera doana: “Lehendabiziko aldiz, gizonei ordaintzera meategira joatearen beldur da A.”, irakur dezakegu 1873ko martxoaren leko gutunean (Burges 1874: 119). Azkenik, izan ere, familiak utzi egin behar izan zuen Portugaleteko etxea.

Hurbiltasuna da Burgesen liburuaren bertuteetako bat. Egunkari batek eta gutunek osatzen dute liburua. Burgesek berak idatzitako gutunek eta A.k eta R.k (Portugaleteko familia ingelesaren bi kidek) izkiriaturakoek, Burges Ingalaterrara itzuli eta gero. Horretaz gain, liburuaren bigarren zatia “Espainiako iparrari buruzko ohar orokorrak” du izena, familiaren gizonezko kide batek moldatua. Horrenbestez, liburuak, Ellen Burgesek sinatu arren, hainbat ahots dauzka. Liburuaren lehen zatia bi ataletan banatzen da: hasieran, Burgesen egunkari zatikiak eta gutunak ditugu; gero, 1873 urteko gertakizunen berri A. eta R.-ren gutunen bitartez izaten dugu. Bigarren zatia, gizonezkoak idatzia, ohiko bidaia-liburu baten antzekoagoa da. Bertzeri hitza eman

izana idazleak justifikatzen du erranez, haien esperientzia Bizkaian luzeagoa zela eta, bigarren zatiaren egilearen kasuan, hark “bi urte eman zituela Espainiako alde horretan” eta gaztelaniaz ere bazekiela. Egia da “Espainiako iparrari buruzko ohar orokorrak” atalaren prestatzaileak meategiei eta burdinari buruzko xehetasun teknikoak ematen dituela, baina bertze kontu batzuetan bat egiten dute berak eta Burgesek. Biek, adibidez, modu berean alderatzen dituzte meategietan lan egiten zuten bizkaitarrak eta etorkinak. Honako hau dio Burgesek 1872ko urriaren 22ko eskutitzean:

“Bizkaitarrak, gainera, arraza askoz kementsuagoa eta saiatuagoa dira; eta igande edo jaiegun batean ikusten ditugunean, lan ugaritasunak erakarrita auzo hauetara etorri diren Gaztelako langileen artean, haien itxura txiki eta zarpailtsua bizkaitarren eite gihartsu eta ongi jantziarekin elkartuta ikusiz, bien arteko aldeak harritu egiten gaitu” (Burgesek 1874: 48).

[“They [the Biscayans] are, besides, a far more vigorous and industrious race; and when on a Sunday or holiday we see amongst them the Castilian labourers, whom abundance of work has brought into the neighbourhood, we are struck by the contrast of their ragged, puny looks with the sturdy, well-clothed aspect of the Biscayans” (Burgesek 1874: 48)].

Eta honako hau dio liburuaren bigarren zatiaren egileak:

“Meategietan lan egiten duten langileak inguruko herrietatik datoz nagusiki, nahiz eta oraingo lan-eskaintzaren handiagotzeak jende anitz etortzera bultzatu duen hegoaldeko probintzietatik. Bien arteko aldea arrunt harrigarria da, bizkaitarrak gizon indartsuak eta, eskuarki, langile on eta irmoak izanik, eta hegoaldetarrak, berriz, txikiak, ahulak eta ia-ia baliogabeak” (Burgesek 1874: 195-196).

[“The workmen employed in the mines are chiefly from the neighbourhood, though the present increased demand has caused the immigration of large numbers from the southern provinces. The contrast between the Biscayans, who are fine powerful men, and, as a rule, good steady workmen, and the Southerners, who are small, weak, and almost useless, is very striking” (Burgesek 1874: 195-196)].

Hau ez da bat-etortze bakarra. Biek, adibidez, euskaldunen ustezko nobleziari buruz ohar berdinak egiten dituzte (Burgesek 1874: 48 eta 173-174). Ez dirudi, beraz, bigarren zatiaren egileak gauza handirik gaineratu duenik; izan ere, susmoa dut liburuaren egitura bereziak baduela zerikusirik idazlea emakume izatearekin. Liburuan, emakumeak idazkera forma pribatuak landu ditzan onartzen da, baina bidaia-narrazioaren forma publikoa gizon baten esku uzten da. Berriz diot, meatzeko alderdi

teknikoak dira bigarren zatiak gaineratzen duen puntu berezia; gainerakoetan, ez dago hain ezberdintasun nabaria Burgesek idazten duenaren eta gizonezko idazlearen artean. Nire ustez, hau da gertatzen dena: Burgesek, autoritatezko diskurtso bat osatu behar den mementoan, tokia uzten dio gizonezko egileari. Kontua, beraz, ez da Bizkaian denbora luzez edo laburrez bizi izana; kontua da nork (emakumeak ala gizonak) nola (forma pribatuan edo publikoan) hitz egin dezakeen. Liburuaren egiturak sexuen arteko harremanak islatzen ditu.

Harreman horietaz zuzenki mintzatzen da Burgesen liburuan. R.-k, Portugaleteko etxean bizi den andre ingelesak, kontatu zio ezin izaten omen zela bakarrik paseatzera atera:

“R. etsita dago ohartzeaz ezinezkoa zaiola bakarrik paseatzera joatea, etxetik hurbil bada ere. Hasieran, horretaz espainiarrek erraten ziotena ez zuen sinetsi nahi izaten, eta pasealekuan eta dikean zehar laguntzailerik gabe ibiltzen saiatu zen, zaila baita egun eder batean kanpoko aireaz gozatu gabe gelditzea; baina saio gutxi batzuk egin ondoren amore eman behar izan zuen. Espainiako gizon alferrek ez dute babesik gabeko emakumezkoenganako errespeturik, eta uste omen dute arreta bereganatu nahian dabiltzala, hogeita hamabost edo berrogei urtetik beherakoak izanik, alboan *dueña* bat gabe irtetera ausartzen badira” (Burges 1874: 54).

[“R. is disappointed to find how impossible it is for her to go about alone, even close to home quarters. She was not quite disposed at first to believe what Spaniards told her on this subject, and attempted to walk on the esplanade and the pier without a companion, for it is hard on a fine day not to be able to enjoy the outer air; but she was obliged to give it up after very few trials. The idle men of Spain have no respect for unprotected females, and seem to suppose that they challenge notice if, being under thirty-five or forty, they venture out without a duenna” (Burges 1874: 54)].

Zertzelada polita, nire ustez, garai hartako hemengo gizarteaz.

Bertze gai batera joanez, bigarren gerla karlistak lehenagoko irudiak piztu zituen berriz ere. Horrenbestez, euskaldunek independentzia lortzeko borrokatzen ote zuten galdetzen da orain Burgesen liburuan, lehen gerlako garaian bertze liburuetan galdetzen zen bezala. Momentuz, gauzak zeuden bezala egonik, euskal probintziek estatu ia-ia independente bat osatzen zuten, idazlearen ustez:

“Espainiako iparraldeak, edo, zehazkiago, euskal probintziek, zeinetan Bizkaia garrantzitsuena baita, izenez Gobernu zentralaren agindupean egon arren, alderdi askotan Estatu independente baten

egoera daukate; berezko legeak edo ‘Fueros’ dituzte eta bertze probintziei ukatzen zaizkien pribilegioez, adibidez soldaduskatik libre egoteaz, gozatzen dute” (Burges 1874: 165)³⁰.

[“The North of Spain, or, more strictly speaking, the Basque Provinces, of which Vizcaya is the most important, though nominally subject to the authority of the central Government are in many respects in the position of an independent State, having their own peculiar laws or ‘Fueros’, and enjoying many privileges, such as exemption from military service, which are not accorded to other provinces” (Burges 1874: 165)].

Burges etxean hartu zutenek, A.-k eta R.-k, iragartzen dute Espainian errepublika federala ezarriko balitz, bi ondorio izanen litzatekeela: litzatekeela: karlisten eta Alfonso printzearen jarraitzaileen arteko borroka, eta euskal independentzia (Burges 1874: 121-122).

Gerla berriz piztuta, sortzen diren irudi berriek lehendabiziko gerlakoekin bat egiten dute, lehen karlistaldiaren ondorengo irudiek aurreko irudiekin bat egiten zuten bezala. Burgesen liburua horren isla argia dugu.

2. *Euskal Herria entziklopedia batean.*

Orain arte komentatu ditudan testu guztiei erabat subjektiboak izatea lepora lekieke. Behin baino gehiagotan azpimarratu dut bidaiari gehienak ez zirela zientzialariak eta, horrenbestez, beren irudipenak paper txuri baten gainean paratzean ez zutela tesi bat egiteko asmorik. Humboldt izan liteke ikuspegi orokor horretan salbuespen bakarra; hala ere, bere lan agian zientifikoena, *Prüfung* izenekoa, baztertu egin dut eta bidaiatestuak komentatu ditut batik bat. Humboldt alde batera utzita, beraz, erabili ditudan testu guztietan subjektibotasuna dela nagusi erran liteke. Horregatik guztiarengatik uste dut zientifikotzat jotzen ahal den testu bat ekartzea interesgarria izan daitekeela. Nire xedea zientzia bera ere ez dela diskurtso neutral bat erakustea da. Aztertuko dudan adibidean, zientzia hori kolonialismoaren –Frantziako barne-kolonialismoaren– zerbitzuan dago, eta batzuetan ikerketa objektuaren inguruan (euskaldunen inguruan alegia) nahiko iritzi ezkorrak, eta are iraingarriak, defendatzen ditu. Bitxiena da, beharbada, ikuspegi gutxiesgarri hori Humboldten lanean duela euskarrietako bat (zeharkako moduan bada ere).

³⁰ Iritzi hau gizonezko idazleak egindako zatitik hartua dago.

Idazlan zientifiko baten eske entziklopedia batera jo dut, bertan testu maneigarri baina aldi berean behar bezain esanguratsu eta mamitsua aurkituko nuelakoan. Aukeratutakoa *La Grande Encyclopédie* izan da, Marcelin Berthelot-ek bultzatua, 1885-1902 tartean argitaratu zena (Ory 1997: 227). Bilduma hartako bosgarren tomoan (*Baillièrè* hitzetik *Belgiojoso* hitzera hartzen duena) “BASQUE (Pays)” izeneko artikulua daukagu. Horren sinatzailea, bertzalde, Julien Vinson da. Hark 19. mendearen azken urteetan euskarari eta euskal kulturari buruzko hamaika ikerlan prestatu zituen, beti erudizioz beteta eta beti azken ekarpenak kontuan hartuz. Artikulua egilea, hortaz, lehen mailako ikertzailea zen euskal ikasketen alorrean.

Entziklopedietan ohikoa denez, objektua definituz ematen dio hasiera Vinsonek artikulua honi. Euskal Herriak, Frantzian, Behe-Pirinioetako Departamenduaren heren bat baino apur gehiago hartzen du; historikoki eta politikoki hiru lurraldek osatzen zuten: Lapurdik, Nafarroa Beherakoak eta Zuberoak (Vinson d.g.: 610):

“Espainian, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko euskal probintziak ez dituzte mugak aldatu; baina Nafarroa erantsi behar da, eskualde egiazki euskalduna bere osotasunean ikertu nahi badugu” (Vinson d.g.: 610).

“En Espagne, les provinces basques de *Guipúzcoa*, d’*Álava* et de *Biscaye*, n’ont point varié de limites; mais il faut y joindre la *Navarre* si l’on veut étudier l’ensemble de la région véritablement basque” (Vinson d.g.: 610).

Euskal geografiaren gaineko lehen ohartxo honetan bada laborantzari buruzko iruzkin bat, gero etorriko dena iragartzen diguna:

“Lur lantzeari dagokionez, klima goxo samar bat edukitzea biziki onuragarria da. Euriak ugariak eta oso oparoak dira. Haatik, laborantzan, *bertze gauza anitzetan bezalaxe, euskaldunak ez daude oso aurreratutak*” (Vinson d.g.: 610, nik azpimarratua).

[“Quant aux cultures, la douceur relative du climat leur est extrêmement favorable. Les pluies sont fréquentes et très abondantes. Et cependant en agriculture, *comme sous beaucoup d'autres rapports, les Basques sont très peu avancés*” (Vinson d.g.: 610; nik azpimarratua)].

Geografiaren ondoren, euskaldunen deskripzio fisikoa dator. Bertan, Vinsonek azalezko oharrak (“gizonak altuera ertainekoak dira, indartsuak, malguak, zaluak, baina zenbaitetan bereziki traketsak” – 611) mendearen erdiaz geroztik antropologia fisikoak

egindako ekarpenekin (euskaldunek burezurra honela edo horrela dute) nahasten ditu. Baina askoz mamitsuagoa da ohiturei buruzko atala: “Gaurko euskaldunak, zalantzarik gabe, aurreiritziz beteta daude” (Vinson d.g.: 611). Beren tradizioei atxikiak, euskaldunak, ezjakinak izanagatik, maitagarriak dira, xarmantak (eta uste izatekoa da ezjakintasun horrek haien xarmaren zati handi bat egiten duela). Hala ere, Vinsonek egiten duen erretratuak ez du iraingarria izan nahi, paternalista baizik; euskaldunak ume tolesgabeak dira, eta aita on bati dagokionez, helduen bizitzara presta daitezenez nahi du Vinsonek ere:

“Euskalduna berez buruargi, harro eta oso independentea da. Bere duintasun pertsonalaren zentzu biziki garatua dauka. Heziketa heldu da, eta lege berri batek, Frantzia bederen, heziketa haren onurak ziurtatzen dizkio; irakurketaren bitartez, bizitza materialaren hobekuntzaren bitartez, begiratzeko eta gogoetak egiteko aisialdia eta gaitasuna datoz, eta horrela euskalduna, autoritatearen printzipioari lotzen dion fetixismotik libratuak, Errepublikaren zerbitzari leialenetariko bat bihurtuko da” (Vinson d.g.: 610).

[“Le basque est naturellement intelligent, fier et très indépendant. Il possède à un haut degré le sentiment de sa dignité personnelle. Vient l’instruction, et une loi récente va, en France du moins, lui en assurer les bienfaits; viennent, par la lecture, par l’amélioration de la vie matérielle, le loisir et la faculté d’observer et réfléchir, et le Basque, débarrassé du fétichisme qui l’attache encore au principe d’autorité, prendra place parmi les plus fidèles serviteurs de la République” (Vinson d.g.: 611)].

Heziketa da aipamen honetako giltzarria. Zeren, zer daukate euskaldunak? Sineskeriak, haur-sinesmen batzuk, “berezko jatorria euskaldun gehienek ezjakintasun sakonean” daukatenak (Vinson d.g.: 612)³¹. Eta superstizio horiek kenduta, “ez dute inongo leiendarik, inongo tradizioirik, inongo oroitzapen historikorik” (612). Egia da artikuluan historiaren inguruko atal bat egon badagoela, baina horren ondorioa ezin argiagoa da:

“Euskal Herriko historia, beraz, ezin liteke begiztatu eskualde piriniarreko historiatik at, Frantziako eta Espainiako historiatik at” (Vinson d.g.: 612).

[“L’histoire du pays basque ne saurait donc être considérée indépendamment de celle de la région pyrénéenne, de celle de la France ou de l’Espagne” (Vinson d.g.: 612)].

³¹ “Ces superstitions, ces croyances enfantines ont leur origine naturelle dans l’ignorance profonde de la généralité des Basques”, dio jatorrizko esaldiak.

Uste dut hemen egokia izanen dela azalpen bat ematea. Edozein herritako historia ez da ulertzen ahal inguruan dauden herrietako historia kontuan hartu gabe. Zenbat eta datuen ikuspegi zabalago izan, hainbat eta hobea izanen da historia orokorra, baina baita tokian tokiko historia ere. Hau nahiko ikuspuntu arrazoizkoa iduritzen zait, eta uste dut historialari gehienak bat datozela, gatozela, puntu horretan. Baina hori ez da hemen Vinson argudiatzen ari dena. Ikerlari frantziarrak dioena da euskal historia egitea berez ezinezkoa dela, Euskal Herriak ez duela historiarik, Espainiak edo Frantziak izan dezaketen moduan. Ez du erraten Frantziako eta Espainiako bilakaera historikoa kontuan hartuta Euskal Herriko historia hobeki ulertuko denik; erraten du Euskal Herriko historia egiteak ez duela zentzurik. Eta ez du zentzurik, dio Vinsonek, litekeena delako euskaldunek nazionalitate bat, “hitzaren berezko adieran”, inoiz osatu ez izana:

“Alderantziz, litekeen-litekeena da euskaldunek, garai antzinakoenetan, tribu txiki bat bertzerik osatu ez izana, mendebaldeko Pirinioetako zenbait haranetan kantonatuta, zitekeen zibilizazio egoera oinarritzkoenean” (Vinson d.g.: 612).

[“Il est au contraire infiniment probable que les Basques n’ont jamais été, aux époques les plus reculées, qu’une tribu peu nombreuse, cantonnée dans quelques vallées des Pyrénées occidentales, et dont l’état de civilisation était des plus rudimentaire” (Vinson d.g.: 612)].

Zer daukate, beraz, euskaldunek? Eta Vinsonek erantzuten du: beren hizkuntza. Oso interesgarria ikuspuntu zientifiko batetik; guztiz arbuigarria ikuspuntu praktikoko batetik. Izan ere, “zibilizazio egoeran oinarritzko” hori hizkuntzatik beretik ondorioztatzen ahal da:

“Hizkuntza behintzat, gaurko euskararen ikusten denaren arabera, urria zen arras: ideia abstraktuak adierazteko esapiderik ez; “Jaungoikoa” hitzik ez, “lege” hitzik ez, “errege” hitzik ez; etxeko tresnak izendatzeko hitzik ez, edo oso gutxi; arma gisa, *haizkora*, *haitz* hitzetik eratorria dirudiena. Ezagaturiko eta erabilitako animaliak zein barazkiak gutxi ziren. [...] Hitz bakoitzak sinonimo anitz ditu; horrek adieraz lezake antzinako tribuek oso gutxitan komunikatzen zutela elkarrekin; adierazpide orokorrak falta dira: adibidez, animalia mota bakoitzak edo zuhaitz mota bakoitzak bere izena du, baina ez dago hitzik ‘animalia’ edo ‘arbola’ errateko; ez dago ‘soeur / hermana’ erraterik, baina arreba eta ahizpa bereizten dira. Hori guztia oso aurreratuta ez dagoen egoera intelektual baten erakusgarria da” (Vinson d.g.: 612).

[“Du moins leur langage, à en juger par le basque moderne, était très pauvre: point d’expressions indiquant des idées abstraites; point de ‘Dieu’, de ‘loi’, de ‘roi’; point ou très peu d’ustensiles

domestiques; pour arme, une ‘hache’ dont le nom *haizkora*, paraît dérivé du mot *haitz* ‘pierre, rocher’. Les animaux et les végétaux connus et utilisés étaient peu nombreux. [...] Chaque mot présente un grand nombre de synonymes, ce qui pourrait indiquer que les tribues antiques communiquaient très peu entre elles; les expressions générales manquent: par exemple, chaque espèce animal ou chaque espèce d’arbre a son nom, mais il n’y a point de mot pour ‘animal’ ou pour ‘arbre’; on ne peut pas dire ‘soeur’, mais on distingue la soeur d’un homme et celle d’une femme. C’est l’indice d’un état mental peu avancé” (Vinson d.g.: 612)].

Bertze kasuetan bezala, hemen ere zenbait itzulpen zailtasun sortzen dira. “Lege” eta “errege” errateko hitzik ez daudela dioenean, euskal jatorrizko hitzez ari da Vinson. Bere ikuspuntutik, “lege” eta “errege” hitzek ez dute balio, latinetik hartutako maileguak direlako. “Jaungoiko” hitzari dagokionez, hitz horrek “goian bizi den jauna” aditzera ematen du (beti Vinsonen arabera), eta hori ez omen da *Dios* edo *Dieu* bezain ideia abstraktua. “Ahizpa / arreba” kontuari begira, Vinsonek dioena da euskaraz ez dagoela hitz bat adierazteko andre batek norbaiten aita-ama berberak dituela, norbait hori gizonezkoa edo emakumezkoa den zehaztu gabe (frantsesezko *soeur*, gaztelaniazko *hermana*, ingelesezko *sister* eta abarreko hitzek egiten duten bezala).

Azalpenak emanda, buelta gaitezen Vinsonen artikulura. Euskarari buruzko ohar txo horiek etnologia atalaren bukaeran agertzen dira. Artikuluan, baina, hizkuntzak badu propio atal bat. Bertan, xehetasun batzuk ematen ditu (Bonaparteren euskalkien sailkapena azaltzen du, adibidez); ondoren, ikusitako iritziei bertze batzuk erantzen dizkie: gero eta jende gutxiagok hitz egiten duela; gero eta hitz arrotz gehiago onartzen direla, hizkuntza desitxuratzen dituztenak... Azkenik, ondorioak bi dira. Lehenik eta behin, euskararen interesa iraganean dago, euskara ikasi, ikertu eta ahalik eta modurik zientifikoenean aztertu behar da. Aztertu, eta baztertu, bizitza modernorako ez baitu inolako baliorik.

Horrek bigarren ondorioa (eta hasiera ikusi dugun heziketa kontura) garamatza. Euskaldunek ondare bakarra hizkuntza pobre bat da, baliabide urrikoa. Horren garrantzia ongi neurtzeko, jakin behar da puntu horretan Vinsonek Humboldti jarraitzen diola, hizkuntza eta pentsaera lotuz. Hau da, hizkuntzak gizakiaren pentsamoldea determinatzen du; ondorioz, hizkuntzak eskuarte gutxi baldin baditu, hizkuntza horretaz mintzatzen den gizakiaren pentsaera ere zakarra eta fineziarik gabea izanen da. Vinsonen adibide bat erabiltzearen, euskarak ideia abstraktuak adierazteko hitzik ez badu, horrek erran nahi du ezin dela euskaraz filosofia egin. Arestian aldatu dudana pasarte batean, Vinsonek zioen euskaraz ez zegoela hitzik “Jaungoiko”, “lege” eta

“errege” adierazteko. Frantziar ikerlariaren ikuspuntutik, hutsune linguistiko horiek gizarteko hutsuneak islatzen dituzte: “lege” hitza ez edukitzeak “legea” zer den ez jakitea adierazten du; sortzailea “goian bizi den jauna” dela uste bada, horrek oso erlijio kontzeptu sinple bat, erabat garatu gabea, agerian uzten du. Izan ere, pentsatzekoa da Vinsonek hiru hitz horiek –*Dieu, loi, roi*– aukeratu zituela antzinako euskaldunak oinarritzko hainbat alderditan arras atzeratuta zeudela erakusteko asmoz. Horri guztiari gaineratu behar zaio (dio Vinsonek), alde batetik, euskara ikastea oso zaila dela eta, bertze aldetik, hizkuntza hamaika euskalki, azpieuskalki eta aldaeratan puskatuta dagoela. Zein da, bada, aukera orduan?:

“Hizkuntzaren aldakortasun izugarriak biziki zailtzen du euskara ikastea; beharbada hitz egiteko modu guztiz berdina duten bi herri ez dira, eta hau normala da herri eskolagabe batean, *zeinak bere antzinako mintzaira ahaztea baitu bide bakarra bere herri auzoen mailara ailegatzeko*” (Vinson d.g.: 613; nik azpimarratua).

[“L’étude du basque est rendue singulièrement difficile par l’extrême variabilité de la langue; il n’est peut-être pas deux villages où l’on parle absolument de la même manière, ce qui est tout naturel chez un peuple illettré *qui ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu’un oubliant son antique langage*” (Vinson d.g.: 613; nik azpimarratua)].

Euskara ahantzi eta frantsesa (edo espainola, pentsa daiteke) ikasi. Ideia horiek ez ditugu Frantzian bakarrik aurkitzen. Gure artean Miguel de Unamunok defendatu zituen, funtsean arrazoibide berbera erabilita. Euskara (zientifikoki) ikertu eta (praktikoki) baztertu behar da. Izan ere, bilbotarra Vinsonen bide intelektual berberetatik ibilia zen, antzeko ondorioetara ailegatzeko.

Julien Vinsonek lan itzela egin zuen euskal ikasketen alorrean. Euskara ikertu behar zela uste zuen, eta uste horrekin bat eginez, modu guztiz koherente batean, zintzo, zorrotz eta ongi lan egin zuen bere ikerketetan, eta gaur egun erabiltzen jarraitzen diren lan batzuk utzi zituen. Hori ukaezina dela uste dut, eta nik ez dut, ez hurrik eman ere, zalantzan jartzen. Euskararekiko bere jarreraren bertze aldea da hemen deskribatu dudana. Edo hobeki adierazita, biak nahasiak agertu ohi dira, *Grande Encyclopédie*-ko artikuluan bezala. Euskal Herria maite zuela erran zuen behin baino gehiagotan, eta egia erraten zuen ziur aski. Hala eta guztiz ere, jarrera kolonialista batetik gauzatzen zen maitasun hori. Euskaldunak Frantziaren barneko herri basati bat ziren, bere kultura utzi behar zuena goi mailako zibilizaziora inoiz iritsiko bazen.

AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA.

1. Bidaia-liburuak.

-ADELUNG, Johann Christoph (1809), "Cantabrisch oder Baskisch", in *Mithridates oder allgemeine Sprachenkunde mit dem Vater Unser als Sprachprobe in beynahe fünfhundert Sprachen und Mundarten*, II. tomoa, Berlin: In der Vossischen Buchhandlung, 9-30. orr.

-BACON, John Francis (1838), *Six Years in Biscay: Comprising A Personal Narrative of the Sieges of Bilbao in June 1835 and Oct. to Dec. 1836. And of the principal events which occurred in that City and the Basque Provinces during the Years 1830 to 1837*, Londres: Smith, Elder & Co.

-BACON, John Francis (1994), *Seis años en Bizkaia*, Ormaiztegi: Gipuzkoako Foru Aldundia / Zumalakarregi Museoa (José Ramón Urquijok eta Mikel Urquijok itzulia).

-BARRÈS DU MOLARD, Alphonse (1842), *Mémoires sur la guerre de la Navarre et des provinces basques, depuis son origine en 1833, jusqu'au traité de Bergara en 1839, accompagnés du portrait de Maroto*, Paris: Dentu.

-BLANC SAINT-HILAIRE, Marie Jean (1894), *L'Espagne monumentale et pittoresque*, N.-D. de Lérins: M. Bernard.

-BOIS-LE-COMTE, Charles Joseph Edmond Sain de (1836), *Essai historique sur les provinces basques (Alava, Guipuzcoa, Biscaye et Navarre), et sur la guerre dont elles sont le théâtre*, Bordele: R. Teycheney.

-BORROW, George (1938), *The Bible in Spain or the journeys, adventures, and imprisonments of an Englishman, in an attempt to circulate the scripture in the Peninsula*, Londres: Everyman (lehen edizioa 1843koa da).

-BOURGOING, Jean-François (1789), *Nouveau voyage en Espagne, ou Tableau de l'état actuel de cette monarchie*, 3 tomo, Paris: Chez Regnault.

-BRAMSEN, John (1823), *Remarks on the North of Spain*, Londres: G. & W. B. Whittaker.

-BURGES, Ellen (1874), *Vizcaya or life in the land of the Carlists at the outbreak of the insurrection 1872-1873, with some account of the iron-mines in the vicinity of Bilbao*, Londres: Henry S. King.

-CONDAMIN, James (1894), “Préface”, in Blanc Saint-Hilaire (1894), V-XV. orr.

-CRUSY, Pierre Louis Auguste de (1805), *Nouveau voyage en Espagne*, Paris: Le Normant.

-DEMBOWSKI, Charles (1841), *Deux ans en Espagne et en Portugal pendant la guerre civile, 1838-1840*, Paris: Librairie de Charles Gosselin.

-DILLON, John Talbot (1781), *Travels through Spain, with a View to Illustrate the Natural History and Physical Geography of That Kingdom, In a Series of Letters. Including the most interesting Subjects contained in the Memoirs of Don Guillermo Bowles, and other Spanish Writers*, Dublin: Printed for S. Price, W. and H. Whitestone, T. Walker, W. Gilbert, C. Jenkin, W. Hallhead, L. White, C. Talbot, and P. Byrne.

-DU CASSE, Hermann (1840), *Échos de la Navarre. Quelques souvenirs d'un officier de Charles V*, Paris: Maison.

-FISCHER, Christian August (1801), *Reise von Amsterdam über Madrid und Cadix nach Genua in den Jahren 1797 und 1798*, Berlin: Johann Friedrich Unger.

-FORD, Richard (1845), *A hand-book for travellers in Spain, and readers at home. Describing the country and cities, the natives and their manners; the antiquities, religion, legends, fine arts, literature, sports, and gastronomy; with notices on Spanish history*, Londres: John Murray.

-FURLEY, John (1876), *Among the Carlists*, Londres: Samuel Tinsley.

-GOBINEAU, Arthur de (1853), *Essai sur l'inégalité des races humaines*, Paris: Gallimard, “La Pléiade” bilduman, 133-1174 orr. (lehen edizioa 1853koa zen).

-HENNINGSEN, Charles Frederick (1836), *The most striking events of a twelvemonth's campaign with Zumalacarrégui, in Navarre and the Basque provinces*, 2 tomo, Londres: John Murray.

-HONAN, Michael Burke (1836), *The Court and Camp of Don Carlos; being the results of a late tour in the Basque provinces, and parts of Catalonia, Aragon, Castile and Estramadura*, Londres: John Macrone.

-HUGO, Victor (2002a), *Pyrénées*, in *Oeuvres complètes. Voyages*, Paris: Robert Laffont, 751-893. orr. (lehen edizioa 1987koa da).

-HUGO, Victor (2002b), *Idi orgaren karranka. Euskal Herrian gaindi, 1843*, Donostia: Elkar (Koldo Izagirrek itzulia).

-HUMBOLDT, Wilhelm von (1817), *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin: In der Vossischen Buchhandlung.

-HUMBOLDT, Wilhelm von (1841), *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, in *Wilhelm von Humboldt's gesammelte Werke*, II. tomoa, Berlin: G. Reimer, 1-214. orr. (1. ed. 1821).

-HUMBOLDT, Wilhelm von (1843), "Reiseskizzen aus Biscaya", in *Wilhelm von Humboldt's gesammelte Werke*, III. tomoa, Berlin: G. Reimer, 213-240. orr.

-HUMBOLDT, Wilhelm von (1904), "Ankündigung einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation, nebst Angabe des Gesichtspunctes und Inhalts derselben", in *Gesammelte Schriften*, III. tomoa, Berlin: Behr, 288-299. orr. (1. ed. 1812).

-HUMBOLDT, Wilhelm von (1920), *Die Vasken, oder Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und das französische Basquenland im Frühling des Jahrs 1801, nebst Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation, und einer kurzen Darstellung ihrer Grammatik und ihres Wörtevvorraths*, in *Gesammelte Schriften*, XIII. tomoa, Berlin: Behr, 1-196. orr.

-INGLIS, Henry David (1831), *Spain in 1830*, Londres: Whittaker, Treacher, and Co., 2 tomo.

-LACOUR, J.-L. (1834), *Voyage pittoresque dans les Basses-Pyrénées, suivi d'une notice sur Cambo, ses eaux minérales et ses environs*, Baiona / Paris: Chez Jaymebon / Chez Arthus-Bertrand.

-LAGARDE, Prosper de (1835), *Voyage dans le Pays Basque et aux bains de Biaritz, contenant des observations sur la langue des Basques, leurs moeurs, leur caractère, etc.*, Paris: Audin.

-LONING, Adolf (1843), *Die Fueros des Königreichs Navarra und der baskischen Provinzen Alava, Biscaya und Guipuzcoa*, Hannover: In der Helwig'schen Hofbuchhandlung.

-LONING, Adolf (1844), *Das spanische Volk in seinen Ständen, Sitten und Gebräuchen, mit Episoden aus dem carlistischen Erbfolgekriege nach eigner Anschauung und Quellen*, Hannover: Verlag der Hahnschen Hofbuchhandlung.

-MICHEL, Francisque (1857), *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris.

-MICHEL, Francisque (1859), *Le romancéro du Pays Basque*, Paris / Londres / Edinburgh: Firmin Didot Frères, Fils et Cie. / Williams & Norgate.

-PEYRON, Jean François (1782), *Nouveau Voyage en Espagne, fait en 1777 et 1778, dans lequel on traite des moeurs, du caractere, des monumens anciens et modernes, du commerce, du théâtre, de la législation des tribunaux particuliers à ce royaume, et de l'Inquisition, avec de nouveaux détails sur son état actuel, et sur une procédure récente et fameuse*, 2 tomo, Londres: P. Elmsly.

-POITOU, Eugène-Louis (1869), *Voyage en Espagne*, Tours: Alfred Mame et fils.

-QUINET, Edgar (1998), *Mes vacances en Espagne*, Paris: L'Harmattan (1857an agerturiko edizioaren facsimila).

-RAHDEN, Wilhelm von (1851), *Aus Spaniens Bürgerkrieg 1833-1840*, Berlin: Verlag der Deckerschen Geheimen Ober-Hofbuchdruckerei.

-ROCHAU, August Ludwig von (1847), *Reiseleben in Südfrankreich und Spanien*, 2 tomo, Stuttgart & Tübingen: J. G. Cotta'scher Verlag.

-ROSCOE, Thomas (1837), *The Tourist in Spain. I. Biscay and the Castiles*, Londres: Robert Jennings & Co.

-RUSSELL, Henry (1873), *Biarritz and Basque countries*, Londres: Edward Stanford.

-SABATIER, Alexis (1836), *Tio Tomas. Souvenirs d'un soldat de Charles V*, Bordele: Chez Granet.

-STEPHENS, Edward Bell (1837), *The Basque provinces: their political state, scenery, and inhabitants; with adventures among the Carlists and Christinos*, 2 tomo, Londres: Whittaker & Co.

-VINSON, Julien (d.g.), "BASQUE (Pays)", *La Grande Encyclopédie. Inventaire raisonné des sciences, des lettres et des arts par une société de savants et de gens de lettres. Vol.V (Baillièrè - Belgiojoso)*, Paris: H. Lamirault et Cie., 610-614. orr.

-WILKINSON, Henry (1838), *Sketches of Scenery in the Basque Provinces of Spain with a Selection of National Music, arranged for Piano-Forte and Guitar: illustrated by Notes and Reminiscences connected with the War in Biscay and Castile*, Londres: Ackermann & Co.

2. Bestelako kontsulta lanak.

-AGIRREAZKUENAGA, Joseba (2003), “John Adams, USAko bigarren presidentearen ikuspegiak 1780ko Bilboko egonaldia-aren ondoren eta Bilbo ezagutzeko, XVIII. mende bukaerako gida”, *Bidebarrieta* (XIV), 85-91. orr.

-ALBERDI, Mikel (2003), “Zenbait bisitari britainiar Bilbon Lehen Karlistada garaian”, *Bidebarrieta* (XIV), 119-159. orr.

-ALTZIBAR, Xabier (1996), “Humboldt, Astarloa eta Mogel”, *RIEV* (41:2), 587-596. orr.

-AULESTIA, Gorka (1996), “Victor Hugo au Pays Basque”, *RIEV* (41:1), 99-106. orr.

-ARKOTXA, Aurelia (2001), *Septentrio*, Irun: Alberdania.

-AROCENA, Fausto (1949), *El País Vasco visto desde fuera*, Donostia: Biblioteca Bascongada de los Amigos del País.

-ARRETXE, Jon (2002), *Ekialdeko mamuak*, Donostia: Elkar.

-ARRETXE, Jon (2004), *Griot*, Donostia: Elkar.

-ASCUNCE, José Ángel & M^a Luisa SAN MIGUEL (2000), “Estudio bibliográfico: Justo Garate”, in ASKOREN ARTEAN (2000), 135-161. orr.

-ASKOREN ARTEAN (2000), *Justo Garate*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Aulestia, Gorka (1996), “Victor Hugo au Pays Basque (1843)”, *RIEV* (41:1), pp. 99-106.

-AZURMENDI, Joxe (1985), “Victor Hugo Euskal Herrian: euskaldunen aberria euskara dela eta beste gauza batzu”, *Jakin*, (37), 137-166. orr.

-AZURMENDI, Joxe (2002), “Victor Hugo Pasaian”, in Hugo (2002b), 7-42. orr.

-AZURMENDI, Joxe (2003), “Victor Hugoren etxean Pasaian”, *Jakin*, (138),

-BERRUEZO, José (1951), *Viajeros románticos en San Sebastián*, Donostia.

-*Bidebarrieta* (2003), “Bidaiak eta bidaiariak Bilbon barrena” izeneko ale berezia, *Bidebarrieta*, XIV. zenbakia.

-BILBAO, J. B., ‘Batxi’ (1997), *Hau mundu arrano hau*, Bilbo: Susa.

-BULLÓN DE MENDOZA, Alfonso (1997), “Viajeros en España durante la primera guerra carlista”, *Aportes* (34), 97-116.

-BURNS, Tom (2000), *Hispanomanía*, Bartzelona: Plaza & Janés.

-CANO, Harkaitz (2002), *Piano gainean gosaltzen*, Donostia: Erein [1. ed., 2000].

-CASPISTEGUI, Francisco Javier (1994), “¿Bárbaros o hidalgos? Los navarros vistos por los extranjeros”, in ZABALZA, Ana, *et alii*, *Navarra 1500-1850 (Trayectoria de una sociedad olvidada)*, Iruñea: Ediciones y Libros, 215-223. orr.

-CASPISTEGUI, Francisco Javier (1996), “Entre la curiosidad y la aprensión: las otras miradas”, in MARTÍN DUQUE, Ángel J. (zuz.), *Signos de identidad histórica para Navarra*, Iruñea: Nafarroako Kutxa, II. tomoa, 483-494. orr.

-DEL BURGO, Jaime (1963), *La aventura hispánica de los viajeros extranjeros y la España desconocida de Cénac Moncaut*, Iruñea: Ed. Gómez.

-DRACE-FRANCIS, Alex (2003), “‘Everybody’s Gotta Be Somewhere’. Northernness and Southernness in the European Imagination, and in the Basque Country”, argitaraturik gabeko artikulua, 2003ko maiatzaren 30ean Oxforden aurkeztua.

-EL ZARKA, Dina & Ralf VOLLMANN (2000), “Wilhelm von Humboldts baskologisches Vermächtnis”, www-gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/derv2000.html

-EL ZARKA, Dina (2002), “Wilhelm von Humboldts baskische Monographie”, www-gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/txt/EZD2002A.html

-GARATE, Justo (1927), “Houston Stewart Chamberlain y los vascos”, *RIEV* (XVIII), 644-646.

-GARATE, Justo (1929), “La Biblia en España. Por George Borrow”, *RIEV* (XX), 293-305. orr.

-GARATE, Justo (1933a), *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbo: Imprenta Provincial de Vizcaya.

-GARATE, Justo (itzultzaile) (1933b), *Viaje a Navarra durante la insurrección vasca (1835)*[J. A. Chahok idatzia], Bilbo: Imprenta Moderna.

-GARATE, Justo (1935), “Las citas vascas de Victor Hugo y el vasco-celtismo”, *RIEV* (XXVI), 633-639. orr.

-GARATE, Justo (1949), “La Baronesa d’Aulnoy en Vasconia y Castilla”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Homenaje a D. Julio de Urquijo*, II, 249-273. orr.

-GARATE, Justo (1978), “Relato del viaje de Bilbao a Burgos por Christian August Fischer”, *Boletín de la Institución Sancho el Sabio* (XXII), 409-418. orr.

-GARATE, Justo (1982), "Christian August Fischer y sus tres cartas guetarianas", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (XXXVIII), 211-225. orr.

-GARATE, Justo (1989), *Viajeros extranjeros en Vasconia*, Buenos Aires: Ekin [1. ed. 1942].

-GARATE, Justo (1993), "Doce cartas nuevas de los esposos Humboldt escritas en España (1799-1800)", *RIEV* (XXXVIII), 47-71. orr.

-HERNANDO, Beatriz (1997), "Viajeros en la España de Fernando VII", *Aportes* (34), 65-96. orr.

-HULME, Peter & Tim YOUNGS (ed.) (2002), *The Cambridge Companion to Travel Writing*, Cambridge: Cambridge University Press.

-HURCH, Bernhard (ed.) (2002a), *Die baskischen Materialien aus dem Nachlaß Wilhelm von Humboldts. Astarloa, Charpentier, Fréret, Aizpitarte und anderes*, Paderborn / Munich / Viena / Zürich: Ferdinand Schöningh.

-HURCH, Bernhard (2002b), "Vorwort", in HURCH (2002a), 9-17. orr.

-HURCH, Bernhard; KEREJETA, Maria Jose & Ricardo GÓMEZ (2002), "Der Stellenwert Astarloas und des *Plan de Lenguas*", in HURCH (2002a), 21-42. orr.

-INTXAUSTI, Joseba (1996), "W. von Humboldt. Haren eta harekiko 'gure' argitalpenak", *RIEV* (41:2), 623-642. orr.

-IRIARTE LÓPEZ, Iñaki (2000), *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*, Madril: Biblioteca Nueva.

-IRIBARREN, José M^a (1950), *Vitoria y los viajeros del siglo romántico*, Gasteiz: Caja de Ahorros de Vitoria.

-IRIBARREN, José M^a (1957), *Pamplona y los viajeros de otros siglos*, Iruñea: Príncipe de Viana Instituzioa.

-KEREJETA, Maria Jose (1997), "La copia del diccionario de Pouvreau y otros trabajos lexicográficos encontrados en el legado de Humboldt", www.gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/txt/KMJ1997_01.html

-LANDA, Nicasio (1878), "Crania euskara", *Revista Euskara* (I), 49-53 eta 81-91. orr.

-LERTXUNDI, Anjel (2004), *Italia, bizitza hizpide*, Irun: Alberdania / Berria.

-LÓPEZ VELASCO, Rafael (2004), Navarra shall be... *La Tierra del Euskara y las Islas Británicas*, Iruñea: Pamiela.

-MARTÍNEZ SALAZAR, Ángel (1995), *Aquellos ojos extraños. Euskal Herria en los libros de viajes*, Gasteiz: Papeles de Zabalanda.

-MARTÍNEZ SALAZAR, Ángel (1996), “Euskal Herria en los libros de viajes”, *RIEV* (41:2), 559-572. orr.

-MONREAL, Beatriz (1983), *Guipúzcoa en escritores y viajeros*, Donostia: Caja de Ahorros Provincial.

-MUELLER-VOLLMER, Kurt (1991), “Die Vaskische Haupt- und Muttersprache. Zwei unveröffentliche Stücke aus Humboldts baskischen Arbeitsbüchern 1800-1801”, in SCHMITTER, Peter (ed.), *Multum - non multa? Studien zur ‘Einheit der Reflexion’ im Werk Wilhelm von Humboldts. Mit der Edition zweier bisher unveröffentlicher Texte aus Humboldts Arbeitsbüchern*, Münster: Nodos Publikationen, 111-130. orr.

-MURUA, Imanol (1998), *Palestina zauritua*, Bilbo: Susa.

-MURUA, Imanol & H. UNZUETA, *Suetena Belfasten*, Bilbo: Susa.

-OLASAGARRE, Juanjo (1998), *Mandelaren Afrika*, Bilbo: Susa.

-ORTA, Esteban (1993), *Tudela y la Ribera tudelana a través de los viajeros*, Tuterá.

-ORY, Pascal (1997), “Le ‘Grand Dictionnaire’ de Pierre Larousse”, in NORA, Pierre (zuz.), *Les lieux de mémoire*, 1. tomo, Paris: Gallimard, 227-238. orr.

-RIEV (1996), Wilhelm von Humboldten inguruko zenbaki berezia, *RIEV* (41:2).

-RUBIO, Coro (2000), “La imagen de los vascos en los viajeros europeos del siglo XIX”, *Oihenart* (18), 95-125. orr.

-SÁNCHEZ-PRIETO, Juan M^a (1993), *El imaginario vasco. Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo 1833-1876*, Bartzelona: EIUNSA.

-SÁNCHEZ-PRIETO, Juan M^a (2004), “Familia Strangers: The Reflective Gaze on the Basque Country between the Two Carlist Wars”, argitaraturik gabeko artikulua.

-SANTOYO, Julio-César (1972a), *Viajeros por Álava. Siglos XV a XVIII*, Gasteiz: Biblioteca Alavesa “Luis de Ajuria”.

-SANTOYO, Julio-César (1972b), *La Legión Británica en Vitoria*, Gasteiz: Biblioteca Alavesa “Luis de Ajuria”.

-SPENCER, Jonathan (1999), *The Chan’s Great Continent. China in Western Minds*, Londres: Allen Lane The Penguin Press.

-TAUBER, Christine (1998), “Nachrevolutionäre Klassizismus. Wilhelm von Humboldts Spanienreisen”, *Archiv für Kulturgeschichte* (80:1), 193-212. orr.

-URIARTE ASTARLOA, José M^a (2002), *Pablo Pedro Astarloa (1752-1806). Biografia*, Durango: Durangoko Arte eta Historia Museoa.

-URQUIJO, José Ramón (1994), “Bilboko setioak”, in Bacon (1994), 17-88. orr.

-ZIMMERMANN, Christian von (1997), *Reiseberichte und Romanzen. Kulturgeschichtliche Studien zur Perzeption und Rezeption Spaniens im deutschen Sprachraum des 18. Jahrhunderts*, Tübingen: Niemeyer.